


# TREIÑERU ESTROPADAK



Ondarroa'ko talaitik

1865-1970

Augustin Zubikarai

Egilea: Augustin Zubikarai. D.N.I. 14.184.910  
Legerako Gordetza (Depósito Legal): BI-1403-87  
Konponketa: Flash Composition. Bilbo  
Irarkola: Gráficas Ibarsusi.

## 1. - ONDARROA ESTROPADETAN



Kantauriko uretan  
Ondarroa ren izena  
aizetu ta goratu eben  
erremulari zarrei,  
ezagutu genduzanen  
lotsa eta deduz  
eta erramulari barrien  
gogo indartuz.



## GURE ASMOA

Gure asmoa, labur eta zeatz esanda, onetan mugatzen da:

Ondarroan dagon lenengo estropadetako banderaren urten asi, eta beste eun urteko estropadei buruz argitasun pixka bat emotea da.

Orretarako, denporaldi ori 1865-1965 bitartea da.

Urteak mugatze orrek ba dauka bere zegaiti eta azalpena.

Geienbat Ondarroa ko estropadetan jokaturako urteak eta inguruak aztertu al doguz.

Garbi esanda, Ondarroa ko Talalatik begiratuta lez, gure begiekin ikusita lez.

Eta zabaltasun osoz, itsukeri barik, entzutekoak entzuteko gertu eta esatekoak esateko oztopo barik.

Estropadei buruz inok entzun izan ba dau, Ondarroa'k entzun zitun bereak eta bi.

Egon izan dira garrazkeriak estropadetan. Zirikaldi pozoidunak be bai.

Urteak dana astu eragiten dabe, batez be bizitzako legez, une baten egille eta eragille izanak, gero oroitza eta gomutetan geratzen diralako.

Ondarroa estropada zale izan da beti. Mariñelen aldetik, arrantzalien aldetik eta eurei lotuta eta begira bizi diran gaiñerako erriaren aldetik.

Eta eun urte orreitan sartzen dira bere estropada andiak.

Ez bakarrik bereak, bai beste askorenak be.

Estropadak len, gain gaiñetik, Donosti eta Bilbo inguruan egiten ziran. Zemailetako (desafioetako) banakak kenduta. Origaitik euken alako entzute, begiramen eta erriaren aldetiko lotsa; origaitik sortu eragiten eben goitik berako irristada kezkatia.

Urte batzuk ezkerro, azken ogei oneitan, ugaritu egin dira bai jokoak eurak eta baita

agerketako tokiak be.

Orain batzutan txapelketa izenez, bestetan leiaketa, edo ta erri bateko indar-neurketa ta abar, nun jokatu asko gertuten da, oiturazko erri nausi bietako banderen gain, beste errj txiki asko eta ainbat erakunde eta merkatarri alkarteen laguntzetakuak. Gaur, gai danak edo suerteko danak, len ia gizaldi erdi baten jokatzen ziran bandera aína batu leikez urte betean, ainbat tokitan eskintzen diranetatik.

Treiñeruak ez dira lengoen lakoak.

Len, denporaldi luze baten, egunero itxasoan arrantza kontu eta zeregiñetan erabilten zituenak ziran. Geroago asi ziran treiñeru orreik findu eta egokitu eta jokoetarako berezi izango ziran arjn eta zorrotzak egiten.

Dakigunez lenengotan asarreak egon ziran orjgaitik. Baiña bermeotarrak 1888 urte ezkeroztik asiak ziran orrelako txalopekin jokatzen.

Gaur erramuak, arraun berberak, ez dauke lengoen luzera eta lodierarik, ez eta egur batasunik, eta pixu bardiñik be ez.

Gu ez guaz orren aurka.

Ezin giñei era eta eskola barririk ezetzi eta bastertu. Bizitzako legea da.

Orrez gaiñera gaur estropadetarako tolde berezi, aukeratu eta artarakoak sortzen eta gertuten asi gara. Batel, treiñeru txiki, treiñeru andi eta abarretan.

Len gizonak eguneroko ogibide arrantza ebanak izaten ziran Beartu egiten ziran gaiñera sei illabete aurrez arrantza-ogibideon ibiltera.

Gaur kirol zaleak arrantzaleak aína izango dira estropadalarien artean.

Lengo estropadak, sarri, itxasoan arrantzan ebiltzala alkarri emondako desfaiotatik sortzen ziran. Alkarregaz itxasoan ibili, eta olgeta-benetan alkarren parean jarri, alkar zirikatu irribarre edo erdi burlazko begirakadeen bat egiten eutsela... ta andik laster estropoda, Estropada arraiñaren "gorri"ra elduteko; estropada arraiña txaloparatu ondoren, portura zein lenago eldu eta abar, Or sari bikoitza egoan. Bata bakoitzaren norgeiagotasuna puztuteko edo atsegin artzeko beintzat. Bestetik zein lenago eldu, norbere kaira arrain saltzera zein ariñago elduteak, bere ondorena eukiten eban ondasu-netan.

Orrela estropada asko ogibide barruan bertan egiten ziran, itxas\_ zabalean.

Eta ez gaur lez molla barruetan, erreka onduetan eta errien inguruko itxas aurretan. Askotan itxas barruan bertan.

Lengo estropadak, orañ eun urtetakoak, sarri itxas mutur (kabu) batetik besterakoak izaten ziran, Batzutan Matzaku'tik Otoio`ra, bestetan Otoio`tik Getaria'ko San Anton`era. Edo ta andik Donostia`ra, edo ta Donostia`tik Pasai barrua bitartean.

Onelaxe jokatzen eban eta erriak, erritarrak, sututa, odolak irakiten jokatu be.

Ez egoan orduan aurrez ikasi eta gertaerarik egin bearrik. Ez egoan entrenamentu egin bearrik. Egunero euken ori. Fñoiz erri batek beste baten aurka jokatu bear ba eban, txalopetatik gizonik onenak aukeratu eta alkar ezagutzeko edo ondo artzeko egunak izaten ziran gertabide. Eta beste barjk errien izena jokatu. Orretan, bai, jokolari itsuak ziran erri osuak. Ez euken gauza askorik be jokatzeke, eta orrek, askotan, etxeko oek bejokatutera adoretzen zitun, gure zarrak argi ta garbi esaten ekien lez, euren etxeetan gertaturiko lez ikusia kontatean. Berba baten esateko, miserian biziarren, esaten zan lez miseri gorrian biziarren, miseri berbera be jokatu egiten eban.

Ainbestekoak ziran estropaden eragiña eta etxekotasuna gu geuk be ezagutu genduzan erritarretan





## LENENGO BANDERA.- 1865.

Euskalerrian ezagutzen dan estropadetako lenengo bandera Ondarroa 'n dago. Bera da ezagutzen dan zarrena.

Beraz bidezko da ondarrutar batek, estropaden kontuak esaten astean, bera oiñarritzat artzea, eta Kondairan sartzea.

Bandera au dala ta komeni da oker batzuk zuzendutea.

Noz-nai irakurten da bandera ori Donostia ko estropadetan irabazia dala.

Ala "Añamendi" saileko "Juegos y Deportes Vascos" liburuan (Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco) Rafael Agirre Franco k idatzita, au esaten da 594 orrialdean:

"Sin embargo, con anterioridad a esta fecha (esan gura dau 1879 urtea) se celebran en la bahia de la Concha de San Sebastian diversos desafios de los que no ha quedado constancia escrita, pero de los que sabemos, porque en la Cofradía de Ondarroa está depositada una bandera ganada en la Concha el 3 de agosto de 1865".

"Alaz eta 1879 urtea aurretik, Donosti 'ko Kontxan zemai (desafio) batzuk ospatu ziran. Euretaz ez da idatzitako ezer gordeten, baiña ba dakigu euren barri, Ondarroa'ko Kofradian gordeten dalako Kontxan 1865 urteko Dagonillaren 3' ean irabazitako bandera."

Geroago, 599 orrialdean, datu bardiñak agertzen dira, bai egun, urte, toki eta erriari buruz.

Liburu berbetan, 646 orrialdean, "Historial de las traineras y tripulaciones más importantes" saillean esaten da:

"3 de agosto de 1865. El único dato que existe de esta regata, celebrada en la Concha de San Sebastián, es una bandera que ocupa lugar de honor en las vitrinas de la Cofradía de Ondarroa."

(1865 "ko Dagonillaren 3" an. "Donostia "ko Kontxan ospatutako estropada onen zeaztasun bakarra, Ondarroa "ko Kofradian dagon leiarrezko gordelekuan tokirik onenean zaintzen dan bandera da").

Esanak ikusita zurtatzen dira, eta *guk* bandera orreri buruz au esan geinke: **Ez zala Abustuaren 3<sup>o</sup>koa. 31<sup>o</sup>koa baiño. Ez dala DonostIn Jokatutako estropadetakoa,**

Bandera onetan au irakurten da argi ta garbi:

ONDARROA.

REGATA DE BFLBAO CELEBRADA EL 31 DE AGOSTO DE 1865.

UNFCO PREMIO DE HONOR.

Eta esanak ziurtatzeko eta gauzak diran lez ikusteko, ara emen bandera berberaren argazkia.

## ATZERAGO BEGIRA.

Ez ete zan ezagutu estropaden barririk, edo ta ez ete egoan aztarrenik ori baiño aurrerago?

Onetan, bertso bidez egindako kroniketan zerbai billatu leike, sakondu ezkeru.

Resurrección M. Azkue jaunak bere "Cancionero Popular Vasco" liburuan itxi eban estropada baten barri, berak batutako lez agertu zitun bertsoetan.

"Ondarrutar oriek egin dute plana..." dauke asieratzat.

Bera lekeitiarra zanez, itxuraz ba ekian zerbait.

Lekeitio eta Ondarroa'ko txalopa bik 1854 urtean jokaturako estropada batekoak dirala, diño.

Ez da esaten euretan batel edo treiñeruen estropada izan ete zan. Sasoi aretan oituraz batelenak be egiten ziran eta jakingarri litzake. Estropada Lekeitio 'ko Santa Katalina muturretik Getaria' ko portura jokatu zala. Eta ba dirudi ez zala izan estropada garbia. Ftxasoan bertan berbak baiño zerbait geitxuago be egon zala, dirudianez asarretu eta alkar jotzen ibili ziralako, txalopei oztopoak ipintzen:

"Popatik eldu ta arrauna kentzera,  
orduan artu zuen txalupak bestera..."

Bai eta seigarren bertsoaldiko asiera be, giroaren erakusle eta testigantza emoten dator:

"Erbestera joan da endreruan asi,  
ederrak ematea zutela merezi..."

Estropada au ondarrutarrak galdu eben. Ala igarten da. Eta bear ba da erri bi onein artean estropada auzietan euki izan daben ikusi eziña, edo alkartu eziña, edo bekaizkeria (inbidia) edo alkarrentzako borondaterik ezaren oiñarri edo asiera izan eikean.

Esan dogun lez ez da zeaztuten orduko jokalaririk treiñeruak ala batelak ziran.

Jakiña da, arrantzarako ontziak aldi bakoitzean zelako, alakoak erabilten zirala estro-

padetan. Eta danok dakigu trañak agertu aurretik, sare txikiagoak erabilten zirala. Gogoratu trañeru berbak, trañagaz arrantzaten daben ontzia adierazoten dauala.

Orrela gertaten zan itxas-ertz gutzian.

Ba dirudi egon zala denporaldi bat Kantabria ko Castro'tik euskadunei eta batez be bizkaitarrei ziri ta tirrika ibiltzen ziranekoa.

"Nun dago Lekeitio?  
Nun dago Ondarroa?  
Nun Bermeotarren  
kalako santzoa?"

Nun?

Bertsolari berberak ba daki zelan erantzun:

"Onek aspiratuta  
Garoia Gutierrez!  
iñoz ikusi ezтира,  
ta ezta ikusten errez".

Eta geroago, Santander'eko estropadetara ez joatea bildurragaitik ez dala izan egiaz-tatzeko, orretan koldarkeririk egon ez dala adierazi nairik, ara bertsolariak zelako aitzaki edo errazoia emoten dauan:

"Bizkaiko txaluparik  
estropadetarako  
ezta egon Santanderen  
ioan eztalako;  
ze bat utsa egon ba litz  
ala Jaungoikoa!  
bera zan dirua  
estropadakoa.

Egia esateko, arro agertzen da bertsolaria, baiña ez da "super" lez jarduten. Ba daki gure parean ba dagozala beste estropadalari onak, ba dagozala beste anai batzuk:

"... baina geugaz bardiñak  
bakarrik Giputzak.

Ezin ukatu zentzu onez adierazten danik.

Bertso oneitan, beste oargarri bat billatzen dogu. Euskal itxastarrak nun ibili, an euki dabela estropadetarako gaitasuna erakusteko gogoia, edo aukeraren bat billatu izan dabela orretarako. Beste edozein kirolzalek bere zaillean jokatu edo agertu nai izan dauan antzera.

Ftxuraz, Mallorkakoak eta bizkatarrak, estropadaren bat jokatu eben Cuba'ko Habano' n, lengo gizaldiaren erdi aldera. Bertsolariaren bizi-denporatik ala iduritu eta igarri giñei. Eta an bizkaitarrak irabazi ebela bertsoetatik konturatzen gara.

"Mallorkin itsasgizon  
bana-banakoak,  
ezagututa daukez  
Bizkaitar besoak:  
bada Habanako kaian  
ziurtu zirean  
Bizkaiko kostakoak  
ze gizon direan."

Atzerago jota zerbait aurkitzeko aukera eukido genduke.

Guazen 719 urtera. Izaro ugarte dala ta ez tala mundakarrak eta bermeotarrak estropadan billatuko doguz, estropadako garai ikur edo bandera lez Fzaro berberaren jaubetasuna lortzeko.

Zortzi egunetan ibili ziran gerfuten eta estropada Uztailla 'ren 22<sup>l</sup> ean jokatu zan, treiñeru bardiñekin, bakoitzean 13 erramulari eta patroia eroanaz.

Arrezkero Fzara Bermeo 'ko udalaren jaubetasuneko da.

Oarra: Gai ontaz ikusi liburu onetako Bertso saillean:

1854 "Ondarrutar oriek egin dute plana .." (Resurrección M. Azkue 'k batuak)

i..? "Castroko Abantariari". Eusebio M. Azkuek.

a. ? "Castroko Arrantzariari". Eusebio M. Azkuek.



## 1887<sup>"</sup> KO IRAILLA REN 12<sup>"</sup> KO ESTROPADA.

Jai andiak Bilbon.

Geien be gerfuten iñarduen portu barriaren egitasmoa Estaduko agintariei azaldu eta erakutsi eta egitasmu orren alde euren gogoia suspertu eta euren laugntasuna lortzeko asmotan.

Ala Erregiña gonbidatu eben bertara. Maria Cristina zan erregin ori, eta iru urte eukanzan Alfontso XIII erregetzakoa beragaz eroan eban.

Ikerfaldi ori jaiez inguratua izan zan. Jaien artean, bilbotarrak ain maite zituen estropadak.

Ondarroa 'ko erramulari zarrak eroan eben erregiña, Porfugalete 'n asi eta Bil-

bo' raiño, lorez, bitxiz eta sedaz andikiro apaindu, jantzi eta dotoretutako itxas ontzi zabal baten.

itxasontziaren zuzendari, agintari berberen eskabidez, Gregorio Zelaia patroiz zarra. Gure erria arrotu zan eta pozez zorutzen ardura ori bete.

"Falua Erreal" lez ezagutzen da erri onetan orduko jai ori.

"Amasei gizon gazte txalopa andian,  
Erregiña ta errege eurekin batian,  
gauza ederragorik uraren gainian  
ezkenduan ikusi begian aurrian".

Bertsolari berberari esker dakigu gure gizonak zelako jantzi eta soñeko eta gertueraz ibili ziran.

"Abarketa pintauak, pantaloi zuriak,  
alkondara igualak da boina gorriak,  
kokote ederrekuak, gori belarriak,  
izarren antzekuak zituzten begiak".



**VISJTÁEÑ** **M•**  
**oE LAS**  
**RECATAS A 2LU**  
**h<sup>s</sup> +prembre de 188T**

Edo ta beste bertso sail baten kantauagaz batera agertzen diran lez:

Gizonak zirudien  
aingeru tropia,  
Falua Erreal  
Madriko kortia,  
aren barrena zeukan  
sedaz estaila,  
terziopelozkua  
zeukan silleria".



Esan bearreko da itxasontzi orretako apaindura ugari ondarrutarrei eskiñi eutsezala bilbotarrak. Ala bertan Madrideko Kortiairen ezaugarriko leoi irudi andi ta pixotsua, aztuna; ala tertiopeluak, eurekin eleizako jantziak egin al izateko aiña; argazki apain eta dotoreak eta abar ugari.

Estropadak be jokatu ziran.

Bederatzi treiñeru batu ziran alkarren leian jokatzeko: Bermeo ´ko iru, beste iru ondarrutar, Santurtzeko bi eta Zierbana 1<a bat.

Estropadako irabazle Ondarroa ko treiñerua izan zan. Ez bakarrik lenengoa, bai eta bigarren sariarena be. Eta irugarren Bermeo.

Estropada eta egun orretako bandera bi gordeten dira Ondarroa ko Santa Clara Arrantzalien kofradiako leiarrezko arasan eta gorago aipatu dogun leoia, Kofradi berbertako Batzarretako aretoaren sarreran dogo.

Banderan esaera onek daukez:

Batek:

REGATAS A REMO CELEBRADAS EN LA RFA DE BILBAO,  
EL DIA 12 DE SEPTIEMBRE DE 1887, EN PRESENCIA  
DE S.S.M.M. y A.A.R.R.

BANDERA DE HONOR GANADA POR LOS ONDARRESES.

Besteak au:


VFSFTA DE S.S.M.M.  
A LOS VENCEDORES  
DE LAS  
REGATAS A REMO.  
BILBAO 12 de septiembre de 1887.

Ez da arrigarri denpora areitako ondarrutarren arrotasuna eta poztasuna. Origaitik bertso tolde baten errepika (estribillo) onela dator:

Atozte orain, atozte orain  
ikusi dezagun bandera,  
Bilbo orretik ekarritako  
erregalu ederra.  
Bandera eramaten iñor bada asitzen  
legoia daukagu zaintzen,  
legoiak laster iruntsiko du  
iñor ba da deskuidatzen.

Oarra: Ikusi liburu onetako bertso saillean, Falua errealeko bertsoak:

1887. "Fiestak egiteko komisionatuak..." Diburtzio Urrusolo.  
1887 "Abisatu digute guri bilbotarrak.. Diburtzio Urrusolo.  
1887 "Bilboko estropadetako Kantak X. X. •



## 1.888 " N BILBO " KO ABRAN JOKATUTAKOAK. 21-IX-1888

Fgazko Iraillean Portugalete ko mollaren azken arria ipintea ospatu zan.

Urte onetan, 1888 n Bilbo ko portu barriaren lenengo arria ipintea zala-ta, estropada andiak gertu ziran.

Madrik eko Gobernuako agintariak, Portu Barriko Alkarteko arduradunak, Bilbo eta ibai egaleko errietako agintari eta abar batu ziran egun onetan.

Estropadarako Ondarroatik iru treiñeru bialdu ziran, Ambrosio Bedialauneta, Jose Lekue eta Luis Urresti ziralta treiñeru bakoitzeko patroï.

Bermeo tik treiñeru bi agertu ziran.

Lekeitio 'tik bat.

Eta gipuzkoar bi be agertu ziran, bato Pasai San Pedro'tik, eta bestea Mutriku 'tik.

Estropada aurretik, treiñeruak ikusi ziranean, asarre eta naste ugari sortu zan erremulari eta errietako ordezkarien artean.

Ordurarte estropadak arrantzan erabilten ziran txalopekaz egiten ziran, eta alaxe eroan zituen bost portutako taldeak, baiña bermiarrak estropadarako eskutuan bereziki egiñak atara zituen, beste treiñeruak baiño arin, bixkor, txairo eta erabilteko erre-zaguak.

Beste guztiak gogor egin eutsen jokabide orren aurka, treiñeru orrejk oiturazko legearen kanporakuak ziralta-ta.

Gertu egozan ezjokatzerata, aurrez ikusten ebelako txalopa bi areikaz bentajazjoiatzala bermiotarrak, baiña eratzailien eta bertan batu ziran agintarien arren eta erreguei men egiñaz, makurtu ziran eta jokatzerata gertu.

Lenengo eta bigarren sariak, uste izan zan lez, bermiarren treiñeruentzat izan ziran. Irugarren, Ambrosio Bedialauneta patroï zan ondarrutarren treiñerua.

Estropada au, liburuetan, Azilla 'ren 21 'an jokatutakotzat agertzen da, baiña ziuerra da Fraillen izan zala eta 21 egunean.

Azillean jokatu ba litz, ez zan ikusiko andik lau egunetara Pasai eta Ondarru arteko estropada entzutetsua, ainbat dei, joan etorri, txalopa barri aukeratze eta ainbeste kostatu zan estropadaren baldintzak jarri eta onartze eta abar, ezin ziralako lau egunetan burutu.

Ain zuzen be pasaitarrak Ondarroa ri jaurti eutsen desafiaoa, baiña ondarrutarrak lenengotan erantzun eutsen Bermiotarrentzat bear zala aupada ori, areik ziralako urte aretan Bizkaian txapeldu geratu ziranak, eta areik ortara ukatu ziranean, ori ikusitara gero onartu eban Ondarroa "k pasaitarren axuta.

## **1888 PASAI ETA ONDARROA " KO ERRAMULARIEN ARTEKO ESTROPADA.**

Bilbo 'n Fraillen jokatu zan estropada ondoren, Pasai Sanpedrotarrak ez ziran pozik geratu eta Ondarroa ' ri axuta bota eutsen bien artean estropada batjokatzerata itxas zaba-lean, ibillera zeastuaz, Getari San Anton muturretik Donostia 'ro.

Orduko paperetatik dakigunez, ondarrutarrak ez eben jokatu nai izan orrelako estropadarik desafio itxuran, eta erantzun eutsen estropada ori era orretan egitea Bermeo ri jogokola, arek irabazi ebalako Bilbao'n.

Baiña pasaitarrak jokatu nai eben eta azken baten makurtu ziran ondarrutarrak indarrak neurtzerata.

Azilla 'ren 25 garren egunean jokatu zan, au da, Bilbon egin zanetik ille bira.

Pasaitarrak ipintzen eben baldintza, gitxienez, amar millako bidea zan.

Eguerdian asi eben estropada.





Jende ugari, bai itxas txalopa eta ontzietan, bai eta itxas ertzeko bide, mendi mutur eta zela-ala itxasoko jokoa ikusi eikean toki eta ingurutan.

Asi eta laster igarri zan ondarrutarrak asierako txanpatik artu ebela aurea.

Konfiantza orregaz, ibillera aurreratutzat emon ebenean, ondarrutar erramulari bik egarria kentzeko zerbait edan eben. Batzuk ura zala esaten dabe, besteak ardaua zala. Eta edariak gaitz egin eutsen, biztu eta adoretu bearrean makaldu eta tenteldu, eta ozta-ozta amaitu eben estropada.

Azkenean, Donosti ko balizara eldu ziranean, gauzak estu igarten el ziran an. Amabost segundo lenago sartzea lortu eben ondarrutarrak, baiña kezkatu eta larri, indarrak makaltzen eiozala igarriaz, eta pasaitarrak azken alegiñak adorez egiten zituela ikusita.

Garaitza onek entzute andia emon eutsen ondarrutarrei, bai eta iruntzi eziña be beste askori.

Estropada au gogoratzeko Bilbo ko Club Nautico kuak bandera bat eutsen ondarrutarrei.

Bandera orren esaera au da:

25 de noviembre de 1888

A ONDARROA

Regalo del Club Náutico.

Ibillaldia 84 minututan amaitu eben ondarrutarrak eta amabost segundo geroago sartu ziran pasaitarrak, au da, 84'15" mirtutuak bete ondoren.

Treñeru biak bardiñak ziran, 41 oin luzerakoak. Eta "amalau gizon portu bakoitzetik eta patroia atzean" izan ziran ekitaldi ori bete ebenak.

Estropadak onek oraindik gogoratzen diran bertsuak sortu eta kaleratu zitun. Baiña bertsoetan gauza arrigarri bat irakurten da, eta bertsolaria ez zan kanpotarra, ondarrutarria baiño.

Bilboko aurrerako estropada Azillaren 21 'an jokatu zala esaten da. Eta desafioa bitarteko egonarren, artu efe eikean ain arin erabagia, kontuan eukita Ondarroak, lanen-gotan, ez ebalajokatu nai, gero pasaitarrak euren errira biurtu eta artu-emonetan asi, eta bertsoei jarraituz "egunak jua eta egunak etorri kontestaziorik etzan"... eta gero treiñerak "Pasaian egin sei egun eta Getarian entregatu"... eta orrelakoak kontuan euki bearreko dirala jakinda?

Ba dirud; treiñeru bien artean kemenez eta alegintsu jokatuarren, alkar artean adiskide amaitu ebela. Ori diñoie beintzat orduko bertsoak:

Jokatu eta orra irabazi,  
orra bentaja atera,  
agur Pasaia, beste bat arte,  
Siglo 'n ba goiaz etxera,  
asarrerikan batere ez degu,  
len bezin adiskide gera,  
amoriozko tratamentua  
berriz nai neuke aurrera.

Estropada onetan, ondarrutarrak itxas zabal aldetik egin eben euren bidea, eta pasaitarrak itxasertz— aldetik.

Bertsotan esaten dan "Siglo" gizonak erabilteko bilbotarrak ondarrutarrei eskintzen eutsen itxasontzia zan. Onetan esan bearreko da ondarrutarrak bilbotar andikien laguntza artzen ebela euren gertaera eta jokaidietan.

Oarra: Ikusi liburu onetako bertso saillean estropada oneri buruzko bertsoak.

1888.—Ondarru ta Pasaiajokaturak estropada aurretik atartakoak. T Urrusolo.

1888.—Ondorru ta Pasaiajokaturak estropada aurretik atartakoak T IJrusolo

## **1889.-BILBO KO IBAIAN JOKATUTAKO ESTROPADAK.**

Azken urtetako oiturea jarraituz, Fraillaren 23 'erako eratu ziran urte onetako estropadak.

Euretarako deiak zelako arrakasta euki eban jakiteko, begiratu zenbat errietako treiñeru gertu ziran euretan indarrak neurtzera.

Bermeo 'tik 4.  
Lekeitio 'tik 3.  
Ondarroatik 3.  
Mutriku 'tik 2.  
Pasai "tik 1.

Guztira bost portuetatik amairu treiñeru.

Estropada jokatu eta ibillaldiko denporak onela geratu ziran:

- 1.— "Manuelita", bermeotarra. 27' 34".
- 2.— "Palmira", bermeotarra. 28' 7".
- 3.— "Gregorio Zelaia". Ondarroa. 28' 12".
- 4.— "Piedad". Ondarroa. 28' 23".
- 5.— "María Concepción". Pasai. 28' 24".

Eztabaida gogorra egon zan laugarren eta bostgarrenaren orduari buruz, juraduen ustez segundo bakarra. Eta ondarrutarrak, euren borondatez, Pasai ri eskifiri eta emon eutsen laugarren saria.

Azken mutrikuarra sartu zan, 30 minutu eta 50 segundotara.

Fkusten danez, ondarrutarrak pasaitarrekin beti euki izan daben adiskidetasunik ez eben galdu nai izan. Pasaitarrak, lenengo juraduen erabagia entzun ebenean berotu eta asarretu ba ziran be, gero besarkadaka artu ei eben ondarrutarren jokabidea.

Une bi lenago be amairu treiñeruk jokatu eben estropada erreka onetan.

Orduan be ondarrutarrak irabaziarren, benetako adiskidetsunean ospatu ei eben danen artean garaitza ori.

Orrelaxe jokatzen ziran geienetan sasoi aretako estropadak. Alkarren leian, baiña gizonki. Galdu nai irabazi, adiskide. Nai ta tartetan...

## 1890 URTEKO ESTROPADA.

Estropaden artean ba dago bat ain zuzen be ondarrutarrak miñez artu ebena eta oraindik be ia urtero Donosti aFdetik gogoratzen dakiena.

Urteroko orrek min bizia sortuten dau ondarrutarren biotzetan.

1890 urtean zan.

Lenago, 1888<sup>o</sup> ko Pasai eta Ondarru arteko estropadak zotin eragin eban ez bakarrik Gipuzkoan, bai Euskalerrri guztian be.

Zer esanak sortu ziran,

sarreak biztu,

odolak berotu,

alkar-arteko artu emonak garraztu...

Eta desafioa ez zan Ondarrutik aizetu. Donostiatik bialdu eben Ondarroa ra.

Estropada galdu eben ondarrutarrak. Alaz eta nire erritarrak sekula ez dabe onartu estropada orretako azkena.

Ez dakie zegaitik, ez dakie zer gertatu zan, baiña orduko gertaera ori miñez artzen da gogoratzen dan bakoitzean.

Gerta eikean borondaterik onenagaz jokatu eta galdutea; gerta eikean artu ziran erabagiak bidezkoak izatea, baiña galdu zalako okertzat artu. Ez jakin.

Ondarrutarrak estu artu eben estropada aretako patroia, betozkoz ikusi.

Eta patroia arek ez eban euki beste erremediorik erritik iges egitea baiño.

Lengo zarrak esaten ekien orduko patroiak, jai andi baten, eguneko meza goizean entzun eta jaunartu ondoren, iñori ezer esan barik, burua makur, erbesteko bidea artu ebal, geiago bertara ez etorteko.

Orrek be ez dau esan nai gizon baten txarkeririk. Bear ba da, bera ikusten zan egoerak barrua artu eragingo eutsan.

Fkusi daigun zeaztasun geiagoz eta zertzelada ugariz, estropada a noiz jokatu zan, zelan jokatu zan eta zer gertatu zan.

Ba daukagu urte berean egindako agerpen jator, zeatz, egitsu eta borondaterik onenagaz idatzia. Bear ba da ordukoetan baiño geroagokoetan geiago pentsatuta.

Blas Iturriza, bere idazlea, Santa Klara deiturako Arrantzale Kofradiko bigarren kontularia zan. Barru-barrutik ekian dana: aurreko axutak, barruko pentsakerak, gertaeretako

kezkak, erramularien eskutuko denporak, jendearen konfiantza eta jokorako itsutasuna...

Bera baiño obeagorik ez orduko kronika egiteko. Guk berea euskeratuko dogu.

Ondarroako Kofradian 1890 aurtengo urte onetan gertatutako bigarren gertaera.

Ara emen Santa Bibiana egunez, 1890" ko Abenduaren bigarrenean kai onetako Kofradiko erramularien artean eta Donostia koen artean jokaturako estropada.

Ondarroa 'k galdu egin eban estropada, bai eta galtze ugari euki be, ez bakarrik arrantza inguruko jende artean, bai eta bertan, bai eta bertan eukitako gastu andi eta trabesetan jokaturako dirutzaren galtzeagaitik; era berean leortarren artean, Kofradi onetako erramularien alde asko jokatu ebelako, gizonen gertaera eta ikasketetan baiño geiago euren idarrean sinistu ebelako.

Galtze a bete-betean jazan eban Kofradi onek, eta beste bein orrelako zerbait gertatu ezkerro be, Kofradiko bigarren kontutari onek orduko zertzelada eta gorabera batzuk idatzita itxi nai izan ditu, gaur bizi diranak eta urrengo baten bizi leikezanak, gertatua zeatz jakin dagien, eta indarrean bakarrik sinistu barik, estropadara joatekotan beste neurri batzuk artu dagiezan ikasketari buruz, tresna eta erramu ez-bardiñak probatu eta abar, oraingoan lez zirikaldian ain itsu jausi ez daitezkan, kontuan ondoeukiz Pasaia gazjokatu zaneke baldintzak (kondisiñoiak) eta ez geroago aitatuko dogun estropada onetarako 1890' ko Azilla 'ren 12' an Donostiko urian artu ziranak.

1888' ko Azillaren 25' an, au da, Santa Katalina egunean Ondarroa eta Pasai San Pedro artean jokatu zan estropadan Donostiarrak eta eurekin batean beste gipuzkoar askok galera andiak euki zituen Ondarroak irabazi ebalako estropada.

Orduntxe esaten zan gipuzkoarrak ez zirala geldituko erabagien bat artu barik, eta errebantxa eskatzen aleginduko zirala galtze a zuzenduteko. Orrez gaiñera beste ainbat gauza esaten ziran, orain egi biurtuta ikusi doguzanak.

Esaten danetik gipuzkoarrak orduantxe asi ziran euren gertaera eta ikasketak egiten, Kofradi onetakoei irakaspide garratza emoteko asmotan. Eta erramuketarako era barriak sartzen asiak ziranez, bai eta gizonak ortako eragiña gero ta obeto jazateko erak, pala zabalagodun erramuak erabiliz, erabagi eben urtero Irailla ren 8"an estropada bat egitea, egun orretan ospatuten dalako uri aretan Andra Mari eguna.

Orretarako aurrez iragarri zituen estropada oneik eta euren sariak eta gipuzkoar erriak gertuten asi ziran.

Eldu zan 1899' ko Frailla ren zortzigarren eguna. Estropadetara ainbat errietako treñeruak agertu ziran, bai Donostia berbertakoak be. Lenengo saria Donostiarrak irabazi eban.

Andik egunetara, donostiarrak Pasai donibanekeoin eztabaidaren bat euki eben. Oneik donostiarrak estropada bat jokatzera axutu zituen, baiña treñeruak aldatuta, au da, donostiarrak pasaitarrena erabili eta pasaitarrak estropada irabazi eben donostiarrenagaz. Donostiarrak desafio ori ontzat artu eben. Estropada jokatu zan eta donostiarrak irabazi.

Ori ikusita, 1890 urteko estropadetarako gertuten asi ziran, aurrez treñeru arin eta meiak egiñaz, eta esaten zan 1888 urtean lez Bilbo'n estropadak egiten ba ziran, an izango zala Donosti.

1890 uda eldu zan. Zabalduta ebillan gipuzkoarrak gertu egozala Kofradi onetakoei

desafioa bialtzeko. Baiña ondarrutarrak ez eben uste orrelakorik eta zer-esanei ez eutsen jaramonik egiten.

AurreZ jakin erazi zan, aurtengo estropada Frailla ´ren 7'an ospatuko zala, igandea gerfaten zalako, eta biaramonean ospatuko ebela Ama Birgiñaren jaia.

Errege eta printzipeak Donosti 'n egozan, udaldiko bañoak artzera etorrita eta ia gipuzkoar portu guztiak izena emon eben estropada orretarako, sari onak lortzeko asmotan.

Ondarrutarrak, iñori jaramonik egin barik, atunetara joan ziran Bagillan, (Ekainillean) eta Dagonillean (Abustuan) etxera biurtu ziran.

Eldu ordukoxe asi ziran Donostiko estropaden autuak. Eta Bilbon egongo ete ziran be zabaldu zan.

Aidean ebiltzan zurru-murruakjakinda, Kofradia batzarrean batu eta erabagi zan Bilbon estropadarik egiten ba zan, ara joatea, baiña orain egozan treiñeruak ez ziralako bear ciña, eta jakiñik beste pixu gitxiagoko eta ariñago batzuk beste portuetan erabillezala, Ondarroan bertan Jose Maria Frueta'ren lantegian eta Genaro Osa ren lantegian eginda egozan bi erostea erabagi zan eta eurekin Bilbora joatea.

Erriko jaiak igaro ondoren, txalopa guztiak atunetara joan ziran, Dagonillaren 20 eta 21 'n urtenaz, eta etxera ez ziran biurtu Frailla ´ren sorfzigarren-erarfe.

Egun onetan estropadak egon ziran Donostia'n. Gipuzkoar treiñeruak aurkezkeztu ziran eta "Cariño" izendun donostiar treiñerua geratu zan irabazle.

Gipuzkoarrak ikusi ebenean euren artean irugarren garaitza lortzen ebela, egunkarietan egin zituen kroniketan ipini eben, eskutuko zerbait adierazi nairik, irabazteko egun orretan ondarrutarrak osasun ona eukela. Egia esateko, alaxe zan, ondarrutarrak atun denporako irabaziagaz etxeratuta egozalako, eta denporaldiko irabazi lez amasei milla agerleko baiña geiago lortuta.

Donostiko estropadetatik laster, zurrumurrua egoan Donostiarrak ondarrutarrei axuka egingo eutsela, baiña ez zan sinistuten. Fkusirik urte onetan ez egoala estropadarik Bilbon, Kofradi onetako arrantzaleak kezka barik irugarren atsuntsua egitera joan ziran.

Atunetan ebiltzala, Donostiko egunkarijak Kofradi onetakoak zirikutzen asi ziran, eta egunkariak ekarrena ikusita, Bilbokoak be barri ori aizetzen asi ziran, eta orrela, "El Noticiero Bilbaino" k Frailla ren 11 'an idazlan au agertu eban:

## **"Ondarroa" ko mariñelak.**

Egun oneitan, eta Donosti "ko estropadak ospatu diran artean, uri aretako egunkariak eta onetakoak, Ondarroa ko mariñelen artean dagozan eztabaiden barri emon dabe, esanez batzuk nai dabela eta besteak ez Donostia ko erramularieri desafio bat bialtzea, eta oneik, axuta (desafío) ori egingo ba litz, menperatu egingo litukela ondarrutarrak, eta orrela galdu egingo leukela "Kantauriko gorenenak" ezaugarri-dun bandera, Bilbao ko Nautico Alkarteak emon eutsena.

Edo guk erderaTik ez dogu ulertzen, edo ta orrek esan nal dau Ondarroa ko mariñelak ez zirala Donostia ko estropadetara joan gizon arteko ze-esanagaitik. Eta ori ez da egia.

Egunotan esaten ibili garean onetaz benetan be zer dagon jakin nai izan dogu, eta guk jakitea lortu dogunetik esan giñei Ondarroa'ko arrantzale adoretuak azken estropada

bietara joan ez ba dira, ez dala beste ezegaitik ortara joaterik pentsatu ez ebelako baiño, eta ez iñoren arrokeriakatik bildurtuta egozalako.

Fkusi ontaz gure ordezkarri batek diñoskuna: Ondarroa ko arrantzaleak ez dauke une onetan estropadan gomutarik. Lan asko egiten diardue, diru asko irabazteko, eta dagan egoeratik ainbat lasterren urteteko. Eta zorionez egoera ori ez da iñoiz izan dan aiñako larria. Ain zuzen be Donostia 'n estropadak ospatu ziran egunean, erri onetako arrantzaleak amasei milla ogerlekoren banaketa egin eben. Dirutza ori azken atuntsuak iraun daben amabost-amasei egunetan irabazia da. Ez al da au obe, millaka ogerleko batzuk galtzeko arriskueta sartu eta Kantauriko gorenenean ezaugarria 'galtzeko arriskuan sartzea baiño?

Arrantzale oneik, ondo dakit, ez dauke garrantzi bako estropadetan sartu eta iru-lau milla pesetako sari batzuk billa ibiltzeko gogorik. Orreitarra joateko bear dan lez eta diru geiago bitarteko dala izan bear da, eta emendik lau bost urtetara, euren zor guztiak ordaindu dagiezenean, an egongo dira bear dan tokian euren izena aldeztuteko gertu.

Azken gerratea amaitu zanean, Arrantzalien Alkartek ogei ta amasei milla ogerleko zor eukasan, eta orain amabi millara beratuta dago zor ori, kontuan eukita zentsu lez artuta eukazan beste bi milla ogerleko be ordainduta daukazala. (Karta au luzeago da, bertan aitatzen dalako 1878 urte ezkeroztik Kofradia ordaintzen duan molla barriaren kontua be).

Donostiko erramulariak ikusi eben ondarrutarrak atunetan ebiltzala, baiña uste izan eben eldu zala euren desafioa bialtzeko egun egokia, eurak ondo gertutu egozalako eta 1888 urte ezkeroztik ondo eratuta, erramuetan mota guztietakoak eukezalako bai eta estropadarako bear ziran beste fresno guztietan, eta origaitik erabagi eben Kofradi onetako erramulariei desafioa bialtzea. Ala eldu zan orretarako denpora eta 1888 urtean galdu ebenean artu eben erabagia bete nai izan eben.

**Frailla ren 21 'an eldu zan Kofradiara desafioko karta ori. Ara zer esaten dan bertan:**

#### **Ondarroa ko Arrantzale Kofradiako lendakariari:**

Guíe jaun agurgarri: Karta au izenpetzen dogunok, uri onetako erramularien ordezkarriak gara eta Kantauri inguru onetan estropadak emoten daben ikuskisunaren maitaleak. Estropada orreik gauza bat baiño geiagaitik be goragarri dira, euretan euskal lurralde onetako semeen indar eta kemena erakusten dalako. Origaitik zuri idaztea pentsatu dogu, ala ba deritxazu, orko itxastarren artean jakin erazi dagizun bertakoeekin estropada bat egiteko daukagun gogoia, era onetan:

1. — Uri onetako itxastar edo arrantzaleak gertu dagoz Ondarroa "gaz estropada bat egitera azkenengoz Pasai San Pedro 'koekazjokatu gendun baldintza bardiñetan, au da, Getaria 'tik Donostia 'rako ibilleran.

2.—Ortan erabiliko diran treiñeruak arratzen erabilten diranak izango dira, eta al danik bardiñenak izango dira, bakoitzak besteari eskintzen dautsazan treiñeruak suertera atarata.

3.— Treiñeru orrein neurriak ezin izango dira 40 oin baiño gitx;agoko luzeran, ez 42 bi baiño geiagoko, eta zabaleTan 3 ontza eta treiñeru bakoitzean amairu erremulari eta patroia.

4.—Apostuanjokatzeko dirutzat 25.000 peseta ipiniko dira. Axuta au ontzat artzen ba dabe ondarrutarrak, bear dan ituna idatziko da,

esandakoak oiñarriztat artuz eta gero argitzea komeniko diran baldintzak geituz.

Donostia n 1890 ko Franla ren 20 an.

Batzordearen orde z izenpetuta: Francisco Frastorza.

Karteruak idazki ori itxi ebanean, laster zabaldu zan erri guztian zear, eta jendea kezkatu agertu zan zeaztasunak jakin nairik.

Bereala batu ziran Ordezkarriak, eta etorrana jakin ebanean, patroï batzuei deitu eutsen eta oneik ordu bi baiño len erabagi eben erantzun au emotea:

Frastorza tar Frantzisko jaunari.

Ondarroa n, 1890 ko Irailla'ren 21 'an.

Jaun agurgarri: Egun bat lenago zuk izenpetutako karta artu ondoren, bereala artu neban emengo batzarrekoï zure oiñarriak jakin erazi eta estropada baterako deiaren barri emotea.

Ezetan sartu baiño len jakin erazi nai dautsut emengo Kofradian sartuta gagozan bertako seme guztiok be, zuk agertzen eta erakusten doguzan sentimenak eukiten doguzala estropadei buruz, orrelako leiketak irabazleak lez galtzailleak be goratzen dituelako, azken baten erramularien trebetasun, jatortasun eta eragiña goratu eta zabaltzeko izaten diralako.

Eta sartu gaitezkan bete-bete kan goiean.

Lenengo eta bein nire ardurapekoak diñoe, estropadarik egitekotan, ez dabela onartuko zuek nai dozuen Getaria tik Donostia rako ibillerririk, eta bai Lekeitio tik Deba ra edo ta Debatik Lekeitio ra, bide ori luzatu edo ez erabagiteko itxita.

Bigarren: Esandako estropada ezin leikeela egin Santa Katalina egun aurretik, au da, Azilla ren 25 ean, atuntzu denpora onetan lenago jokatu ezkeru galera andia eukiko leukelako euren irabazietan.

Zure idazkia onela erantzuntzat emonda, nire agintarien izenean danon ezaupideko agurrak bialtzen dautsudaz. Kai onetako arrantzalien ordezkari lez, Jose Antonio Agirre, lendakarria.

Illaren 25 ean eginda lez, bigarren idazki bat artu zan, lengoari erantzuten. Bertan esaten eben, ikusi ondoren ondarrutarrak ez ebela onartzen eurak nai eben ibilbiderik, batak eta besteak esandakoak bertan bera lagaten zituela eta beste barri bat aukeratzea bearrezko zala. Orretarako Saturraren an asi eta itxas barrurantz bederatzi edo amar milletako bidea eskatzen eben, eta beste baldintza batzuk. (Ontaz "La Voz de Guipúzcoa" egunkaria ikusi, 2.013 zenbakiduna eta Urna ren 29'koa. An agertzen dira alde bien artean alkarri egindako idazki eta erantzunak, Urna ren 27 raño. Danetara amairu edo amalau dira).

Frailla'ren 29 an erantzun eban Kotradi onek, iengoan eusten eutsela agerruaz.

Fdazki au bidaiez eioan artean, Arrantzalien Kofradia batzarrean batu zan, eta gaia zeatz aztertu ondoren erabagi zan, biaramonetik asita Kofradiak erosita eukazan treiñeru bietan, erramulari talde egokiak ipintzeko. (Dakigun lez aurrez erosita egozan treiñeru bi, bata Jose Maria Frueta"ri eta beste Genaro Osari, bakoitzagaitik 2.800 errial ordainduta). Eta nai izan ezkeru, tartetik ta rera len erabilten ziran taldeak barriztaten joateko. Gaiñera patroï bakoitzak onentzat uste eban erramulariztat aukeratu eiekan bere txaluoko gizonen bat, ortarako treiñeru bientzako zerrenda bat egiñagaz, bakoitzean orde zko bi geituz, eta patroitzat Luis Urresti eta Simon Garramiola erabiliaz. Gaiñera


ordezkarien gain geratzen zan erremulari bakoitzaren irabazia eta bearrezko beste baldintzak zeaztutea, biaramonetik orretan astea erabagiaz.

Batzarra amaitu baino len egin zan erramularien zerrenda, ordezkariak be sartuta. Bear ziranak aukeratu ondoren, Batzordeak erabagi eban bakoitzaren alogera, eguneko bost erria) izango zirala, eta arrantzaten eben arraiña eurentzat, Kofradiko ordainbearrak beratuta. Gaiñera eguna itxasoan igaroteko aiña arda, ogi eta okela emongo jakoen, egun osoa itxasoan gertaeretan igaroteko eran. Aukeratuak pozik geratu ziran baldintza orreikaz. Bereala treiñeruak tresnaz egokitu ziran eta arrain-txikitan asi ziran, Luis Urresti eta Simeon Garramiola patroitzat eraonez, eta arrantzagaz batean estropadarako gertaerak egiteko.

Asi eta egun gitxitara aldatu zituen treiñeru barriak eta zarrak artu ikasketaK egiteko, eta laster egon zan erramularien aldaketa be, batzuk ez ebelako orretan jardun nai eta besteak trebetasunik ez ebelako agertzen. Egunak aurrera eta jendea gero ta adoresuago, estropada egiten ba zan, irabaztea ziurra zalakoan.

Bitartean batetik besterako kartak geldi barik, Zarautz "en batzar bat egitea erabagi arte. Ondarroa k bere ordezkariatzat, Kofradiako ordezkarien gain, beste oneik izentatu zitun: Eduardo Nafarrete, alkatea; Silvestre Arrate, osagillea; Pedro Jose Zelaia, Sebero Markuerkiaga eta Tiburzio Urrusolo.

**Kartaen egille ta idazle lez Silvestre Arrate.**



Zarautz 'eko batzarra asiagaz batera, gipuzkoarrak esan eben ez ebela onartzen Ondarroa-Pasai estropadako baldintzarik eta norabide eta ezaugarrien lekutze eta beste egoki ez ziran baldintzat agertu zituen. Zarautz "era joan zan Batzordeak (Arrate, Markuerkiaga, Urrusolo, J. A. Agirre kontularia eta beste batzorde bik) ez euken orretarako baimenik, eta Zarautz'eko batzarra erabagi barik amaitu zan.

**Orrek ezezpena lakoa sortu eban arrantzalienen artean.**

Biaramonean, Urda ren i 3' an, batu zan Batzordea Kofradian eta erabagi eban nora-bideari buruz ezin zala onartu Zarautz 'en eskatutakorik, ez eta baliza bikotzak ipinterik



be, bearrezko ez ziralako, baiña ondarrutar ordezkariak alkar-artu naian egin eben eska-riari eutsiten eutsela, au da, amaiera lurretik 800 metrotara egon egiala, 500 'era orde, eta estropadako bitartea asierako lez 45 metrotakoa bear zala. Eta treiñeruen luzeren ados ba etozan be, komeni zala zabalerari buruz bardin etortea, eta orretarako sei oin eta amar ontzaren edo ta zazpi oin eta ontza biren bitartekoa izan bear zala, eta onen eran-tzuna eskatzen zala.

Urteagaz batera Donostia ko egunkariak eurak nai lez agertzen ziran tratuko gorabe-rak eta ondarrutarrak bildurtu eta atzeratu egin zirala eta antzerako destaiñak agertzen asi ziran.

Baiña Gipuzkoa eta Bizkai 'ko portuetan gero ta gar geiago igarten zan estropada oneri buruz.

Flaren 13 'ko idazkiari 16 an erantzun eutsen gipuzkoarrak eta euren baldintzak bost puntutan zeaztuten zituen:

1.— Urteera, Lekeitio 'tik itxas barrurako 500 metrotako aldea bitarteko zala.

2.— Norabidea, Getaria'ko San Anton mendi aldera.

3.— Fbilbidea, 10 milla.

4.—Urteerako baliza bi, batandik bestera 45 metro bitartean aukiaz, eta elduerako beste bi, treiñeru bakoitzak bere balizarako zuzenbidean ibili bearrez.

5.—Treiñeruei buruz, len esandakoa.

Eta karta onela amaitzen zan: erantzun zeatza itxaroten dogu, au da, bai edo ez, Kris-tok erakusten dauan lez eta erriak epaitu dagiala.

Ondarrutarrak zeatz meatz erantzun eutsen idazki oneri, bere puntu guztietan. Treiñe-ruen zabalerari dagokiona eskabide barri lez uste izan dozue. Oker zagoze. Neurri orreik izan ziran Pasai 'agaz jokatzeko kontuan euki ziranak, eta aitatu ba doguz, gero zer esa-nik ez egotearren izan da, baiña ez daukagu setakeririk agertuta geratu dedin, onetan, beste gauzetan lez, ibilbidekoan ezik, 1888 'n Pasaiagazko estropadadan oiñarrizko izan ziranei eustea besterik ez dogu esaten. Miñez erantzun bear dautsuegu ezin geinke-zala zuen baldintzatonartu. Onegazgurezeregiña bete dogula uste dogu, eta kezka barik geratzen gana erriaren erabagia itxaroten.

Oneri gipuzkoarrak erantzuten dautse jakitun geratzen dirala ondarrutarrak ez dogula aintzat artzen euren axutik (desafiorik) eta eurak be kezka barik geratzen dirala erriaren erabagiaren zain.

Estropada auzia gero ta beroago igarten zan eta ez alde bateko ta ez bestekoak ezin eben geiago jazan, baiña ondarrutarrak irabaziko eben ziurtasunez egozalako, euren-tzako eziña zan geiago itxarotea.

Urria 'ren 28 an egiña lez, ondarrutarrak karta bat bialdu eben, estropada Azilla ren 23 an egiteari baietza emoten, ibilbidea amar millatan zeaztuta, Lekeitio aurrean leorre-tik 500 metrotara asita, San Anton mendirako zuzenbidean, donostiarrak 14 lagun eta ondarrutarrak be beste ainbeste, eta karta onela amaitzen zan: Geiago ez luzatzeko, mesedez eskatuten dogu erantzunean garbi zeaztuteko estropadako baldintza eta gora-berak, barriro Zarautz 'en batzean uste bagako alderantzirik egon ez daiten.

Ondarrutarren baietza ikusita, "El Porvenir Vascongado" bilbotar egunkariak lan bat agertu eban esaten gipuzkoarrak, esanak aldatuz, ondarrutarrak bildurtuta estropada bastertu naia erakusten ebela, baiña egia au zala, Ondarrutarrak sekula ez ebela atzera egiten iñoren axutagaitik.

Beste karta batzuk bitarteko egon ondoren, beste batzar bat Zarautzien egitea erabagi zan Azilla ren 12 'an.

Jendea larri egoan tratua sarratzeko.

Pedro Maria Madariaga k 40.000 errial aurreratatu eutsazan Kofradiari estropadako gaiak aurrera eroateko. Bartolomé Aulestiarre k 20.000 errial aurreratatu eutsazan, Zarautz 'en ezaugarri lez ipinteko, baldintza onegaz: Kofradiak irabazten ba eban, diru ori jasoko ebalaz ezelako geigarri barik.


Ordez galtzen ba zan, Kofradiari aurreratuta lez geratuko zala %4'an.

Baldintza bardiñetan Andres Campos 'ek, Zelaya y Ciaren izenean, berrogei milla errial aurreratatu zitun, eta Zelaia ren alarguna zan Monika Lekue andreak ogei milla, eta geiagok be al ebena aurreratatu eben baldintza bardiñetan.

Onetan Azilla 'ren 12 garrena eldu zan. Larri egoan jendea, bai arrantzale ta bai leortarren artean, Zarautz 'eko azken barrio jakin arte.

Alako baten telegrama bat eldu zan, esaten estropadako jokua sarratuta geratu zala.

Illuntzean eldu zan batzordea eta arek ekarri eban baldintzen kopia. (Esan bearreko da ba daukela ze pensatu pixkat, etorri leiken beste gerteera baterako zer esaten dan eta zer billatzen dan ondo zeaztuten.)



Geldi geldu txikotak lotzen.

Itxastareta arrantzale faldea batzar aretoan batu zan, etagai batzuk erabagi ondoren, Eduardo Nafarrete alkatea jarri zan maiburu. Onek esan eban estropadarako tratua eginda egoan lez, komeniko zala Kofradiak treñneruko patroï bat izentatzea, bear ziran erabagiak artu al izateko. Berari izen bi emoten eutsezala patroï lez ebiltzanak, Luis Urresti eta Ambrosio Bedialauneta, eta Kofradiari azkatasun osoa emoten eutsala auke ratzea berak egiteko.

Bakoitzak bere eritziak agertu eta eztabaidatu ondoren, bototara atara zan zein auke ratu eta Luis Urresti 'k zortzi lortu zitun bere alde eta Ambrosio Bedialau neta k ogei ta amabost. Orrela au geratu zan Donostia ko erramularien aurka jokatu bear zan estropadako patroï izateko.

Egun bat edo besteko gauza izan zan erramulariak aukeratzea, eta oneiri, janaldieta rako Bruno Aremayo ren etxea izendatu eutsen, ogei eta ardaurreziñoekaz batera. Auke ratuak onek izan ziran:

Patroïa: Ambrosio Bedialauneta.

Erramulariak: Pablo Atxa, Juan Zuazaga, Salvador Agirre, Félix Urresti, Jose Osa, Doro-

feo Badiola, Migel Aranzamendi, Adrian Bedialauneta, Periko Uribe, Rufino Badiola, Jose Olarreaga, Bruno Aremayo, Domingo Guenaga.

Ordezkoetzako: Fernando Badiola, Mariano Bedialauneta eta Pedro Larrañaga.

Oarra: Estropada jokatzean, Domingo Guenaga'ren ordez, Pedro Larrañaga sartu zan.

Len esan dan lez, Zarautz'etik batzordea etorri zanean, poza eta alaitusuna besterik ez zan zabaldu errian, gizonik argienak be esaten ebelako tratua ondo egiña egoala.

Egun batzuk lenago jendea, bai erritarrak eta bai arrantzaleak, euken dirutxoagaz Donostia'ra joaten asia zan apostuak egitera. Baiña uste izan zan egokiago zala ordez-kari bat Donostia'n ipintea, al zan dirua batu eta enriaren izenean jokatzeko. Enriaren eskabidez Jose Antonio Agirreoa, Fturranan deiturakoa, tratularia, izendatu zan orretarako eta beragaz batera bere adiskide zan Jose Martinez. Baldintza bat ipini jakon: Frabazten ba zan, jokatzan zanaren %2 berari emoteko. Eta urrengo goiza izendatu zan, goizeko seiretan asi eta kotxeak urtetan eban ordurarte, au da, zazpi ta erdiak arte, dirua eukanak Blas Iturriza kontulariari eroateko.

Batzorde orrek, ordu ta erdian, sail bitan, 108.760 errial batu zitun, eta ezin izan eban geiago batu kotxerako denporarik ez egoalako, baiña kotxeak eroan zitun dirutza geiago.

Fturranan Donostiaira eldu zan, eta andik egun bira deitu eban esanez ezin ebalu dirurik jokatu, gipuzkoarrak bildurti egozalako, eta eroan zan dirutza ikusita, goitik botaten astea nai ebela jokatzan asteko. Agirreoa jaunak orretarako baimenik ez eukalako, diru guztia atzera ekarri eban, ezer jokatu barik.

Atsekabez artu zan errian ordezkariek orrela biurtu bearra. Ftxuras gipuzkoarrak atzerapen faltsu bat erabagi eben diru-jokoan estropaga bezpera arte, eta egun orretan itsu-itsurik jokatu eben al eben guztia, ziar jakin barik zederatan jokatzan eben. Azken baten jendea bakoitza bere aldetik asi zan jokatzan, batzuk goitik, besteak barrean eta alaxe egin zan estropada egun berbertan be.

Gipuzkoarrak, euri jagoken lez treiñeru bi bardintsuak billatzea era aukeratzea (daki-gunez ori euren eskabidez alaxe geratu ziran) denpora euki eben oiñarrietan esaten zan egunean Ondarroa'n biak agertu baiño len bietan ikasketak egiteko eta treiñetuetan utsunak euren egoki etorkezan lez betetako. Ain zuzen be denporaldi orretan egun zora-garriak egin zitun amar-amaika egunetan eta Ondarroa ko Kofradian itxi bear zituen egunerako egunak illuntzen asi ziran eta ekaitz egunak etorriko zirala ziurtatzen zán. Alaxe gertatu be.

Donostiarrak illaren 23 an ekarri zituen treiñeru biak. Barrara eldu ziranean, batzordekoak urten eutsen laguntzera. Domeka zan eta jende ugari batu zan biak ikusten. Ontzi egilleak be ikustatu zituen eta ondo egozala autortu eben.

Treiñeru bat Francisco Polvora ren jaubetasuneko zan. 40 oin eta 10 ontza eukazan luzeran eta 6 oin eta zortzi ontza zabalerab. Au karena zarragaz etorri zan.

Besteak 41 oin eukazan luzeran eta 7 eta ontza erdi zabaleran. Ondarrabia'ko Ezkerra zan bere jaubea eta egun bat edo bi aurrerago emondako karenagaz etorri zan.

Kantauri itxasel Len() kalera", mena eratako esan-mesanak ebiltzan. Estropaaako tratu sarratu aurretik Lekeitio'ko ia Kofradi osoa eta erria Ondarroa' ren aurka egozan. Bermeo ko kaia ardura berezi barik, baiña eritzia Ondarroa ren aurtako zan. Mutrikuin, nai ta itxastarrak 1888'n lez aurka jarri ez, baketsuago agertu zan, baiña al eben guztia Ondarroa' ren aurka egiten eben. Ezin geinke beste kaietako joerarik zeaztu, danetan be

bietarako eritzia ezagutzen zalako, baiña Gipuzkoan eta Bizkaian, garbi garbi Ondarroa -ren alde agertzen zan portu bakarra, Elantxobe izan zan, eta Bizkai 'ko uri nagusia, au da, Bilbao. Beste guztiak Ondarroa ko Kofradiari maku rtu eragiteko zale agertzen ziran, eta benetan be euren guraria beteta ikustea lo rtu eben.

Treñeruak eldu ziranaz batera Kofradiako Batzordeak erabagi eban ainbat lasterren asi bear zala euretan probak egiten, eta zein txalopetako gizonak ori egin, sortetara atara eben, jakin eraziz probetara joaten zan erramulari bakoitzari proba bakoitzeko amar errial ordainduko eutsezala eta ardaaa, amaitzean. Eginbear ori Arantzamendi, Korta, San Pedro eta Jose Lekue 'ren txalopetako neguko gizonai gerta jakoen. Bai eta erabagi eben balizetara joan bear eban gizon bakoitzari bost errial ordaintzea.

Estropadako baldintzetan esaten zan lez, Ondarroa 'k Lekeition agertu bear zitun treñeru biak illaren 28 'an, eta jendea itzal geratu zan eguraldiak eukan itxura txarragaz, ezelako probarik egin barik treñeruak eroan bearra egoelako. Gogoratu aize gogor, euri eta edur egunak gertatu zirala eta ezin izan zala ezelako probarik egin Kofradikoak nai eben lez. Alaz eta denporarik ez egoalako, aize, euri eta edurretan egin ziran, zela-ala, bi edo iru ekitaldi.

Kofradiak Hilarion Urrosolo jzentatu eban treñeruak probaetan egiten zituen denporak artzeko eta Eusebio Beitia beragaz batean. Biak a rtzen eben denpora eta bata besteagan-dik batzen eben alderantzia azpimarratu.

Proba bi edo iru egin ondoren, jakin erazi eben, eurentzako Ezkerra 'ren treñerua ari-ñago zafa Polvora 'rena baiño, edozetan kentzen eutsalako aldiren bat. Jendeak, ordez, uste eban bestea ohea zata, edo begia obeto beteten eutsan, nai eta karena zarra euki. Azken baten ze erabagi artu ez ekiela zalantzan geratu ziran, eta treñeru barria aukera- tzea erabagi eben, emengoak eukan erramutarako eragaz egokiago etorralako.

Orain pentsatu daigun: zeinik ez eban dirurik jokatu batetik treñerua aukeratzea norberegan euki eta probaetan batetik bestera aldia egoala jakinda?

Illaren 28'an, baldintzetan erabagia egoan lez, treñeru biak Lekeitiora eroan ziran eta an Andres Mendieta ren astilleroan gorde,jakiña zalako besta anaia, Anton, ondarru- tarren aurkako zala eta gipuzkoarren aldako, bera izan zalako gipuzkoarrei argitasun asko emon eutsezana ondarrutarren aurka al ebenik geien egiteko.

Bitarte an Kofradiko Batzordeak bere estropadalariak eta erremuak eta estropadarako bear ziran beste tresnak gertu zitun. Gipuzkoarrakaterakoi eta bildurti igarten ziran egun oneitan. Iru motatako erremuak eukezala esaten zan, irurak pala zabalekuak. Batzuk kalma zuritan jokatzea gertaten ba zan, luzeak eta pala zabalak; atzekaldetik aizea ger- taten ba zan, beste batzuk eta oraindik be irugarrenak aizearen aurka ekin bear ba zan. Olako esanei inok ez eutsan jaramonik egiten, eta egia zan iru mota eukezala danak pala zabaldunak. Ordez ondarrutarrak beti erabilten zituen mota bakarra eukan eta oraingotan gaiñera 1888 urtean Pasaiazagaz egin zan estropadan erabilitakoak baiño labur eta pala gitxiagokuak.

Lau-bost egunetan, illaren 30 arte, eta gero illaren lenenguan, benetan txarrak ger- tatu ziran, edur eta otz andiekaz.

Filaren 29 eta 30 tan gipuzkoar kotxe asko igaro ziran Lekeitio aldera, erri onek edoze- tan laguntzen eutselako, eta aurrez egozan Lekeitio 'n donostiar erremulariak. Bilbota- rrak, batez be Nautiko Alkartekuak, egualdiari jaramon barik, Lekeitio 'n batzen eloazan.

Batzordeak patroi eta erremularien azken aukera eta izendatzea egin eban. Bai Kofra- dikoak, eta estropadetan aituak diran bestelakoak pozik egozan talde onegaz.

Illaren 29 an barrero karenatu ziran treiñeruak, Ainbat apostu egiten ziran, baiña ez egoan inñor Ondarroan aurka egingo ebanik.

Lekeitio ko Kofradiak Ondarrutarrei desafioa bialtzea erabagiten dau. Bilbotar egun-karietara bialdu eben ortazko idazkia, baiña ez eben argitaratu eta "La Voz de Guipúzcoa" ' n agertu zan.

Lekeitio 'tik beste barik gizon bat bialdu eben Ondarroa ' ra desafio orregaz, Donostia-reekaz jokatzeko egindako baldintza bardiñetan jokatzekotan. Orain 37 urte euren gura-soak garbitu barik laga eben zorra ordaindu nai ebela esaten eben.

Ori ikusita Kofradian batu ziran arrantzale zarrak, dirala 37 urte lekeitiarrei irabazi eutsenak, eta beste patroï batzuekaz batean au erabagi eben: Lekeitiarrei erantzutea gertu egozala estropada bat jokatzera, baiña treiñeru andiagoekaz, neguan arrantzan erabilten ziran erremulariekin, eta beste bat blarko estropada jokatu ko dan antzeko treiñeruekaz, estropada bakoitzeko bost milla ogerleko jokatu, Urtarrila edo Otsail lea n jokatzeko, eta ontzat artzen ba eben illaren 30'n estropada asi baiño len ezaugarria ipinteko.

Batzorde bat aukeratu zan, Nafarrate alkatea, Arriola ontzigiña, Blas Iturriza kontulari agaz. Lekeition Manuel Garabilla k eukan ostatuan batu ziran, Okamika eta Erkiaga Kofradiako kontulariekin, eta eurekin batean don Hilarlo "Mutur" eta Karrera eta Renteria jaunak. Estropada bietako ezaugarria ordaintzera joan zirala esan eutsen.

Lekeitarrak, eztabaida baten ondoren, erantzun eben eurak ez egozala gertu estropada biak jokatzera, bat bakarra baiño, treiñeruekaz. Ondarrutarrek testigutzat batzuk artuta, euren agertu eta aldendu ziran.

Illaren 30 an goizetik agertu ziran ibilbidea aztertu bear eben ontziak, balizak ipiniaz, eta goizeko zortzirak ingurura aukeratu eben ondarrutarrek eurentzako treiñerua. Eguraldi otza eta aize zazkarra itxasoan. Ondarrutar erremulariak Lekeitio ' ra eldu eta jokatzeko itxurarik ez egoan lez, Nabarro ' ren ostatura joan ziran. Leorreratzen asi ordukoxe, Lekeitio guztia ondarrutarren aurka txistuka asi zan, kanpora eta deadar itxusiak egiñaz.

Une onetan Bilboko Club Nauticokuak be bertan egozala, oneri be lajdoka ekin eutsen. Eguerdia igaro ondoren erabagi zan estropadarik ezin zala egun aretan jokatu, eta ondarrutarrek barrero euren txalopara joan ziran etxerako asmotan. Baiña molla inguruan egozan arrantzaliak, txistuka eta deadar garratzak eta gogorrek egiten eutsezan.

Club Nautico"ko asko, ori ikusita, Ondarroa rako bidea artu eben, arrantzaleen arteko ainbeste asarre ikusita. Baporak Ondarruko bidea artu eban, biaramonerarte.

Era bardiñean urten ziran illaren 1 'an erremulariak eta gañerakoak Lekeitio rako. Bilboko baporak atoian eroan zituen ondarrutar txalopak. Erremulareitako inñor ez zan baporetik urten, patroia ezik. Fkusirik eguraldi txarrak jarraitzen ebala eta ezin zala estropadarik egin, alde bien artean erabagi eben illaren bigarreanean jokatu ezin ba zan, une egokia zala erabagiten eben egunean jokatu ko ebela. Eurentzat atzerapen oneik gastu ugari leporatzen eutsezan. Bigarrenez euren tokietara biurtu ziran.

Illaren bigarreana eldu zan, Bibiana deunaren eguna. Eguna bigun eta baretsuago agertu zan. Fru bidar aztertu eben giroa eta azken baten eguerdiko amabietan jokatzera erabagi eben,

Genteak, batez be itxastarrak, goizetik esaten eben egun aretan jokatu ko zala, edozer gertatuta be.

Jende asko igo zan Santa Clara ra eta inguruko bidetara, eta benetan kezkatu igarten ziran, ondorena ikusiarte. Eguerdia aldera igarri zan txalopak gertuten ari zirala, eta gipuzkoarren jurada' eroan eban bapor-ontzia, barruko aFdetik jarri zala. Orregaz uste izan

zan sortea gipuzkoarren alde gertatu zala eta oneik barrukaldetik jokatzea pentsatu ebela eta ondarrutarrak kanpo aldetik. Alaxe gertatu zan. Kofradiko arrantzalerik geienak, euren txalupetan toki egokietan lekutu ziran, eta beste asko mendietara igo edo ta ondo ikusiko zala uste zan tokietara.

Ordubiak inguruan igarri zan trejñeru biak euren tokietan egozala eta laster entzuten pusillaren tiro bat lakoa; origaitik tarteko batek esan eban, asi dira estropadan.

Andik bost minututara igarri zan barru-aFdetik etozanak aurrerago etozala, au da, gipuzkoarrak.


A zelako une larriak arek! Batzuk gauza bat esaten eban, besteak bestera, eta orrela. Bidetako ikusleak laster asi ziran negarrez etxeratzen, samin eta penaz beteta. Estropadetan aitua ziranak esaten eban gipuzkoarrak astiro bogaten etozala, eta txalupea patrioiak txori baten antzera erabillala, ezelako indarkeri barik. Ostera ondarrutarrak indar ugari egiten igarten zirala, eta alaz eta be ezin aurreratuta ebiltzala. Laster ikusi zan uste zan ziurtasuna bertan bera galtzen zala.

Ezin leike agertu egun gogoragari onetan zelako atsekabe eta negarrak egon ziran errjan.

Fbillera egin zan, esan obenez larogei minutu eta segundo batzutara gipuzkoarrak amaituaz, eta ondarrutarrak minutu bat eta segunduak atzerako. Oneik ikusi ebenean ezin irabazi ebela, azken alegiñik egin barik amaifzea nai izan eban.

Orra ba, ikusi da estropada onetan zar eta gazte, aitu eta bestelako guztiak, oker egon dirala euren irizpidefan, eta euren itxaropenak bertan bera jausi dirala, estropada egun aurretik ondarrutarrei iñok aurretik artu ez ba eutsen be, oraingoan ikusi dalako ondarrutarrak ezin izan dabela ezetara be gipuzkoarrei aurrerik artu, eta ez dakigu zer gertatu dan orretarako, nai ta berbaleku asko ibili.

Ondarroa ko Kofradiak daukazan aiña arerio igarrita, bera beratu naian ainbestean ibiliz, ikusten zan egunen baten gure Kofradia euren sarepean jausiko zala, eta ba dirudi euren gurariak bete dituela, baina denpora obeagoak artuko doguzan itxaropenik ez da galdu bear.



Ondarroak garaitza galdu ba dau, ez da izan esku eta indar faltaz, konfiantza larregi, ikusmen gitxi eta erremu mota eta beste gauzetan irakatsirik euki ez daualako baiño.

Kofradiko Batzordea batuta adierazi eben ez daukela mutillakaitik txarrik esaterik. Erremulariak euren indar guztiak ipini ditue eta ondo, ezin eikien euren aldetik geiagorik egin, baiña akatsa ba dakigu nun egon dan. Orain ez daukagu besterik, denporaldi barri baterarte jazan eta estropada dala-ta egindako zorrak ordaintzen baiño.

Egun bi irutara zer esan ugari euken mariñel jenteak. Batzuk esaten eben akatsa erre-muen palaetan egon zala, besteak akatsa patroiaran izan zala, zirgan astean txalopea gelditzen ebalako eta erremularien indarrari aurreratzen lagaten ez eutsalako eta biraten ipini bear ebala txalopea eta ez ebala olakorik egin. Beste batzuk okerra treiñeruen probaetan egon zala, eta orrela zenbat buru ainbat aburu batzen ziran galtzearen errua billatu nairik.

**Galtze au mintsu izan zan Bilbotarrentzat eta batez be ango Club Nautikokoentzat.**

Andik laster Batzordea batu zan eta oneik Kofradi guztia eta erabagi oneik artu zituen: Amalau erremulariei eta patroiarri be bai, bakoitzari 75 peseta emotea, au da, irureun errial, eta Simon Garramiola ri, mutillei erakusten ibilteagaitik, 20 peseta.

Eta Kutxan dirurik ez egoalako, Batzordeari eta Kontulariei baimena emon eutsen diru ori billatzeko, erreditu ordaintzekotan, eta lendik batuta egoanagaz batera, 1891 'ko Urtarrillaren 2'an kit/apena egitea. Alantxe egin zan.

Len esan diran Madariaga, Zelaia eta Lagunak, Aulestiarte eta Lekue"ren gain, Maxima Balzola andreak zortzi milla errial emon zitun gastutarako, Pedro Usandizagak amar milla errial, Leon Markue 'k sei milla errial eta Fnes Arrizabalaga 'k lau milla errial.

Bilbo ko Club Nautiko'k arpidetza zabaldu eban eta 16.280 peseta batu ziran. Diru orreik Urtarrillean ekarri zituen. Fnguruko aldun zan Manuel Allende Salazar 'ek 500 peseta emon zitun, Markina ko Manuel Murga "k 200 eta Alfredo Perez 'ek 250.

Dirutza onetatik, Urtarrilla'ren 17 an egin zan lez, arrantzale bakoitzari 25 peseta banatutea erabagi zan, baiña ortik 70 errial andrentzako ziran eta beste 30 arda diru lez gizontentzat.

Bai eta erabagi zan arrantzale bakoitzan afargunari, mairako semerik edo suinik ez ba eukan 70 errial banatzen, eta bardin agure, gaixo eta gai ez ziranei eta bardin baita soldadutzan egozanei.

Banaketa orj egiterakoan, ikusi zan ez zala danentzako elduten, alargun eta soldadu asko agertu ziralako, eta ori ikusita, batzordeko zan Pascasio Arrizabalaga 'k agindu eban berak ordainduko ebala falta zana.

Oi danez, egun orretan jendea pozik ibili zan, orrelako banaketak arrantzaleen familie-tara eroaten daben atsegiñez.

1891 'ko Maiatzaren 11 an Kofradiko arduradunik geienak batu ziran batzarrean. Kontuak aztertu ziran eta ikusi zan Epaillaren 10 a rte Donostiarrekazko estropadak 31.360 errialeko zorra eragin ebala. Ez zan sartzen bilbotarrak ekartzen eben babor-ontziaren gasturik, nai eta erakundean egunak igaro, gastu guzti orreik Ramon dela Sota jaunak bere gain artu zitulako. Orrez gainera "El Porvenir Vascongado" egunkariak, estropada zafa egindako dei eta iragarki guztien kostutik % 50 beratu eban.

Eta oraingo eta urrengo Kofradi onetan izango diran argibide eta jakingarri-tzat, Kofra-diko bigarren kontulari dan Blas Iturriza "k zeaztasun guztiak liburu onetan batu nai izan ditu, bere lanetik euki izan ditun tartetan, geien be gertatuko ba litz gipuzkoarrekin edo

donostiarrekin beste bizkaitarren batzuk jokatu bearra, jakin dagien 1890 urteko Abenduaren 2' an, Bibiana Jaunaren egunean zelan galdu eben ondarrutarrak, eta alegin egin dagien 1888 urtean bizkaitar izena ondarrutarrak zaindu eben neurrian goratzen, kontuak eukiaz egon leikezan aurrerakuntza guztiak bai erakusten, bai erremu sailletan, egualdia zelako alako neurrikoak gertu eukiaz luzeran lez palaen zabaleran be. Eta bardin ondo aztertu dagiezala 1888 eta 1890 urteko estropadarako baldintzak, batez be eroapen eta soseguz joko sarratuaz, orrela, danak batean eta alkartuta garaitza lortu dagien, danok eta au idazten daben kontulariak be nai dauan lez, bere irakurleei eskatuz billatu leikezan ortofragi akatsak parkatzeko.

Ondarroa'n, 1891 'ko Dagonillaren (Abustuaren) 1 'an.  
Kofradi onetako Bigarren konfulari dan Blas Iturriza'k.

Iturriza 'ren kronika.

Ba dakigu Iturriza kontulariaren kronika au luzaro eskutuan gorde zala, ondarrutarrak entzun be ez ebelako nai estropada orretako konturik. Esan giñei ondarrurako ondamendi itzala gertatu zala ain ziur egozan estropada orren galtzea. Garratz, negarrez eta ondasunak urrituta, baiña iruntsi bear. Ainbestekoa izan zan erri osoaren berotasun eta garra joko orretarako.

Zelakoak izan ziran tratuko baldintzak, urrengo baten kontu obeagoa eukiteko Fturri-  
zaik esateko?

Fkusi daiguzan eurak, eta aztertu begiez gai oneitan sartuta ibiltzen diranak.

## **1890 URTEAN ONDARROA ETA DONOSTIA K JOKATUTAKO ESTROPADARAKO BALDINTZAK.**

Zarautz 'en batu ziran 1890' ko Azilla ren 12, ordezkarriak. Ondarroa 'tik Jose Antonio Agirre "Burgo" eta Donostia 'tik. J. Frantzisko Frastorza, biak erremularien ordezkarri lez, euren artean tratua eginda euken estropada jokatu al izateko baldintzak erabagiten.

Eta erabagi oneik artu zituen:

1. — Estropada treiñeru erabiliekin jokatuko da. Euren neurriak, une oneitan zeaztasunez ezin erakutsi al ba dira be, muga oneik barruan sartuko dira. Luzera, ez da 40 oin baiño beragokoa izango ez eta 42 baiño geiagoko be. Zabaleria 6 oin eta zazpi ontza eta zazpi oin bitartean.

2.—Treiñeruak erabilteko Ondarroako 13 erremulari eta patroia alde batetik izango dira eta bestetik Donostia ko 13 erremulari eta patroia.

3.—Fbillera bitartean patroiak ezin laga izango dautso beste iñori bere tokirik, alaz bertatik al dauan trebetasunaz jokatzea azke izango dau, orrégaz esan nairik, barruko amalau gizonak eurei derizkioen eran erramutan egin al izango dabela.

Treiñeru barruan ez da erabiliko jarrileku edo tosta faltsurik, ez eta treiñeruak oituraz





erabilten ez dauan beste tresnarik be. Alaz eta gura aiña erremu, estropu eta tolete eroan leikiez.

3.—Donostiarrek treñeru bardin antzeko bi aukeratuko dituez eta probatu ondoren, karentuta eroango dautsez Ondarroa ra ango erremulariei; oneik be probatu al izango dabez, barruan ezelako barrizatzerik egin barik, eta Lekeitio ' n agertu bearko dabez illaren 28 an, aurrez Donostiarrei jakin eraziz, Lekeitio n izte ori ikusi nai ba dabe.

Treñeruak leorrean egongo dira estropada asi baiño ordu bete lenagorarte, eta orduntxe aukeratuko dabe ondarrutarrak komeni jakoena. Oneik alderdi bietakuak barriro aztertu al izango dabez, eta barriro karentuko dira jllaren 29 an. Zeregin au Lekeitio ' ko ontzigille baten kontura itxiko da.

Orrez gaiñera, talde bakoitzak bere treñeruan deritxozan tolete barriak ipini al izango dauz estropada asi aurretik.

4.—Ibilbidearen luzeera amar milla izango da. Urteera Lekeitio ko Ugartetik jtxas barrura 500 metro neurtuaz jpiniko da. Ortik asi eta Getaria ' ko San Anton erako zuzenbidean neurtuko dira ibilbideko amar millak eta eurek beteten diranean mugatuko da elduera

5.—Urteerako baliza bi ipiniko dira eta elduerako beste bi. Urteeran treñeru bakoitza, bata besteagandik 45 metrotara gertuko da, eta eldueran neurri bardiña zainduko da.

6.—Erabagiko dan señaile bat bitarteko, estropadaren asiera emongo da, eta biak beartuta geldituko dira ibilbidean alkar jo edo orrelakorik ez egotera.

Orrelakorik gertatuko ba litz, juradukoen gain geratzen da erruduna nor izan dan erabagitea, eta erruduntzat joten danak galduko dau estropada.

Estropadaren asieran egongo diran juraduak, ibilbidea ontzi-bapordun baten jarraituko dabe, aldi egoki bat atzetik, eta eureri dagokie len esandako neurriak artzea.

7.—Alderdi bakoitzak juradu bi aukeratuko dauz, eta errialdi bietako Itxas-komandantei eskatuko jakoe irugarren bi izentatzeko. Orrela, urteeran iru juradu egongo dira,

bi erremularien aldekoan, eta irugarrena eurekin zer galdurik ez daukana, eta bardin eldueran be. Onein zeregiña gorago esanda geratu da.

8.— Estropada il onen 30' n jokatu da, eta eguraldi txarragaitik jokatu eziña gertatu ezker, biaramonerako itxiko litzake, eta emen be egin ezik, urrengo iganderako atzeratu litzake, eta orrelaxe aurrerantzean.

9.—Estropada asi baiño len, sortetara atarako da bakoitzari zein urteerako tuntux batiz dagokion. Juraduei dagokie egon leiken naste edo eskariak erabagitea, estropada bardintasunez egin al izateko eran.

10.—Baldintza oneik zapaltzen dituanak señaile lez Azpeti 'ko Roke Artidia eta Mimendia'ren eskuetan ipini diran 5.000 pesetako ezaugarria galdu egingo dau.

11. — Estropadarako izentatu dan eguna baiño lau egun lenago, talde bakoitzak berari dagokiozan 20.000 peseta Banco de España 'n ipini bearko dauz. Ondarrutarrak Bilbo 'n eta donostiarrak Donosti 'n.

12.— Treiñeruak gertu, eurak bearrezko baldintzetan ipini eta estropadako beste gastuak, alderdi bakoitzak erdiz-erdi ordainduko dauz. Or ez dira sartzen talde bakoitzak probetan egin leikezan gastuak, orreik bakoitzaren konturako izango diralako.

13. —'Ilaren 29 'un Lekeitioin batu bearko dira tolde bietako ordezkariak, ezaugarriak ipini eta ibilbidea neurtuteko.

14.—Elduerako juraduak amaierako ertz baten egongo dira.

15.—Ondarroa 'ko erremulariak aukeratzen daberen treiñeruko tostak estutu edo zabaldu al izango dabez, baiña tokiz aldatu barik.

16.— Estropada goizeko amarretan asiko da.

17.—Taldetatik kanpora aukeratutako juradukoen tokia sortera atarako da. Urteeran egotekoak, ibilbide guztia jarraitu bearko dau bestejuraduekin batean, euren baporean, seigarren atalean esaten dan lez.

18.— Elduerako juraduak illaren 30'an balizen egoera aztertuko dau, eta amaierako ertza mugatzen daberen txalopa baten egongo da, beste txalopa utsik gelditzen dala.

19.—Elduerako juradua eroateko erabiliko dan bapor-ontzia, amaierako balizen artean geldituko da, eta ibilbidearen luzapenetik 20 metro ingurura.

Fzenpetu dabena: J. Francisco Irastorza.— Jose A. Aguirre.— Eusebio Fuentes.— Eduardo Nafarrate.— Jose Leon Lasarte.— Severo Markue.

## **Jakingarri geiago.**

**Erri bakoitzak, juradutzarako, lau lagun aukeratu zitun.**

Donostiarrak aukeratuak oneik izan ziran: Francisco Muñoa, Juan Jose Larrea, Francisco Frastorza eta Eusebio Fuentes.

Ondarrutarrak beste oneik: Ramon de la Soto, Isidoro Lafite, Fausto Madariaga eta Eduardo Nafarrate.

Juraduak berak erakusten dau zenbatean sartu ziran estropada onetan errietako agintariak eta errialde bakoitzeko gizon andiak.

## **Odol beruak.**

Gu jaio baiño urte asko lenago jokatu zan estropada. Baiña gure denporetan be entzun eta jakin izan doguz oren ondorenak.

Gaur ez da iñor bizi Ondarroa 'n ezagutzeko adiñik euki ebanik. 97 urte dira jokatu zala...

Gu ez guaz esaten erri osoak itsu jokatu ebanik. Ori une aretan bizi eta estropada berberaren gertaera, autu-mautu eta erakundean, bertarako diru batzen eta ainbat zeregiñetan ibili zan Blas Iturriza, Kofradiako kontulariak argi eta garbi idatzita itxi eban, "ondorengoan eskarmenturako" edo geroagokoen jakingarritzat.

Guk beste zerbait esan eta azpimarratu giñei: Estropada odolak berotzeko jokoa izan dala gure itxasertzean.

Gaur estropada ugari jokatzen da, eta ugaritasun onek galtze eta irabazietara erre-zago oituten gaitu. Aukera geiago eukiten dogu joko lez barik, kirol lez artu eta ikusteko. Baiña len ez egoan orrelakorik.

Gaur era bat edo bestera gainduten diran gorabera asko, len arantza zorrotz izaten ziran, eta urteak iraun arantza orren ziztadak erakarten eban sornatzeak.

Gure denporetako estropadetan be igarri izan gendun estropada onek inguruko errien artean itxi eban urratsa.

Bere denporan zerbait gertatu, odolak bero-bero egozala bat-batekoan bat entzun eragin, edo zemaian bat itsukeriz esan edo jaurtiteak, edo tu eskuak zapartadaka erabiltea... ori beste kiroletan be igarri edo ikusten dogu.

Askok itanduten dabe: Sota 'k euki zitun ainbeste itxasontzien artean, zelan ez eban "Ondarroa" izenagaz bat bedeinkatu?

Gitxik pentsatuko dabe onetan estropada entzutetsu onek ze ikusirik euki eikeanik.

Fkusi dogu Sota 'k bere gain artzen zitula estropadarako juradutsa egin, erramularien joan etorrietan lagundu edo beste ainbat Graso erabilten zan bapor-ontziaren gastuak.

Fkusi dogu Sota k bere gain artzen zitula estropadarako juradutza egin, erramularien joan etorrietan lagundu edo beste ainbat arasotan erabilten zan bapor-ontziaren gastuak.

"Ondarroa" ez?

Ainbeste berotu ete ziran iñoiz odolak?

Orren erantzuna "El Bilbao del Novecientos" liburuan billatzen dogu.

Liburu orretan, Rafael Ossa Etxaburu bere egille ondarrutarrak kontaten dau, berari Ramon de la Sota eta Aburto 'k Biarritz'eko "Etchepherdia"n, 1968" ko Abenduaren 10 ean au agertu eutsala:

"Sota, ontziak egin-ala, eurentzako izen barrien billa ebillan. 1896 urtean "Lekeitio" ipini eutsan urte aretan itxasoratutako 2.272 toneladako bateri. Eta urrengoak "Ondarroa" izan bear eban. Alaxe zan bere guraria.

Baiña ez eutsen "Ondarroa" ipini. Eta esango dot zegaitik.

Negu gordiñean Ondarru eta Donosti artean euki eben estropada gogor eta gogoangarri baten, ondarrutarrak nire aitari eskatu eutsen euren ordezkari izateko estropadetako juraduan.

Estropada egin zan. Ondarroak galdu eban eta ondarrutarrak, errua emotean, nire aitari, treiñeruko patroiarri eta estropada a eratu ebenei emon eutsen... Eta Karril azkarra izan zala esaten joan ziranean, erramuketa egokiago bat asmatu besterik ez ebal, eta ondarrutarrak, guztiz sendo eta erramulari andi izanarren, modatik pasatako erramuketan jarraitzen ebela esan ebenean... Ez eutsen errazoirik entzun nai izan; arrika egin eutsen, berba txarrak esan eutsezan eta ariñeketa baten iges bearra euki eben, eta orduantxe nire aitak, beragaz euki eben bidegabeko destain origaitik, ez eutsan "Onda-

troa" izena ipini, Bizkai 'ko itxas-ertzeko toki eta inguruen izenei jarraituz urrengo itxasontziari egokion lez..."

(Ikusi Rafael Ossa Etxaburu ren "El Bilbao del Novecientos", Riqueza y Poder de la Villa. 1900-1923, bere 49 eta jarraiko orrialdetan. Biblioteca Vascongada Villar. Bilbao).

Ossa Etxaburu izparkari eta idazle zeatz eta zintzoa dala, akats bat billatzen dau tsagu, beragan arrigarri dana, idazki onetan.

Sota ren min eta naigabea andiago izan zala, diño, kontuan eukita illa batzuk lenago, Sota 'ren yate batek Santander eta Castro bitartean, Caballo deiturako jngurutik 12 minora ebillala, tirabira eginda egoan ondarrutar txalopandi bat begiztatu ebala goizaldean, eta alegin biziak egin zitula arrantzale arein laguntzen, eta itxasoa latz eta gaizto agertuarren, yateko laguntzailleen arrisku biziz, txalopandira urreratu eta bi ittoarren, beste sei bizirik jasotea lortu ebela.

Origaitik Ondarroa ko Arrantzalien Kofradian gertaera orretako kuadru bat ipinita egon zan, arrantzaleak Sota ri esker ona agertzen.

Guk esan bear dogu, idazleak naste bat euki dauala agerpen onetan, gertaera bat eta besteak ez ebelako lotuerarik euki katean.

Estropada 1890 urtean izan zan, eta ez 1899 n, erratuta agertzen dauan lez.

Beraz estropada baiño la bederatzi urte geroago izan zan "Josefita" txalopandiaren salbamentua, eta ez or iduritzen dan lez, lau illabete aurrerago.

Edozetara be, arrantzaleak Sota 'gaz, bere semeak kontoten daberen lez, estropadako urtean brastadako zerbait euki ba eben be, arrantzaleak izan ziran dana astu eta geroagoko laguntza ori Kofradi guztiaren izenean eskertu nai izan eutsenake

**Karril 'en ondorena eta ondarrutarren gizotasunezko biozkada.**

1890 urteko estropada aretan, ondarrutarrak Karril eta Ambrosio arteko estropada lez ezagutzen dabenean, diru asko jokatu eben emengoak. Bai eta tresna eta beste ogasunak be, nai eta batzuk eguneroko premiñetakoak izan.

Familiko ondasunak, lonekoak, ogibidekoak, doteak, etxearen jatorrikoak, bakoitzaren pitxiak... al ebena edo eukena, lenengo dirutan jokatu eta gero zeFa-ala dirutara biurtuta, edo ondamendi ondoren aldatu eta trukatuta.

Olakoen artean kontaten zan estropada ondoren Karril "en lagun andi batek erabilten eban "Avelina" izeneko txalopa. Ain zuzen be Francisco Iturriza, "Polvora" k jrabazi eutsan estropada aretan Ondarroa ko ontzitegi bateko jaubeari. Eta "Polvora" au zan estropada aretako treiñeru baten jaubea, ain zuzen be Karril berberak erabili eta estropoda irabazi eban treiñeruarena.

Estropada jokatu eta ia urte bira, 1892 'ko Urrilla ren 19' an, eguerdi inguruan, Karril botakar naian, lantzo naian arrantzan ebillan, Donosti 'tik bederatzi millo ingurutan. Barruan 13 lagun. Eurretatik zortzi beragaz estropada egiñak.

Bat batean, ezelako neurrik artzeko denporarik barik, aize bolada zoroa sortu zan.

Ordukoak esan eben une aretan Karril 'ek bere erremua eskutik itxita eukala eta era orretan txalopea bereala trabestu zala, eta aizearen bultzadak tirabira eragin eutsala, gizon guztiak uretara jaurtiz, eta gero oneik, al eben eran, txalopako killari eta al zanari eziñ eutsita alegintzen zirala, sinistu ezin alako indarraldi eta alegiñetan.

Era orretan iraun eben txalopa eta gizonak une luzean. Eta etsipena sartu, txalopa bat eurekaz konturatu barik jgaroten ikusi ebenean. Gizonak, bana-banaka, indarrak galtzen igarriagaz batera, geiago eutsi ezinda, ondoratzen asi ziran. Gelditzen ziranak, ori ikustean, eurak be makaltasunak errezago jo eta artu eta jausten ziran eta ur sakonetan itto.

Alako baten," Avelina" treiñeruak atunetatik etorrara, ikusi zitun eta berari esker lau gizon bizirik salbatu ziran.

Orrelako gertaeretan gizonak zelako arren eta eskintzak egin daikezan, sarri irakurri izan dogu ondamendien gertaeretako azken uneak nok kontatu egon izan danetan.

Oiturazko eben arrantzaleak orrelako gertaeretan euren Zaindari eta maitasuneko santuei promesak egitea eta emen be, lau gizon oneik Lezo Kurutzara joan ziran orotzik euren promesa beteten.

Orrelako ondamendi batek zotin eragiten dau beti arrantzialien artean, eta oraingotan, estropada entzutetsu a bitarteko, oraindik geiago, Karril berbera an itto zalako.

Oitura zan lez, jttotako arrantzaleen famili eta senideen aldeko eskeak egin ziran, eta errukizko dei ori inguru zabalera eldu zan.

Ondarrutarrak, eurak be orrelako egoera larrietan sarri getatuta egozalako, miseri gorrian biziarren, dana astuta, arrantzale anaien egoera aregaz gogoratuta bakarrik, euren laguntza eskiñi nai izan eutsen donostiarrej.

Ondamendia gertatu eta andik iru-lau egunetara, Kofradia Batzar berezian batu zan, eta ao batez, gizatasunak txikikerien gañetik atara eta lortzen daben biozkadaz, bosteun pesetako laguntza bialtzea erabagi eban.

Dirutza ori Ondarroan "doña Monika" lez ezagutzen zan andre olgunak eroan eutsan Donosti 'ko alkate zan Lizarriturryjaunari, Kofradiaren izenean. Eta biozkada ori aldi aretako egunkaririk andienak goratu eben, bai ingurukoak eta bai Madrid 'ekoakbe.

Orrela erakutsi nai izan eben ondarrutarrak estropada egunetako jokoa dala, urtetako urratsagaz, baiña giza anaitasuna bizi guztirako itxastarren jokoa.

Oarra: Ikusi liburu onetako bertso saillean estropada oneri buruzko bertsoak.

1890.—Ambrosio eta Karril 'en estropada.— Ambrosio Sagastume

1890.—Ambrosio eta Karril 'en estropada.— Francisco Etxaburu.

Sail biak irabazlearen aldeko dira, beraz ondarrutarren aurkako.

## 1897.- NERVION ' GO ESTROPADA.

Arrak, kokoak, nekez ilten dira.

Ekaitzik gogorrenetan iraun al izaten dabe, ortarako tarreak eta eskutaguneak billatuaz. Eta barrero zirika ekin, killi-killika.

Egia da urte batzutan estropadarik ez ebela eratu Bilbo eta bere ibaian.

1889 tik 1896 'era utsunea egon zan.

Urte onetan getariarrak aurkeztu ziran eta eurak geratu irabazle.

Ez bakarrik Bilbon. Bai Donostian be.

Donostia n lenengo Getari, ondoren Donosti, gero Pasai, Orio eta beste donostiar bi.

Ba dator 1897 urtea.

Ze gertatu ete zan Ondarroa eta Bermeo euren arteko desafio bat jokatzera Nervio-  
n'era joateko?

Mindu egin efe ziran aurreko urtean gipuzkoar batek, Getaria 'k, "euren etxean"  
irabazteagaz?

Dana dala desafioa jokatu zan, baiña lengoa ikusita... Ezin ukatu Ondarroa 'n lengo  
oroitzak egozala gogoan.

Bermeo geratu zan garaille, 31 minutu eta 12 segundutan bere ibilbidea bete  
ondoren.

Ez dago estropada onetako bertso paperik, ez eta gomuta andirik be.

## 1898.- DONOSTI 'KO ESTROPADAK.

Fraillean jokatu ziran, illaren 4' an eta gero 8' an.

Donostiarrak lau treiñeru gertu zituen.

Pasai San Pedotarrak, bat.

Ondarroa 'k bat,

Eta getariarrak, ondarrutarren aurka neurtzeko garretan, bat.

¶ Ilaren 4 Van, txanda bitan jokatu zan estropada.

Lenengo txandan:

- |  |        |
|--|--------|
| 1.—"Flora", Ondarroa 'kua. Beitia patroia.       | 21'24" |
| 2.— "Ramon y Saturnina"— Pasai San Pedro.— Korta | 21'23  |
| 3.—"San Anton".— Getaria.— Cabañas patroia.      | 22'08' |

Bigarren txandan:

- |   |        |
|---|--------|
| 1.—"Agueda"— Donostia. Urrezberueta patroia.  | 21-43' |
| 2.—"Santa Ana"— Donostia.                     | 22'23' |
| 3.—"Nuestra Sra. de la Paz"— Donostia. Silva. | 22"32' |
| 4.—"Esperanza", Donostia.— Urkiza patroia.    | 23'    |

¶ Ilaren 8' an: Onorezko Estropada.

- |                         |        |
|-------------------------|--------|
| 1.—"Flora"— Ondarroa.   | 21"07  |
| 2.— "Agueda", Donostia, | 21'37' |

Sariak oneik izan ziran:

Lenengo domekan, irabazlearentzat 700 peseta.

Bigarren ekitaldian, irabazlearentzat 1.000 peseta eta bandera.

Ftxuraz donostiar batzuk ondarrutarrei ziria sartu nai izan eutsen, Karril 'en estropada  
gogoratu eraziz, aren argazkiak leioetan ipinita, zortzi urte lenago arek ondarrutarrei;  
gogoratzen.

Bertsolariaren esanetan ba dago min ikutua orreri buruz:

"Atso zar batek erretratu bat  
bentanan zuan paratu,  
andra obia izango zuan  
ez baldin balu agertu..."

Ikus estropada oneri buruzko bertsoak, liburu onetako Bertso saillean:

1898:— Ondarrutar arrantzale batek jarriak  
Urte onetako bandera Kofradian gordeten da.  
Esaera au dauka:

San Sebastián, 8 de septiembre de 1898.

PREMIO DE HONOR.



## 1902.- NERVION GO ESTROPADAK.

Frailaren Tan jokatu ziran.

Bizkai 'tik zazpi errietako treñerua: Armintza, Bermeo, Desierto, Elantxobe, Ondarroa, Santurtzi eta Zierbana.

Gipuzkoa 'tik Orio.

Danetara 11 treñeru aurkeztu ziran.

Bizkai tik, joango zala iragarrita eukiarren, azken baten Lekeitiarrak ez ziran agertu.

Danen gain irabazle Ondarroa geratu zan, Manuel Beitia patroiz zala.

Ondarrutarrentzat izan ziran 1.000 peseta, lenengo saria eta bandera.

Bandera ori Kofradian gordeta dago eta idazketa au dauka:

PREMFO DE HONOR.

Regatas reales.

7 de septiembre de 1902. BILBAO.

Egun onetan bermeotarrak oiturazko ez zan eran egin nai izan eben erramutan.

Erabillezanak soka andi bategaz lotu, eta soka ori lepo eta sorbaldatik igaroten eben, orrela erremuari ziur eutsi eta indar geiago eragin nairik palada bakoitzean. Ala irakurten da Imaz 'en bertsoetan:

Bermeotarrak arrazoyakin  
salatu dira gogotik,  
sokakin lotu erramoa eta  
buelta emanak lepotik,  
oyek ola probatu dira,  
ez dakit bada zergaitik,  
modu orretako sistemarikan  
ez da ikusi oraindik.

Ikus estropada oneri buruzko bertsoak, liburu onetako saillean:

1902.— Biba Manuel Beitia ta beraren kuadrilla.

1902.— Bilboko estropadetako kantak — Jose Manuel Imaz.

1902 — Bilboko estropadetako kantak.— Jose Manuel Imaz.

1902.— Ondarrutarren kontra egiñak.— Juan Bautista Urkio "Gaztelu".

## 1925<sup>o</sup> KO ESTROPADAK.

Ogetak urte igarota egoazan inungo estropadetara joan barik.

Ez ziran bateko deiak eta besteko ziriak falta, baiña eutsi.

Bitarte onetan arrantzalien Kofradia be, gizaldietan bakarra izan zona, bitan zatituta egoan: Santa Clara eta San Pedro izenekoetan.

Alaz eta 1924 inguruan, barriri estropadetako arra geldi ezinda, goseti igarri zan.

Oraingoan Arrantzalien Kofradiatik barik, kaletik ebiltzen egon-eziñak.

Club Deportivo Aurrera'koak asi ziran gertaerak egiten.

Arrantzaleak amure egozan.

Entzute geiegi jokatzen zala, ze irabazi gitxi ta ze galdu askoren arriskua egoala. Estropodara joatekotan, indarrak batu bear zirala...

Portugaleten an egozan ondarrutarrak. Ondarroa, Portugalete, Santoña, Sestao eta Zierbana aurkeztu ziran.

Estropada antziñako ibilbidean egin zan, au da, 3:470 metro, ziaboga bigaz.

Ondarroa'k lenengo domekan 14,56 minututan egin eban ibillera.

Bigarrenean 15.00 minututan.

Biak bat eginda 29,56.



f.±tsburra: Salvador Aldarondo  
Manuel O a  
Ca s̄miro Eurgoa  
fsidn•^sa  
I nren-n Uribe  
Am°el Aufes̄ia  
...^+ Arakattain

C llr )

Ahorra Agustín grantzarnendi  
^cen+e AL3TTPPX1  
Janrrn Prlpo  
Alejandro t.lrtcc+lo  
José M. IturrL•a  
José leiria  
Juan L: ...esta beitia (At\_eki)



Cantabriako Txapeldun 1925

Sestao geratu zan bigarren.

Lenengo domekan 15,10 minututan amaitu eban.

Bigarrenean 15,15 minututan amaitu eban.

Guztira 30,25.

Zierbena eta Portugalete "deskalifikatuta" geratu ziran.

Frugarren saria Santona k jaso eban.

Estropadak Frailla 'ren 20 eta 27'n jokatu ziran.

Ikus, estropada onetako bertsuak, bertsoen saillean:

1925.— Portugalete'ko estropadak.— Burgoa k jarriak.

## 1926.- DONOSTIAKO ESTROPADAK.

1925 'ko Portugalete'ko estropadak, Donostia 'ro joateko gogoa biztu eben.

Ogei ta zortzi urte igaro ziran, azkenengoz Donostia - n jokatu zanetik. Bearrezko zan ekitaldi barri bat egitea.

Batasuna sortu zan errian. Anaitasuna.



Lenengotan eztabaidatzen zona, gero, bein atzerarik egin eziña igarri zanean, estropadarako zaleen gogoia geiago zala ezezkoena baiño ikusi zanean, egin bearfzat artu zan.

Arrantzaleak, euren aldetik, lengo alderdikeriak itxi eta alkartzeko ebiltzan.

Giroa egokitu zan.

Portugalete 'ko gizonak gertu egozan. Osotu, egokitu, indar bardindu besterik ez egoan.

Egoana landu, ebagitekoa ebagi eta indarrak probatzera Donostia"ra!

Treiñeru barria egin zan orretarako.

"Gabarra"tzat artu eben batzuk destaintsu.

Eztabaidak euki zitun. AFdeko ta aurkako, jakiña.

Treiñeru bi gertu ziran. Komeni zan, gizon ugari prest eukiteko.

Fraila 'ren 5 eta 12 'an jokatu ziran estropadak.

Fstorirako geratu ziran denporak eta jokatu eben beste erriak.

Zazpi taldek emon eben izena.

Lenengo igandean, txanda bitan jokatu zan.

Lenengo txandan:

1. —"Antiguako Ama" 1.— Ondarroa. Juan Bta. Beitia patroia. 19,32.

2.—"Sanjuandarra".— Pasaia. Francisco Laboa patroia. 19,41,3/5.

3.—"Ondarrabitarra".— Ondarrabia. Roman Agirre patroia. 19,50,4/5.

4.—"Donostiarra". Donostia. Domingo de la Hoz, patroia. 19,53,4/5.

Bigarren txandan. (Txanda onetakoak ain zuzen denpora geiago bear izan eben).

5. —"Virgen del Mar".— Ondarrabia. M. Goikoetxea, patroia. 19,57,2/5.

6. — "Antiguako Ama" 2.— Ondarroa.— Jose Migel Balenziaga. 20,14,1/5.

7. —"Virgen de la Guia".— Portugalete.— L. Gutierrez patroia. 20,53,2/5.

# ONOREZKO ESTROPADA.

1910 urte ezkeroztik oitorea zan Donostiko estropadetan onorezko estropada jokatu bear eben talde biak, euren treñneruak aldatuta jokatzea. Alaxe egin zan urte onetan be.

Ondarrutarrak ba euken bildurra, euren "gabarran" oituta, besteen treñneruan ondora joango ete ziran be.

Eta treñneruak aldatuta be, "Junbaiste" Beitia 'ren mutillak, ondarrutarrak, arro egin eben osterea eta nagusi sartu.

Ara denporak:

1. — "Sanjuandarra". — Ondarroa. Juan Bta. Beitia, patroia. 21,03,4/5.

2.—"Antiguako Ama 1".— Pasaia. Francisco Laboa, patroia. 21,20,3/5.

Beraz "gabarreagaz", nai "intxaur-oskolagaz" garbi ikusi zan Ondarroa 'ren trebetasuna, indarra eta sasoa.

Estropada aurreko giroa eguneru jgarlen gendun gure errian, estropadalarien saiaketak ikusi, euren inguruko bizimodu berezia ( )aduten gendulako. Eta ondorengo ba, oraindik erdi- ume nitzala bizi neban.

Gogoan daukat Donostia 'n, estropada egunean, ango "Aquarium" en goi aldean gengoazala, an egozan izurde lako ondarrutar gizon lodiak, zelako kezka, dardara, egon eziña eta urduritasunez "ikusi" eben estropadea, azken txanpagaz ziurtatu a rte.

Gogoan daukat, baita, ain zuzen alkatea bizi zan etxearen bigarreanean jaiotako bizi n i

goraka, txaloka eta kantari, eta alkateak "estropaden irabaztea erriaren poza zala" eta poztasun ori nasai agertzeko sei eguneko jaiak egiteko baimena emon ebala.

Gaiñerakoena, inguruko en egoera, zer-pentsa eta zer-esan, era bateko nai besteko ospakizun eta abar, bertsolariak kantuz esan eta gerorako be gogoratzeke egin zituen bertsoetatik atarako dauz irakurleak. Fzan be bertsoaldi orreik, gertaeraren kronika egitsu, samur eta pozkarriak diralako, nai eta tartetan ez tentxo luza, komeni jakonak aidean artzeke eran.

Ba daukat buruan orduko beste gogoeta bat.

Donostiako estropadak, an bertan guk ikusi eta ezagutu gendun itxas-otsoen larritasun eta kezkatik gain, errian geratu ziran atso-agura, etxeoandra, gaixo eta abarren ordu larriak be gogoratzen dauskuez.

Onelako larrialdietan Ondarroa k ba dauka bere eskutuak agertu, eskintzak egin, naitgabeak urtu eta negarrak eta malkoak ixuriteko tokia: Antigua.

Eta egun aretan be, lapikoak eta jatekoak eta etxeke goraberak gerorako itxita, andra asko Antiguara joan ziran, erriko zaindarien eleiza betien bete egiteko aiña.

Antxe egon ziran, kanta eta erreza, estropada ordua eldu a rte, nai eta batzutan andik itxas aurrera urten eta zazpikiak baiño estu eta kiriotsuago Donosti aurreko itxasora begira, eguraldiaren aldatze, aize edo itxas-erasorik agertzen ete zan edo ez oartu nairik, toki baten nasai egon ez iñik.

Estropada ordua zala pentsatu ebenean, eleizatik iñok zirkiñik egin barik, etenbako errezu luzeak egiten asi ziran, oituraz illeta eta beste gertaeretan errezatzaile ekiten eutsen batzuk be ba egozalako bertan. Ogetak minutu orrela igarota, estropada denpora amaitu zala ta larritasunez eutsi eziñez egozala, andre andi batek, Ama Birgiña etxeke ebalako iñoiz gaizki esan be egiten eutsan batek, danen gaiñetik deadar larri bat egin eban: "Ointxe, ointxe, geure Ama ona, ia palada bat, palada bat..."

Arek ez eban esango Antigua 'ko Amak egun orretan entzun ez eutsanik. Estropadaren amaiera "ikus" lez egin ei eban. Eta bere azken paladeagaz batera, su-ziriak (bolanderak) asi ziran erritik dunbadaka eta angoak, erriko zarata, uju eta gorak entzutean, pozarren negarrari eutsi ezinda, ittoteko eran jeitxi ei ziran errira.

Beste bat: Oraingotan jokolariak ez eben inoiz bezin itsu eta bero jokatu.

Ez zan lenagoko itsutasunak, erri guztia galdu ezkeru ondatuta geratzeko eran. Dirudunak eta tratulariak zurrago ibili ziran. Eta orrelakoetan oi dana: egon ziran "poziK" apostuak galdu zituenak, erriaren onore eta izenak, eta erriko zorionak, geiegi balio ebalako tratu batzutan edo merkataritzan barriro be noz-nai etxeratu eikezan diruak baiño. Ori be gizon legea da, eta era bat edo bestera, erri maitasuna goi maillan zaindutea.

Bestetik adiskide askoren besarkada biurtu ziran estropadak. Eten barik etorten ziran errira auzoetako adiskideak, ondarrutarrekaz jaiak ospatzera, bai eta erriak, bere poz eta ala itasuna agertuaz, ezerezetik be asmo eta gurari batzuk beteaz, errian gertu zitun aibat ikuskizun eta jaietan parte artzera. Abesbatzak etorri ziran, musika taldeak, eta beste-lako jaiegilleak.

Ateak zabalik egozan danentzat. Eta "Falua errealeko" jaietan, Bilboko ibaian zear Estaduko Erregiña ondarrutarrak erabili ba eben be, oraingotan bertako Erregin jator bat koroetu gendun, eta Kalandiko bere tronuan andra andi eta eder lez lore artean egunetan erakutsi.

Oarra. Ikusi, bertso saillean, estropada oneitako ainbat.

1926.—Kalandiko Erregiñe Dienesi.— Jose Brontxe'k.

1926.—Milla bederatzietun ogeita seian.— Ondarrutar batek.

1926.—Beti ezagun... J. Burgoa'k.

1926.—Milla bederatzireun da... Burgoa'k.

1926.—Domingo Gorra jarriak.

1926.—Biba ondarrutarrak.

1926 — Berriatua ' ko Ezkerrak jarriak.

1926.—Jose Brotxe'k jarriak.

1926 —Milla bederatzireun... X X.

1926.—Naste borrate.

1926.—Arraunkalai estropada. "Me aro Txirristaka" k.

## 1926.- PORTUGALETE KO ESTROPADAK.-

Urte onetako Donostia ko estropadak irabazi ondoren, dana zan jai Ondarroara.

Baiña B;lbokoetarako izena emonda egoan. Eta berba bete bear zan, eta onoreak zaindu.

Alaxe egin zan.

Eta Portugaiete'n igazko garaitza barriztu zan.

igazko antzera, Ondarroa geratu zan txapeldun. Sestao bigarren.

Lenengo domekan 15,54 minututan egin zan ibillera.

Bigarrean 14,46"eta.

Guztira 30,40.

Sestao ' k, bere aldetik domeka bietan denpora geiago igaro eban.

Lenengo domekan 16,10 minutu bear izan zitun.

Bigarreanean 15,2.

Guztira 31,12.

Girela amaitu eban Ondarroa k urtea.

Donostia'n gorengo mallan laga eban izena. Danentzako egon zan aukera. Baiña aukeragaz baliatu egin bear da irabazteko bandera. Eta Ondarroa k baliatu zalako ekarri eban etxera.

Bilbo'ko ibaian iñor ez zan eldu urteko txapeldunari garaitzarik ukatzera.

Aidean geratu zan itaun bat arte?



# ESTROPADA IRABAZLEAK

Estropadak noiz asiak diran, ezin lei zeaztu.

Zeaztu leikena, bai, neurri batzuk artu eta neurri orrek zainduaz, ofizialki antzera, egin-dako estropadak.

Donostia n, 1890 urtean asi ez ba ziran be, urte orretatik datoz lau millako neurrietan egiten asi ziran estropaden ezaguera batzuk.

Eta lengo gizaldian irabazle izan ziranak oneik dira:

Donosti.- 1890 (Luis Karrik patroia), 1891, 1892, 1894 (iru urte oneitan Kiriko patroia), 1895 (Arregi patroia) eta 1897. (Urte onetan lenengo txandan Pasai Donibane 'k irabazi eban, baiña bigarrenera ez zan aurkeztu eta origaitik Donosti irabazle.)

Getaria.- 1896.

Ondarroa.- 1898.

Pasai S. Pedro.- 1899.

XX garren gizaldian, oraingoan, 1901 'tik 1965 bitartean, oneik izan dira irabazle.

Aginaga.- 1957, 1960

Donosti.- 1915 (Soterotxo), 1918 (Kiriko), 1920 (Kiriko), 1922 (Soterotxo), 1940 (Famao), 1950 (Pinchau).

Getaria.- 1911 (Berak bakarrik jokatu eban omenezko estropada).

Ondarrabia.- 1941, 1943, 1947, 1948, 1965, 1966, 1967, 1968.

Ondarroa.- 1926.

Orio.- 1901, 1909, 1910, 1916, 1919, 1923, 1925, 1933, 1934, 1939, 1942, 1944, 1951, 1952, 1953, 1955, 1958, 1964, 1970

Pasai.- (Biak alkartuta)- 1921.

Pasai Donibane.- 1924, 1956, 1961, 1962, 1963.

Pasai San Pedro.- 1917, 1927, 1928, 1929, 1930, 1931, 1932, 1935.

Pedreña.- 1945, 1946, 1949.

Sestao.- 1954, 1959.

Lasarte-Mitxelín.- 1969.

Azken gerrate ondorenean, estropadetan iñor saiatu ba da, ezin ukatu Orio bizi eta arro ibili danik.

Bitarte onetan, Pasai San Pedro'k, beste iñok lortu ez ebana lortuta dauka:

Sei urte erreskadakotan, txapeldun edo bandera irabazle izatea.

Donostiko estropadetako denporarik laburrena Pasai Donibane'k dauka, 1923 urtean egiña, getariarren treiñeruagaz, konsolaziñoiko estropadan: 19 minutu eta 17 segundu. Egun aretan, Onorezko estropadan, oriotarrak, donostiarren treiñeruagaz, 19'20"3/5.

Esan lei estropadak eratuta geratu eta mugatuta jokatzan asi ziranetik, alkar arteko zemaikoak (desafiokoak) bakandu egin zirala.

Gogoratu dogu Ondarroa eta Donostia artean 1890'njokatua. Ots andikoa izan zan. Donosti irabazle.

Lenago, 1868 urtean, Donostia, Mutriku eta Ondarrabiak euren arteko bat euki eben. Ondarrabia irabazle.

1965 urtean Pedreña eta Ondarrabi artean egon zan alkar-arteke auzia. Estropada

bakar baten ordeztan, bitan jokatu nai izan eben, bat Santoña'n eta bestea Donostia n.

Biak Ondarrabiak irabazi zitun, nai eta Santoñakoan segundu bi bakarrik lortu alde-rantzi lez.

1936, 1937 eta 1938 urtetan ez zan estropadarik egon.

1939' n asi ziran, baiña urte onetako ibilbidea bi millakoa izan zan, au da, oiturazkoa baiño laburrago.

Bizkai 'ko estropada nagusiak ez dabe ziurtasunik euki izan ez denporetan, ez tokie-tan, ez ibilbidearen neurrietan.

Edozetara be 1887' tik 1970 bitartean, 18 bidar jokatu izan dira bertako estropadak, eta irabazleak edo txapeldunak oneik izan ziran:

Bermeo: 1888, 1889 eta 1897 urtetan.

Donostia: 1919 n.

Getaria: 1896 en.

Lasarte: 1969'n.

Ondarrabia: 1967, 1968 ' n.

Ondarroa: 1887, 1902, 1925, 1926.

Orio: 1970

Pedreña: 1966.

Portugalete: 1929.

Santurtzi: 1917, 1921.

Zierbana: 1927 eta 1928.

Oneik izan dira Euskalerriko estropadarik entzutetsuenetan, Donostia eta Bilbao'n jokaturakotan, euren portuetara bandera, kopa edo bestelako garaikurrak eroatea lortu eben erriak.

Gertaera bakan eta jakingarri lez, onako oneik aitatu giñeikez:

1897.— Lenengo domekan Pasai Donibaneko "Moñoño" treñerua geratu zan irabazle eta bigarren Donostiarrak.

Omenezko estropada jokatzeko ez ziran pasaitarrak agertu, eta origaitik Donostiarrak artu eben bandera.

1910.— Urte onetan asi zan Donostia ko omenezko estropadetan jokatzeko treñer-ruak aldatzea, eta estropada bietako denporak alkartutea irabazlea emoteko.

1911. — Getariarrak bigarren geratu ziran lenengo estropadan. Bigarren estropada jokatu al izateko, ordeztakoak eroaten lagateko eskatu eben. Juraduak ontzat artu eban eskaria. Baiña oriotarrak, asarrez, ez ziran agertu. Origaitik getariarrak bakarrik egin eben ibilaldia, 31,18 minututan.

1919. — Lenengo estropadan, asi eta batera donostiarrak erremu bat apurtu eben eta irugarren eldu.

1920. — Donostiarrak eurei tokaten ez jakoen balizan sartu ziran. Origaitik donibane-tarrak asarrea agertu eben. Juraduak ez eban asarre ori aintzat artu, errua Juradu berbe-rarena izan zala esanez, gei egoan baliza kendu ez ebalako. Origaitik pasaitarrak ez ziran aurkeztu omenezko estropadara eta donostiarrak eurak bakarrik egin eben ibilaldia, pasaitarren treñeruagaz, eta aurrerako domekan baiño denpora obeagoa egin eben. Aurrekoan, euren treñeruagaz, 20,22,4/5 bear izan zituen, eta oraingoan, pasaitarren treñeruagaz, 19,45 tan amaitu eben.

1922.— Estropada onetan donostiarrak eta pasaitarrak bardintsu eldu ziran, bie-i denpora bardiña emonaz. Origaitik estropada barri bat jokatu eben. Pasaitarrak irabazi

eben, baiña donostiarrak asarrea agertu eben pasaitarrak lagun barriak sartu zituela-ta. Juraduak errazoa emon eutsen eta estropada onetako irabazletzat eurak gutu.

1929.— Urte onetan asi ziran omenezko estropada, lenengo bien orde, lenengo laurak jokutzen.

1935.— Orio ko treiñeruak tirabira egin eban Santa Clara ugartearen aurrean.

1945.— Aya' ko treiñerua ondora joan. Bi garren domekan, sariketarako barik, baiña euren alegiña egin eben eta 22,06 minututan sartu.

1948.— Peñacastillo treiñerua, milia bat egin ondoren, ondora joan zan.



## ETA GERO?

Amaitu ete ziran estropadak ondarrutarrentzat?

1926 tik ona urteak joan dira.

"Euskaldunak" izendun euskal poema egitean, bere egitura agindu eutsen olerkariak, Nikolas Ormaetxea "Orixe" ospetsuak, ezin ixildu oi izan eban bere kantuan ondarrutarraren ospea, nai eta urteak igarotaegon ondarrutarrak azken estropada Donostia 'njokatu ebentik.

Egia esateko ospea goratu ta ziria sartu euskun.

"Orixe" k ez ekian itxas gairik, ez eukan itxas ezaupiderik, laiño eta gurma artean ezik. Baiña ba eukan Ondarroa ren entzutea, nik esango neuke guk irabaziarena eta bestek kenduarena, edozetara be estropadak oiñarri luzaro euki izan doguna.

Gogoratu lengo gizaldian Ondarruagaitik zabal ebillan esaera: "Bandera jartzen zuten ezquila (kanpai) torrian, inbenzible zirala Kosta Kantabrian."

Eta "Orixe" zanak euskaldunen bizitza, oitura, ekandu, egitada eta abarrei buruz idatzitako poeman, estropade eskiñitako bertsoaldi laburretan, au idatzi eban:



"Orainoz ez da Bizkaia 'tik  
bildur daragin Ondarru:

*(Otra koipea ta jaboia  
eta izan gendun ospearen /oria)*

—Donostirekin aurren urteko  
zorrak ordaintzen lana du

*(Orra baita merezi ez gendun  
pozoidun ziria,  
sarri entzun izan gendun jipoia)*

Aren itzala sumatu bage  
lasai Donostia 'k oi...

*(barrero gure nortasunaren gora-  
pena... eskutuan bederik.)*

Batera nai bestera ezin ukatu ondarrutarren estropadetatik sortutako urteetako ospea.

Eta ez da ospe ori oraingoa, Donosti 'ko estropadetakua, gure gizaldikoa.

Orain 125 urte, Santandenen estropadak egon ziran. 1861 urtean al zuzen. An ba egoan idazle edo poeta satiriku bat, Antonio García Gutierrez, "El mordaz" goitizena erabilten ebana.

Urte aretako estropadei buruz egin zitun bertso batzuk, bertso edo koplak, eta Barbieri musikalaria ospetsuari agindu musikaz alaituteko. Ala sortu zan "Jota del Regateo" ize-neko kantua.

Eta an, Castro geratzeko, besteak beratu.

Ondarrutarrok be agertzen gara kantu aretan:

"Entre otros insignes luchadores  
de Ondarroa los famosos bogadores".

Laster zabaldu zan jota ori Kantabria aldian. Gure mariñelak be ikasi eben.

Ain zuzen be bertso orreik entzun eta euri erantzuten idatzi zitun Eusebio Maria Dolores Azkue 'k, Resurrección Azkue 'ren aitak, guk liburu onetako bertso saillean batuta agertzen doguzanak: "Castroko Abantariari" deitzen diranetan batzuk, Castroko Arrantzariari deiturakoan besteak.

"Nun dago Lekeitio,  
nun dogo Ondarroa?  
Nun da Bermeotarren  
kalako santzoa?  
Onek azpiratuta  
¡Garcia Gutierrez!  
¡ñoz ikusi eztira  
ta ezta ikusten errez.

Asko ta asko zagoze  
abantlari putzak;  
baiña geugaz bardinak  
bakarrik Giputzak.

Ondarroan sortu zan  
aize putzkadeak

Eleizan sartu al dituz  
Castroko abadeak,  
eskatuten Santa Ana  
ta San Pelayori,  
miinean emoteko  
indarra Castrori?

Gure artean, estropada denporetan, lekeltiarrak beti menaebaletik eukiten doguzala esaten da.

Liburu onetan bertan Blas Iturrizaren kronikan garbi agertzen da 1890 ko estropada entzutetsuan, Lekeitioko erria ez zala Ondarroa ren alde egon. Baiña ba doguz agiriak be zurtatzeko, komeni izan danetan, Lekeitiarrak jakin izan dabela gure alde idazten.

Gaur gaitzago izango litzake ainbesteko zitalkeri. Erri maillan gero ta adiskideago bizi gara auzoak, gero ta artu-emon geiago doguzalako. Ez ori bakarrik, kirol onek len ez eukan ugaritasuna artu dau. Egun baten galtzen dana biar irabazten da.

Pelotan, irabazi nai galduarren, erririk ez da jokoagaz naastuten; futboleant be igandero dogu goraka ta aupadaka ibilteko jokoren bat, eta biaramonean odolak lengora makurtzen dira.

Estropadetan be, 1970 ingurutik artu daben zabaltasun eta indarrak, erririk geienetan ilxasertzean beintzat Arraun alkarteak sortuaz, kirol au batez be gaztediaren osasungarri lez artzera daroa, norbereari eutsiarren, itsukeri eta ezin ikusiak bastertuaz, jokoajoko lez artuaz, bearrezko doguzan atsedean eta atsegin orduak jgaroten laguntzeko.

Orrelako giroa sortua da Ondarroan bertan. Or ikusten doguz ume eta kozkonduak, gazteak eta egiñagoak, estropaden gaitasuna gero eta jator eta zintzoago zaindu nairik, ikasi ta ikasteko, indartu ta indartzeko, trebetu ta trebetzeko.

Ori da kiroletik billatu bear dana. Kirola teknika eta moduz jatortu, eta bere eragiña errien alkartasunean zabaldu. Bide ori daroe gaur, erraz igarten dan lez, Ftxasert onetan sortu diran erramularien alkarte eta taldeak.

Jarraian, liburu onetan sartzen doguzan bertso batzuk, ez zituen errez iruntsiko gure zarrak.

Baiña alkarri entzuten ikusiak gara eta batez be norbere zintzotasuna izan bear da askotan, beste barik, entzun edo irakurri ta gor egiten jakin bear dauana, odolak berotu barik.

Erremularien familj; zabaleko anaiak gana, azken baten, estropada zaletasuna euki ta zaindu nai dogunok.

## II. – ESTROPADEAKO AINBAT BERTSO ZAR ETA BARRIAK



# ONDARRUTAR ORIEK

(Azkue. Cancionero Popular Vasco, Tomo VIII).

(... "Lo aprendí en Fuenterrabia. Es un poemita, compuesto en ocasión de una empear del cabo de Santa regata habida hacia el año 1854 entre lekeitianos y ondarroeses, a empear del Cabo de Santa Catalina y terminar en el puerto de Guetaria.)

f. —Ondarrutar oriek egin dute plana  
egin bear dutela egun a rfan lana,  
amurratzen jarri da Lekeitio,  
aurten urrikarri da oien kontra dana.

ff. —Estropadan asi ziran biak alkarrekin,  
aurrera joan zitzaion bentajearekin,  
"ea nere mutil maiteok pista bat egin"  
San Antonera orduko biak ia berdin.

fff. —Zumaiara artean aurretik ederki  
nobedade egin zaio tostarfekoan bati,  
erremuratutzeko Felipe jaun ori  
San Antonera orduko ukatuta geldi.

IV. —Ondarrutar oriek zuten pantesia  
olatua popatik txalupan grazia,  
atzetik or eldu da txalupa bestea  
gaizki egin zaioten popatik eltzea.

V.—Popatik eldu eta arrauna kentzera  
orduan artu zuen txalupak bestera,  
oiek bañon gutxiago gu bat-e ezkera,  
zer lotsa daramaten oiek erbestera!.

VF. —Erbestera joan da endrerruan asi,  
ederrak ematea zutela merezi,  
apostu irabazten oiek ez nai utzi:  
Lekeitiarrak ziran Getarian nagusi.

,TREÑERU.

ESTROPA DA, ANSAUNKETA



# CASTRO ' KUI

(Eusebio M.º Azkue Barrundla. 1813-1873)

VIVA BIZKAITAR ARRANTZALIAK,  
ZAR TA GAZTFAK BATZANDURFK,  
VIVA GIPUTZAK EUREN LAGUNAK,  
VFVA EUSKALDUNAK ALKARTURFK.

1. —Nun estaldu ete dira

Castroko batelak?

Osorik ete daukez

erremu ta belak?

Euren gallardeteko

lau milla puntadak

askatu ete dituez

iru aiza fugadak?

2.—Lenengo fugadaa

zan Bermeokua

porturatu dabena

flota Castrokua;

Ez dabe ezer balijo

barriquerija utsak

ez da Irurak batian

Castrotarren putzak.

3.—Bigarren fugadiak

—Otoijon sortua-

erremu ausiz bete dau

Castroko portua;

Laburtu arren bidia

Castroko txalupai

onek Lekeitijora

ez dabe jua nait.

4.—Ondarruan sortu zan

aize fugadiak,

eleizan sartu al ditu

Castroko abadiak

eskatuten Santa Ana

ta San Pelayori

Miiñian emoteko

indarra Castroiri?

5.- Castran nait izan dabe

gelditu nagusi

ta euren andikerija

koplakaz erosi,

euskaldunak ez dabe

erosten famarik,

emen ez da furnia

ezer, lana barik.

6.—Erzilla jakitunen

birloba onraduak

dira uste barik daukez

beti prest buruak

erakusteko mundu

gustijaen aurrian

lenengo dala onria

euskaldun lurrian.

7.—Ondo da irabaztia

nekiaren sarija,

eta asko bere obeto

au balitz andija;

Baña bermeotarrak

ez dau nait dirurik,

onria daukanian

ezek mingozturik.

8.—Lekeitijon ez eutsen

erantzun pobriai

ezpada nagusi lez

mordazen arrantzai

baldin arrantzaleen

bada adiskidia,

apostia egin leijen

egin zan bidia.

9.—Ondarruak erantzun

etsan batzarrari

ez Castroko itxasgizon

arrantzaliari;

Nait ba dabe irabazi

Soziedadekuak

aupada ona egin eutsen

Ondarruakuak.

10.—Baña Castran nunbait

dagoz gizon putzak

miiñez zorrotzak, baña

zaizkuak gorpataz;

Aize biurta dan legez

euren fama andija

eurek autorta dabe

euren irudija.

# CASTROKO ABANTARIARI

Iru aupada egin dira  
ta euren durundua  
erriz ta itsasoz dabil  
beteten mundua;  
euskerazko durundu  
beti lez zolia  
isilduko dabena  
Castroko txoria.

Onen kantu gozoak  
bete beterik suz  
entzuteko lekuan  
berera euki doguz;  
baina dauskaguzalez  
belarri ziurrak  
etsakuz arimara  
eldu euren guzurrak.

Nun dago Lekeitio?  
Nun dago Ondarroa?  
Nun da Bermeotarren  
kalako santzoa?  
Onek azpiratuta  
iGarcia Gutierrez!  
inos ikusi eztira  
ta ezta ikusten errez.

Trobadorean Alta,  
Parnasoko argia  
Taliak bularrean  
maiterik azia!  
Zelan sinistu dozu,  
Apolon kutuna,  
izan dala abantean  
goitua euskalduna?

Betoz bardin bardinak  
batel nagoslak  
eta Castroko gizon  
erremulariak,  
ikusten Bizkaitarrak  
santzoka abantean:  
eta egaz tsalupea  
eurenez aurrean.

Mallorkin itsasgizon  
bana banakoak  
ezagututa daukez  
Bikaitar besoak:  
bada Habanako kaian  
ziurta zirean  
Bizkaiko kostakoak  
ze gizon direan.

Bizkaiko tsaluparik  
estropadarako  
ezta egon Santanderen  
ioan eztalako:  
ze bat utsa egon balitz  
jala Jaungoikoa!  
berea zan dirua  
estropadakoa.

Baina egon dira batzuk  
Bizkaitar azkorrak  
erakusteko bertan  
euren san gogorrak.  
Batel tsarragaz, baina  
betiko madura  
aurreti eldu zirean  
bear zan lekura.


Bizkaitarrak eukelez  
ziur alogera,  
ezeben garaituten  
ioan nai aurrera:  
saria irabaztea  
orduan zan errez,  
batelak bear eban  
baina gizonak ez.

la bada Castroko  
kaskabel iotzailak,  
eztabe ezer baiio  
gedar ta barailak.  
Baldin nal badozue  
izenagaz urten  
ezta euskalduna atzera  
jnos bñurtuten.

Emen dagoz Bermeo  
mutil abjilakaz  
eta Ondarroa andia  
arrantzaleakaz.  
Emen da Lekeitio  
leorrez ta itsasoz  
bardinik eztaukana  
bere alboan inos.

Asko ta asko zagoze abontalari putzak;  
baina geugaz bardinak  
bakarrik Giputzak:  
arfuezkero erremuak  
eskuan gogora  
euskaldun batela da  
bardin zein vaporo.

Eusebio María Dolores Azkue  
(1813-1873)





# BERTSO BERRIYAK SENPELARREK JARRIAK

(1965) (Manuel Matxin)

1865 urteko estropada batenak

1. —Agoztuaren ogei ta biyan  
para dirate plazua,  
kantatutzeko la daukadan  
memoria animosua,  
Ondarrabian txalupa bati  
gertatu zaion kasua,  
bertso berriyak jartzera nua,  
badago zeñek jasua.

2. — Probentziyako gobernadore  
Gipuzkoako burua,  
legiak ongi dakizkiyena,  
au da gizon segurua;  
onen ordenaz artu genduen  
txalupa bat agurua,  
guziyak ala izan ba lute  
ametitzeko gogua.

3. — Probentziyako portu geienak  
abisatuak ziran-to,  
deliberatu degu jartzia  
korajetxua izanta;  
alkate jaunak agindu zigun  
ofizioak esanaa  
amabost lagun Getariyara  
presentatzeko sin falta,

4.—Amabost lagun txaluparekin  
Ondarrabiyan jarriyak,  
Getariyara abiratziyan  
bederatzi ta erdiyak,  
gure txalupa ekusi zuten  
zuzen dauzkala neurriyak,  
Zumaiatarren kontra jartzeko  
agindu zigun erriyak.

5.—Txalupa ontzat juzgatu eta  
nal ba genduen artzeko,  
esan ziguten Zarautzia joan ta  
geren puntuan jartzeko;  
Zumaiatarrak izan zirala  
gure kontra jokatzeko,

beldur ziraden aiek baño len  
premiyua ekartzeko.

6.—Getariyatik Zarautzia joan ta  
kayian giñaden jarri,  
ia mutillak, korakez asi!  
esan geniyon alkarri;  
gero mundantza partikular bat  
ezpeligute ekarri...  
azkenian zer gertatu zaigun  
esango dizuten sarri,

7. —Elkar artuta dudarik gabe  
aitzaki billa zebiltzen,  
gizon bat deika kaia gañetik  
etzen beñere isiltzen,  
lagun bi joanta jarri giñaden  
aren esanak aditzen:  
"zuen txalupa ametitzia  
eztit barrenak agintzen".

8.—Guk beriala esan geniyon:  
"Aizazu, adiskiria,  
onekin ere ez da pasatzen  
eragin gabe biria",  
beste batekin jokatzeko  
utzi nezala neria,  
naiago zuen bitorioso  
ateratzia beria.

9.—Munduan askok agindu naia  
badu besteren mayian,  
gure txalupa, eztet ukatzen,  
ona da bere gayian;  
joan dan urtian jokatua da  
Donostiako playian,  
aurten orrela erabiltzeko  
desanparatu naylon.

10.—Askok ba degu besteren ona  
begiz ekusi eziña,  
gure txalupa desanparatu  
Ondarrabiyan egiña;  
laguntzalliak izan ezkeru,

lijerua ta ariña,  
kontrariyuak jarriko ziran  
motelak izan ba giña.

11.—Ondarrabiyan bizi geradl  
iñork nai badu ikasi,  
esan goguan daukazutena,  
arrokeriyan ez asi;  
joan dan urtian galdu zuena  
aurten gutxi galerazi,  
oraingua zen orduan ere  
nai bazuten irabazi.

12.—Bizkaiatik bi ekarri eta  
nadira ontzat emanak,  
geiagoire bai guriak bañon  
luziyaguak ziranak,  
probentziyako portuetatik  
txalupak ziran esanak,  
kanpokuaren biarrrik eztu  
etxian ona daukanak.

13.—Gure txalupa abilla dala  
au jendiaren mingaña!  
indarrarekin artutzen zaio  
urrian bere tamaña;  
arraungilliak onak jarrita  
patroia berriz bikaña,  
bestela zeñek ondu biar du  
aurten egin dan azaña?

14.—Getariarrak ontzat emanta  
orain oiek debekatu,

irabazteko beldurra zuten,  
bestela ezin kejatu;  
barku igualak, eskuk berdin,  
Kondeziyuak markatu,  
amabost lagun jarriko gera  
iñork nai badu jokatu.


15— Desafiyo au botatzerako  
ez naute gutxi biartu,  
txalupa jarri berdiñak eta  
leon-castillo zein artu;  
probentziyako erri batetik  
iñork nahi badu agertu,  
amabost lagun jarriko gera  
zein nekezago aspertu.

16.- Gure txalupe Zubiyeta da  
jabiak nai du armatu,  
joan dan urtian Atxularrek du  
auziya bereganatu;  
amasei bertso Ondarrabiyan  
orra euskeraz paratu,  
obligatuta esanak dira,  
ez iñor inkomodatu.

"Vengaran, Francisco Maria  
Maochain en moldiztegian.

Se pueden imprimir  
Vergara, 23 de septiembre de 1865.

El promotor fiscal  
Agustín de Villachica.



# BILBAO - KO ESTROPADETA KO KANTAK

**(Ez da agertzen bertso onen Jauberik, ez urterik.  
Beste aldetik ez dagoz ondoa batuak. Bederatzi bertsoaldi  
agertu ondoren, "Amazazpi garrena esatera nua..." diñoe.  
Guk "Ondarru" ko Kantak" liburutxoan agertu ziran lez  
argitaratzen doguz.)**

Bermeo treñeru bat zuten aurretik  
eta ondarrutarrak segika atzetik.  
bandera buelta emanda, asi zeranetik  
aiskar pasatu zaie, oyen kostautik.

Ondarrutarrak bueltan etorri zanian  
Santurtzear bat zuten, billatu bidian;  
oyen planta ikusita lotsatzen ez ziran,  
berri etorri gabe, zaudete etxian.

Beste Ondarruko bat listo zan jarria,  
ura ikusitzeko ai gure agarria,  
asi ziran da ara, mutillak aurrera,  
begira gauden danok ikaratu gera.

Bi treñeru ayek, asi ziranean,  
jendea ezin egon zan alkarren gainean,  
nola da orrenbeste korritzi unan,  
inposible ez ba da, etorri di airian.

Txalopa abillenak an pintatu dira  
zainda balientiak agertuak dira,  
emengo estroparak guretzako dira,  
fiestak egitera guazan bai errira.

Fernando Ftuarte, eta Arriola,  
iragarrena lagun zan Garramiola,  
kontentuz egon ziran, begira zeunden da  
mutil balientiak ikusi ziran da.

Estropara geiago izaten ba dira  
abisu bialduko dute bai errira,  
ondo entrenaturik etorriko dira,  
Bilbotarren banderak, Ondarruan dira.

Beste gauzarik oyek ez dauke goguan,  
jan da edan ematen, biartzan orduan,  
irurak billatzen ziran alkarren urrian,  
ondraduagorikan ez zuan orduan.

Bandera bat ederra, sedaz bordatua,  
biar delikadua, apañdutakua,  
Ondarrutarrentzat dago agindua  
Diputazio jaunak, den erregalua.

Amazazpi garrena esatera nua,  
ez gaudela aztuak, gu Jaun orren gana,  
parte emango dio Diputaziora,  
pasa dezan istori, España gora.

Akabera bat ona ematera nua,  
neor txartu gabe, beardan moduan,  
lenbizi ni naizela, zuek urrengiak  
egin zazute uju biar Ondarruan.



# ONDARRUA TA PASAYAK JOKATUTAKO ESTROPADAK 25-XI-1888) JOKATU AURRETIK ATARATAKO BERTSUAK - T. Urrosolo

(Getariatik Donostia'ra. Ondarroa' ren denpora 84 minutu Pasara'ren denpora 84,15.)

1.—Gipuzkoako Getariara txalupan sarturik guazen, Pasaitarrekin probatutzera Ondarrutarrak lenbailen, Bizkaitarrakin jokatzeko oyek dediotan zeuden, ikusiko da Donostiara nor allegatzen dan lenen.

2.—Mutil maitiak ez ikaratu egin alegin guzia, zuen indarrak bentzitzeko iñola al bada etsaya, Voz de Guipuzkoa asi dalako desafioka Pasaya, estropada au irabazteko ondarruatarrak azaya.

3.—Zemendiaren ogei ta bosta Santa Katalina eguna, amalau gizon probatuzeko señalatuta deguna, Getariatik Donostiara ez da jornada laburra, galduko ote da betiko fama asabetatik deguna.

4.—Ez gure fama galduko danik modu orretan pentsatu, aprobaturik askotan daude iñork nai ba du sinistu, ofizo ortan ondarrutarrak pruebak emanak ditu, premiyuetan irabaziak banderak ere ba ditu.

5.—Nere anayak, bentzitzia Pasaitarrak ez det uste, gure indarrak egun orretan baldin ba dira len beste, Ondarrutarrak deituko degu gogoz erri ta erbeste, daukagun dana apostatzeko gaudela zar eta gaste.

6.—Bardiñak dira treñeru biak berrogei ta bana oin luza, izar zuriak kostaduetan igual ¡gualak kituzte, korrikan ere diferentzirik daukenik ez det nik uste, aubekin ongi bien indarrak aprobaturiko dituzte.

7.—Guazen, bai, guazen Donostiara baita ere Getariara, sartu txalupan ¡txasokuak leortarrak kotxerara, auzo errietatik jente asko datar gu legez puntu oyetara, Ondarruatarrak, gananzioso behar dezute atera.

# ONDARRU TA PASAY

1888 urteko estropadetakuak.  
Desapioko estropadak izan ziran.

1.—Estropada bat dala motibo  
bertsuak biar ditut jarri,  
pasadizua esplikatzeke  
jakin nai duen danari,  
jokatu baño len oñain ta gero  
ames eragin dit sarri,  
orregatikan ango istoria  
klaro nai nuke esan nik.

2.—Lenengo desapiatu zuten  
oiek Bermeoko erria,  
zergaitik aurten ekarri dute  
Bilbotik fama andia,  
eta oiek nola ez bazuten  
Bilbon izan zan guztia,  
bizkaitar oiek bezela igual  
Gipuzkoako kostia.

3.—Egunak jua do egunak etorri  
kontestaziorik etzan,  
eta gure ustez bermeotarrik  
nimbait atrebitzen etzan,  
au jakin arte deskantsurikan  
iñola Ondarrun etzan,  
desapio au azetatzeko  
Kofradian tratau zan.

4.—Eldu zanian biaramun goiza  
laster jakin zan partia,  
emen zala Pasaia tarra  
Zarautzera etorria,  
guretzat ere ara zegola  
nunbait biderik erdia,  
komeni zata formalidadiz  
joko au zarratutzia.

5.—Amalau gizon portu bakotxak  
eta patroia atzian,  
gizonak duen abillidadiak  
egiteko lizentzian,

kondizivak jarri zituzten  
biak arrazoi andian,  
jokatutzeke urrengo illaren  
ogei ta bosgarrenian.

6.—Pasaian egin sei egun eta  
Getarian entregatu,  
txit kurioso molla gañera  
biak zituzten altxatu,  
bietatik bat komenentzia  
zeukaten zein apartatu,  
Ondarrutarrak utzitakua  
biariko zutela artu.


7.—Ondarrutarrak kanpotik ziran  
Pasaia kua barrendik,  
mutil maitiak, boga aurrera  
boga guziok gogotik,  
zazpi bapor ederrak or datoz  
guardian zuen atzetik,  
Klub eko jaunak zainduko zaitu  
tranze guzien erditik.

8.—Estropan parian jua ziran  
lenengo ordu laurdenian,  
andikan laster ogei txalupa  
diferentzia bazian,  
Ondarrutarrak beti aurrera  
bandera artu odian,  
naiz da Pasaia San Pedrokua  
urruan izan atzian.

9.—Ango patroiak ikusirikan  
zekarren diferentzia,  
pentsatu zuan tosta berrian  
bera birando jartzia,  
ori da amairu amalaun kontra  
garbiro irabaztia,  
ondarrutarrak naiago zuten  
konpasa dirijitzia.

10.—Larogei ta lau minutuetan  
egin da errekorrrira,  
diferentzia guzti guztia  
ogetamar segundo dira,  
legor tu itxaso milla personak  
asko egon dira begira,  
Biba Ondarru tu Biba Pasaba  
ederki portatu dira.

11.—Jokatu eta orra irabazi.  
orra bentaja atera,  
agur Pasaia, beste bat a rre,  
"Siglo"n bagoiaz etxera,  
asarrerikan batere ez degu  
len bezin adiskide gera,  
amoriozko tratamentua  
beriz nai neuke aurrera.



# AMBROSIO TA KARRIL EN ESTROPADAKUAK

1890

1. —Milla ta zortzireun da laroi ta amorrian, apustura bat izan degu arraunian, Bizkayan Ondarrua deritzan errian, bandera jartzen zuten eskilla torrian, inbenzible zirala Kosta Kantabrian.

2.—Gipuzkoano asko ori ikusita, izketa farmalian adierazita, pakea gendukela bandera jetxita, bizkaitarrak kontesta gaizki iritzita, % guk ori jartzen degu ondo merezita".

3.—Amalau Donostiar Luis patroï dutela, ez dirade unitu kuadrilla ustela, abisatu zioten biar dan bezela, bandera torretikan kendu dezatela, bestela jokatzeko planta zitezela.

4. —Karta ori artuta ondorean gero, bizkaitar oyek ziran izagarri bero, partidua zerratu digute aguro, esanaz "au sakuan daukagu seguro", depositatu dute milla bana duro.

5. —Zarautzen modu ontan egin da papera, batzuentzat mesedean bestien kaltera, beste kondiziyo bat nua esatera, Donostiarrak bear txalupak otero, Ondarruatarrentzat bietan aukera.

6. - -Fru legua eta gañera pikua, bideak neurtutzero juañ zan nautikua, gizonak probatzeko ba zuten naikua, trayetia izandua amar millakua, Zarautzen firmatu ta bertan sellatua.

7. — Partidua zerratu dute ondorean, indarra ta arronka bazan mingañean, jokatzeko denpora etorri danean, Bizkaitarrak atzetik gureak aurrean, Maixu diradelako uraren gañean.

8. —Batzuek penaz eta besteak gustuan askotab gertatutzen dana apustuan, itzegiten ari naiz gauza bidekuan, zenbaitek atsegin du aderki kaskuan, len Bizkayan ziranak orain Gipuzkoan.

9.—Aspaldian geldirik  
zeuden ontzakuak,  
orainguan ederki  
dira dantzatuak,  
mesede egingo diyo  
toko aldatuak,  
petxu lasayetak eta  
zain fiñatukuak,  
dira arraunlariak  
Donostiakuak.

10.—Ojuka ibilliak  
dira kalez kale,  
berdiñian ez bada  
botatzeko doble,  
Bizkaitar oyek zeuden  
izugarri noble,  
partidua galtzea  
ez dala posible,  
orain Donostiyari da  
bandera inbenzible.

11.—Bandera ta diruak  
ta gañera onra,  
Gipuzkoan dirala  
jakitea on da,  
partidua irabazi  
ta dirua kobra,  
orra donostiarrak  
egin duten obra,  
au urte batzuetan  
ez diteke borra.

12. — Esperantza gogorra  
zan bietatikan,  
baña batek bearra  
ez da dudarikan,  
nork esan jokatu dan  
kantidaderikan,  
etzat iruditutzen  
posible danikan,  
estudio gabeko  
gizonik nautikan.

13.—Asko gizonek daukan  
barrengo larriya,  
konsideratutzen det

dala izugarriya,  
eguzkia uste ta  
egin du arriya,  
baita zapaldu ere  
Ondarruko erriya,  
urte au izango da  
goguangarriya.

14.—Partidua jua da  
esan dedan gizan  
% au geuria da esanaz  
panparroi zebiltzan,  
oyen kontra bidean  
gugana etorri zan,  
gipuzkoano abekin  
beti bildur izan,  
arrauak asentatzeko  
ori komeni zan.

15.—Alkar probatutzeko  
zuten desiyoa,  
orain akabatu da  
oyen pasiyoa,  
gauza onak beti  
du estimaziyoa,  
irabazi duenak  
ostentaziyoa,  
gora Donostiyako  
tripulaziyoa.

16.—Adios Ondarroa  
eta bizkaitarrak,  
beste bat arteraño  
agur lagun zarrak,  
lanak egiten ditu  
trantzean indarrak,  
nekean galdutako  
juntura igarrak,  
mutil pizkorrek dira  
Joxemaritarrak.

17,—Minutu bat oso  
eta segunduak,  
aurretik etorriak  
bentaja kenduak,  
zuek izanik orren  
persona sanuak,



defetorik gabeko  
mutil lozanuak,  
zañik ez dute zuen  
juntura senduak.

18.—Ondarruan tristura  
Donostiarra poz,  
len galduen ordaña  
orainguak datoz,  
orra bertsuak jarri  
arrazoi al kasoz,  
nork bere tokiyetan  
gauden errespetoz,  
ez degu bizi biar  
alkarren gorrotoz.

19.—Antonio Sagastume  
Alegriakua,  
obeto jakiteko  
zintzarri errikua,

ontan akabatzen da  
nere predikua,  
esanik aztuan  
estropadakua,  
abenduaren biya  
jokatutakua.

20. —Azkenengo bertsua  
au ogeigarrena,  
onekin kunplitzen det  
artutako ordena,  
ez da lasai egongo  
askoren barrena,  
probata jakiten da  
zein dan a billena,  
orrela umiltzen da  
arro dabillena.

Antonio Sagastume, "Alegria" koak



# BERTSO BERRIAK

1 890 ko estropadetakuak

1. —MilFa ta zortzireun da  
larogeita amar urte  
abendubaren biya  
señaladamente,  
berso bi paratzeko  
enkargatu naute  
gure estropada eder  
au dala mediante,  
zer ausunto pasa dan  
esan bear nuke.

2.—Ogeita zortzi lagun  
treñeru biekin,  
gizon eskojitubak  
beren arraunakin,  
estropada egiten dute  
batak bestiakin  
jendiou nungua zan  
nai dubenak jakin,  
gipuzkuana zan  
biztaytarrekin.

3.— Lekeitiotik zuben  
estropadok salida,  
iru legua bide  
morkatubak dira,  
bazala nago zeñek  
arraunar tira,  
guztiyak ortakuak  
peleatu dira,  
gauza atsegifña zan  
oyeri beguira.

4.—Bizkaitarra asi zan  
bastante nekatzen,  
petxutik estututa  
indarra bajatzen.  
Luis potroya asi zan  
orduban mintzatzen,  
ya mutillok asi  
arraunak dantzatzen,  
jota paso ditsagun  
aurrera guazen.

5. —Luis egiten ziyoten  
txit modu onian,  
ya nere semiak  
egin arraunian,  
mutillak alimuan  
artu dutenian  
ogeira brasa bire bai  
golpe bakoitzian  
urik ikutu gabe  
txalopa aidian.

6.—Bestia duben ian  
atzetik ikusi  
mantendu arraun oyek  
bentaja oni eutsi  
etzan arriskatuba  
interesa gutxi,  
egun millo duro boi  
artu edo utsi,  
gure donostiarrak  
oTro irabazi.

7. —Egun gizon ba daude  
eskui to eskerrak  
estropon jokatzeko  
langille oskarrak,  
gastiak geldituta  
juan zoizkate zarrak,  
eztituzte ikusi  
arraunlari txarrak,  
donostiyako seme  
joshemaritarrak.

8.— Presiso eztira zarrak  
sasoi ondikuak,  
ogeita emezortzi urte  
andik berakuak,  
gizon indar aundiko  
markas fuerakuok,  
beren pulso fiñekin  
petxo onekuak,  
probintziyako seme  
Gipuzkuanuak.

9.—Bizkaitar oyek ere  
txit gizon fuertiak  
empeñatu dituzte  
abilidadiak,  
azkarrak dira bañan  
guriak obiak,  
ori deseo zuben  
emengo jendiak,  
denok tiratzen gaitu  
bakoitzak beriak.

10.—Patroyarentzat ba zan  
milla oparisa  
fin jokatuko zala  
eman zuben itza  
etzala mudatuko  
beste askoren giza,  
Luis Karril jarri da  
estropako giltza,  
askok nai ez du baño  
alperrik dabilta.

11.—Gipuzkoari eman,  
Bizkayari kendu,  
bere jendearekin  
prueba ona eman du,  
gizona portatu da  
ederki egin du  
bere onerikan  
etzuben nai galdu,  
ez diamanterikan  
kobre truke saldu.

12.—Tripulasiyo dana  
de jende berdiña,  
onek sendatu digu  
Gipuzkoan miña,  
ain da gizon zuzena  
leyala ta tiña,  
espiritu utsarekin  
bakarrik egiña,  
Jainkuak artarako  
apropos egiña.

13.—Donostiyak jaso du  
onoría franko

arraunian jendia  
abilla dalako,  
amaren sabeletik,  
datoz artarako,  
beren ofiziyorik  
eztute lagako,  
au da loteriya bat  
Gipuzkoarako.

14.—Bandera eskribituba  
dute erakutsi  
kosta kantabriyan  
daudela nagusi,  
estropa jokatuta  
degu irabazi,  
berak nai ornen luke  
Donostiyan bizi,  
berriz eskubetatik  
ez dezagun utsi.

15.—Tisiko gelditu zan  
guretzat bandera,  
medikuak juan zaizka  
bisitatutzera,  
enfermedade txar au  
biatela atera,  
iñori egiten ba da  
puska orren galdera,  
Donostiyara etorri da  
leku aldatzera.

16.—Laguntza eskatzen diyot  
Amabirgiñari  
aditzera emateko  
mundo guztiyari.  
Parfikulariki gure  
euskal erri oni,  
nola irabazi degun  
bandera eder ori,  
jardiñañ asitako  
loria dirudi.

17.—Amalau gizon formal  
beren desensiyon  
Luis patroí dutela  
daude kompañian,

tripulasio ederrau  
daukagu erriyan,  
nai bada errespetatu  
kosta kantabriyan,  
orra lumero uno  
jarri donostiyak.

18.—Geldituko ba giñan  
iñor ganatziyan,  
presisamente batek  
galdu biar zian,  
pakian bizi biagu  
Jaunaren garziyan,  
publikatzera nua  
Europa guziyan,  
zer jendia atera dan  
Kosta Kantabrian.


19.—Kantabriyako seme  
txapel txikidunak  
noizbait ikasi dute  
dantzatzen arraunak,  
gustiyak ezagunak,  
alkarren lagunak,

pakian pasa bitez  
gabak eta egunak,  
denak portatu dia  
biba euskaldunak.

20.—Orra ogei bertso berri  
jarri mundurako,  
Kosta kantabriyonen  
akuerdurako,  
memoriyan artuta  
iduki geroko,  
bosna sentimo daude  
paperak salteko,  
gizon miserable bat

21.—Biba Gipuzkoa ta  
Biba Donostiya,  
kanta abek firmatzeko  
daukat sententsiya,  
Francisko etxeberria  
da nere graziya

Francisco Etxebarria



# BERTSO BERRIAK ONDARROAKO ARRANTZALE BATEK JARRIAK

1898<sup>1</sup> ko estropadak

1.—Bertso berriak paratuzeko  
artu det pentsamentua,  
esan bear det nola izan dan  
estropadako tratua,  
laguntasuna eskatzen dizut  
Ama Antiguakua.  
zezen da garbi esplikatzeko  
ortxen pasatutakua.

2.—Gure txalupa askarra dala  
esaten ornen dirazi,  
pruebak onera ematen bada  
gaituztenian ikusi,  
kostrutore bat kaya gañian  
esanaz ornen zan asi,  
treñeru ori ez da izango  
kontxa onetan nagusi.

3.—Lendabiziko jllaren laua  
giñan jokatzuten asi,  
estropararik jokatzuten guk  
or ezkenduan ikusi,  
esaten zuten kostautik laster  
juango zirala igesi,  
baña kontxa ortan ikusi degu  
zein izandu dan nagusi.

4.—Esaten zuten illaren lauan  
ateratuzten duanak  
berriz zorzfian irabaztea  
izango ditula lanak,  
milla peseta eta bandera  
arrapatzen dituanak,  
meresi ditu probintziako  
eta Bizkayako famak.

5.—Urfebatian donostiorfan  
paratu dute bandera,  
orregatikan pentsatu degu  
etorritzia orrera,  
onoreko letra eder batzuk

jarrita dauska erdera,  
kofradiako benta etxian  
gordeta daukagu bera.

6.—Gure mutillak artzen zioten  
arraunai ondo tamaña,  
zeregatikan gertatu zaigun  
oso kuadrilla biguna,  
arraunlariak biskorrak eta  
patroya berriz txit oiña  
bestela nola eingo genduan  
guk egindegun azaña.

7.—Gure patrioiak arraunketa ona  
zigunian guri ikusi,  
Korajez laister ujuka guri  
atzeik zitzaigun asi,  
kontxa onetan gaurkuan zuek  
izango zera nagusi,  
orFa bogatzen egun gutxitan  
nola dezute ikasi.

8.—Santa Clama allegatuta  
deitu zigun espasio,  
mutil maitiak zuekin beti  
izaten nitzan fio,  
txapela eskuan artuta berak  
koraje batekin dio,  
auxen naikua dezute eta  
ez batere egin geio.

9.—Banderan buelta emanda gero  
brankas giñanian jarri,  
parrez atzetik asi zitzaigun  
begiratur mutillak,  
esaten zigun, arraunketa oyeak  
arfuagatikan sarri  
zubena da ta nasai boatu  
ez kasorik ein iñori.

10.— Lenbizikuan saspireun eta gero bandera ta milla, animaturik etorri giñan ara peseta oyen billa, kobardituta etziran egon Manuel eta duadrilla, esaten dute bota dirala saliran amaika milla.

11.—Ogei eta bat minutu eta sei segundo errekorrian, alaxen oyek markatu zuten juzgauan eta errian, tranparik gabe egin degu guk egun argiren erdian, alare sano gelditu gera miñik eztegu gerrian'


12.—Frabazita genduztenian banderakin ikusi, Donostiako andre batzuek burlaka ziraden asi, ze uste zuten juango giñala kanpora andik igesi, amak semiak badituena orain dezute ikusi.

13.—Gizonezkorik guretzako or etzaigu gaizki portatu, bandera ori irabastia egiñagatik gertatu, atso zar batek erretrato bat bentanan zuan paratu, ondra obia izango zuan ez baldun balu agertu.

14.—Arrokeririk bersoa bertan ez det batere botatu, bata bezela bestiak ere danok giñaden sayatu, ilion laukua eta zortzian biak zaizkigun gertatu, Manuel eta bere kuadrilla ondo ein dira portatu.

15.—Amabost bertso jarri ditugu tokatutzen dan legian, errematia eman nai diot adizkidetasun onian, patroya sano gelditu zaigu kuadrillarekin batian, akaso buelta egingo degu beste urtgeren batian.





## ESTROPADETA KUAK

**1902**

BIBA MANUEL BEITIA TA BERAREN  
KUADRILLA

txikia izanarren izan leike abilla,  
etzion ikututzen arraunekin gilla.

Santurtze, Elantxobe, Zierbanakuak,  
Armintza ta Bermio ta Oriokuak,  
baita ere ba ziran Desiertokuak,  
baña bitorioso Ondarruakukak.

Errege jauna Alfonso XFFF baporetikan  
begira

ikusi zuen nolakua zan txalupa orren  
salida,  
aldameneko ministruari galdetu zion  
segiran,

aber oiek nunguak diran, Ondarrutarrak  
dira.

Ondarrutarrak egiñak dira izugarrizko  
markia,  
arriturikan gelditua zan begira zegoen  
jendia,  
uran gañian orrenbestian arraunian  
korritzia,  
beste gauzarin ez da suter indarraren  
bentajia.

Kornetaren soñua genduen salida,  
makiñatxo bat jende zegoen begira,  
arraunari gogotik egiñikan tira  
Florak eraman zuan alango salida.

# BILBAO " KO ESTROPADETAKO KANTAK.

1. — Kontrario asko ikusiarren,  
ez dira bate sustatu  
Ondarruatarren asieria  
dabai zayote gustatu,  
aurretik asi ziran txalupai  
kostautikan pasatu,  
mutil abillak ikusi ziran,  
eziran asko nekatu.

2.—Oriotarrak etorri ziran  
irabazteko ustian,  
pentsatu zuen arraunaririk  
ezuala Biakaian,  
panparroi onek ibilli ziran,  
sosegau ezinik kaian,  
marka polita egin dute oso,  
Portugaletako playan.

3.—Ondarrutarrak eginak dira,  
izugarrizko markia  
arriturikan gelditu zan  
begira zegon jendia,  
uran gañian orrenbestian,  
arraunian korritzea,  
beste gauzarik ez da suerta,  
indarraren bentajia.

4.—Bermeotarrak arrazoyakin  
saiatu dira gogotik,  
sokakin lotu erramoa eta  
buelta emanak lepotik,


oyek ola probatu dira,  
ez dakit bada zergaitik,  
modu orretako sistemarikan  
ez da ikusi oraindik.

5.—Errege Jauna Alfonso XFFI,  
baporetikan begira,  
ikusi zuen nolakoa zan  
txalopa orren salida,  
aldameneko Ministuari  
galdetu zion segira,  
aber oiek nunguak ziran,  
oiek, ondarrutarrak dira.

6.—Bermeotarrak asi ziran  
edozer gauza esaten,  
alaxe ere aien ikaratzen,  
lendabizibo tiruarekin  
emango digu aditzen,  
atxekiarik ez degu biar,  
asi arraunak dantzatzen.

7. —Zazpigarren bertsoarekin  
akabatutzero jaunak,  
beste asko pasatuarren,  
ezin esplikatu danak,  
mundu guztiak emango ditu,  
merezki dituezten famak,  
ajola gabe uju egin zazu  
biba ondarroatarrak

(Jose Manuel Fmaz 'ek jarriak 1902)





# BILBAO<sup>2</sup> KO ESTROPADAKO KANTAK.- 1902

Premio onak dira aurtten Bilbon

jarri,

beti abiso zeuden ondarrutarrar,  
guzi bezela beste bizkaitar danari,  
izugarria zala bandera eder ori.

2.—Santurtze, Elantxobe,

Zierbanakuak,

Armintza ta Bermeo ta Oriokuak  
baita ere baziran Desiertokuak,  
baña bitorioso Ondarroakuak.

3.—Armintza ta Bermeo, lelengo

salida

ondarrutarrak listo, atzetik jarri da  
bi minutu bentajan , asiak ei dira  
Manuel banderara lenengo etorri da.

4.—Trenian legorretik, ziraren

etorri,

guk irabazikogu, esanez alkarri,  
mingañaz planta asko, gitxi  
arraulari,  
ezin segi zioten ondarruatarrari.

5.— Manuel Beitia, zu zera mutilla,

irabasi dituzuz, zuk iru batalla,  
animas juaten zera banderaren

billa

saiatu zera lasai, kontrario billa.

6.—Bizkaitak utzak ziran

anunziatuak,

bakarrik izateko estropadakuak  
baña tranpa etorri dira Oriokuak,  
ondra onian ez dira oiek geldituak.

7.—Gure aurretikan zan

Bermeotarra,

ikusiaz geroztik egin zuan farra,  
lepotik arraunera zeukan soka

zarra

ez dituzte atera, o sistima txarra.

8.—Milla peseta eta, gañera

bandera,

lenbizikoarentzat jarria zutena,  
bigarrena etzan milla, eta biak

atera,

irugarrena ere zuzen markatzia.

9.— Manuel Beitia ta Angel da

bestia,

irugarren patroia, da Bruno gaztia,  
jentia alegratu da, oiek ikustian,  
Bilbaon altze dezue zuek onoria.

10.—Amaike treñeru giñan Bilbaon


juntatu,

portu bat Bizkaitikan egin zan

faltatu,

entsaioan asita gero erretiratu,  
ez dakigu gizon oiei, zer zaien

pasatu.



TRAINERILLA

# 1902 KO ESTROPADETAN, ONDARRUTARREN KONTRA EGIÑIKO BERTSO BERRIAK

1. — Milla bederatzia eunerekin  
gañera beste bi une  
Kristo mundura jαιο zanetik  
asi ta orain bitarte,  
Bizkaiatikan Gipuzkoara  
egonagatik aparte,  
pentsatzen etzan itzegiteko  
bidia jarri digute.
2. —Ondarruatik etorri dira  
Oriora abisoak,  
ori edozeñek pentsa lezake  
ez dirala preziosoak;  
oso kontentu ornen dabilta  
ango agure ta atsoak,  
dana arrotu baño lenago  
jarri biazket bertsoak.
- 3.—Estropara bat premiyokoa  
Bilbaon izan meriyo,  
Ondarruako kuadrilla ori  
ez dogo oso seriyo;  
lenago aFtu etziran baño  
orain ornen dira iyo,  
bañon zertako esan tranpiyan  
ibilli dala Oriyo?
- 4.—Bilbaotikan gure billa zan  
jaun bat etorri propiyo,  
lenago ere franko azaña  
egiña genden meriyo;  
jonalagatik izandu gera  
ez giñan boluntariyo;  
biar bezela itzegin, jaunak,  
gezurrak eztu baliyo.
5. — Nola Oriyon dagon jendia  
oso indartsu ta bero,  
orregatikan estroparara  
mugitzen gera aguro;  
eman ziguten mantenua ta  
eguneko s<sup>g</sup>iña duro,  
gañera kanpo asko idusi  
kontentu gera entero.
- 6.—Ondarruako pasadizuak  
jarri nai ditut kantetan,  
asunto ori lastima baita  
bukatutzia batetan;  
oiek beñere ezin kabitu  
tokatutzen dan marketan,  
berak txapola luziagoa  
eraman zuten tranpetan.
- 7.—Txalopa ori eraman zuten,  
punta biyetan moztura,  
zer malezitan ibili diran  
ez gaude oso aztuta;  
eman dizkiten kuarto oiekin  
dabilta guztiz poztuta,  
bañon ala ere ez dira jarri  
bizirj aberastuta.
- 8.—Oriotarrak momentu arfan  
dantzatu zuten arrauna,  
lastimaz zuben danetatikan  
txaloparikan txarrena;  
ain zan ariña eta sinplia  
batela zirudiyena,  
bañon alare guretzako zan  
premiyoa laugarrena.
- 9.—Gure txalopa aieri eman,  
berena guri trukatu,  
galdetu giñan apustu bat  
nai ote zuten jokatu;  
etzuen iñork baietzik esan,  
ixilik ziran geratu...  
orain eztakit orretaraño  
zeñekin diran berotu.
- 10.—Beren tranpiko txalopa oiekin  
an ziranian ikusi,  
Bilbao aldeko jende juztiyak  
itzegin ziyen itxusi;  
begira zegon publiko dona  
fueraka zitzaien asi,  
beren tokira joan ditezela  
ostera andik igesi.

11.—Señalatuak berrogei ta bat  
oin jarri zuten luzian,  
bañon oriyek ezin kabitu  
tokatutzen dan klasian;  
beste guztiyak nastuziatik  
kasikan ara joan zian,  
bañon ez dute millonario  
aundirik sarta etxian.

12.—Oriorekin zer egiñikan  
etzenduten apustuan,  
kulparik gabe burla egiñaz  
jarri gaitu desgustuan:  
Ondarruako kuadrilla ori  
ari zaigu pretestuan,  
oiek gañako arraunlariñak  
ba dirade Gipuzkoan.


13.—Ondoren artan berak ziyoten  
nai zutela uniyua,  
bañon aguro mudatutzen da  
zenbaiten oponiyua;  
Gipuzkóaren kontra da beti  
gizon oyen geniyua,  
ardotarako gaña etzuten  
Bilbaoko premiyua.

14.—Jende guztiyak ba daki zer dan  
arto duten apustuba,  
oriyen bolsa betia año  
izan biar du ustuba;  
amazazpi milla errial artu  
sei milla pezta gastuba...  
txalopa ortako soziedadia  
laister da aberastuba.

15.—Azaña ori egin dutela  
ez da oiekin atsegin,  
guztiyen buru berak daudela  
egiten dute otsegin;  
seguru uste zuten denboran  
zuten len ere utsegin,  
obe dezute Gipuzkoari  
errespetoan itzegin.

16.—Amaseigarren koplá onetan  
nijua errematera,  
Ondarruako mariñelentzat  
orra bertsoak otero;  
iñork erosi nal balituzke  
saltzeko daukat papera,  
arreglatuko gera tratuban,  
etorri eramatera.

(Juan Bautista Urkia Portu,  
"Gaztelu" Aginagakoak)  
Fmprinta de Martín, Mena y Cía.



# ASMO ONAK, GERTAERA TXARRAK

1916 ko estropadak

1. — Milla bederatzireun  
ta gero amaseyan  
Agorraren iruban  
izan zan Donostiyan  
paperetan jarririk  
juan dan aspaldiyan  
preparatubagatik  
nork bere tokiyan  
egunaren erdiyan  
jende asko guardiyan  
danok inbiriyan  
ori bagenekiyen,  
zein zan geyena jakin nai  
kosta guziyan.

2.—Lenguan etorri zait  
enkargu bat neri  
bertso bi jartzeko  
kuadrilla oyeri,  
Donostiya, bi Pasai,  
Zarauz eta Getari,  
premiyoric onena  
eman Oriyori.  
Ainbeste komeri  
batak bestiarj,  
inkurriyo ori  
gezurra dirudi,  
danak eragin diye  
lengo markari.

3.— Kuadrilla ederra da  
Oriyon azaldu  
Manuelek mutillak  
ditu apartatu,  
sayuak maiz egin  
ondo gobernatu  
kontu artzalliekin  
goiz goiz oyeratu  
txin ondo mantendu  
alegiña lagundu,  
ezer ere ez kendu,  
ederki egin du  
orreatikan premiya  
berak eramandu.

4.— Lendabiziko biyak  
Getariyarako  
itz ori zabaldu zan  
asi ordurako,  
munduban pasatzen da  
zenbait orrelako  
baña zer gertatuba  
askoz ere okergo;  
erronka bol franko  
ez obe dalakoren  
gutxi bestentzako  
asko berentzako  
arrazoi ederra zan ori  
gero esateko.

5. —Treñero Elkano dala  
txit kuriyosua  
egatzi bat dirudi  
ain airosua,  
baña donostiarrak  
aurrera pausua,  
Olaizola berriz  
donen gurasua  
apenas mantsua  
gizon gustorua  
sustantzi osua  
ez orgullosua  
atzian gelditu da  
oyen usua.

6 —Iloren amarrian  
dirade plantatu  
Donostiya ta Oriyo  
berriz armatu  
oitura dan bezela  
txalupak trukatu,  
goizetik egualdi txarra  
zitzagun azaldu,  
ostalariyak kontentu  
digute lagundu  
piska bat mantendu  
asko samar kendu,  
artako daguenak  
ori egiten du.

7. — Lendabizi kondiziyuak  
ondo irakurri  
nork bere balizetan  
urrenajarri,  
Oriyoko txalupa  
aundiya izugarri,  
gizon txikiyak askar  
ori nola ekarri  
begira giñan jarri  
bat aurrera korri  
genduban igarri  
etzirala elbarri,  
ijituak saltoka  
zaizkigu etorri.

8.—Astelenian danak  
meza nagusira  
funziyuari eman  
zayo segira  
pormal egin dute  
elizako jira  
gusto artu dutenak  
amaika badira  
jakin da segira  
ez izan kupira  
batzuben egokira  
bestiak oker dira  
gure oriyotarrak  
portatu dira.

9.—Arratsaldean berriz  
erretratistarekin  
Manuel jarri dute  
bost banderarekin  
aingeru bat bezela  
plazaren erdiyan fin,  
errespeto ederrian  
bere kuadrillakin  
treñerarekin  
nor bere arraunakin  
gizon bat berekin  
obeto izan zedin,  
Getariyan pentsatuba  
Oriyon da egin.

10.—Gero berriz egin dute  
beste banketia  
zortzigarren egunian  
erbi-jatia  
gizon batek pentsatu  
zuben ematia  
duda gabe izango zan  
oso amantia  
kuadrilla ark maitia  
zalako fuertia  
gañera es koardia  
txit balientia  
gertatuko zitzayon  
irabazia.

11.—Juan dan urtian Oriyon  
galera aundi yak  
paperan beintzat ala  
ziran jarriyak uste det bueltak ere  
dirala etorriyak  
egundaño gauza onik  
ez arrokeriyak  
orra komeriyak  
gaude igarriyak  
aurten irabaziyak  
jaunari graziyak  
ordañetan izaten dira odolkiyak.

12.—Oraingo majuba juanda  
Oriyo aldera  
noiz nai ez da izaten  
orrelako era amalau milla errial  
dirutan atera  
urrezko medalla eta  
sedazko bandera  
trabesak gañera  
guztiyak batera  
izan da aukera  
egin da kostera  
azer neguba aurten  
sano izaten bagera.

# BERTSO BERRIYAK, TXIRRITAK JARRIYAK

1916 ko estropadei

1. —Bertso berriyak jartzera nua  
euskera eder batian,  
kulpa gabeko jente umillak  
lotu gaituzte katian.  
Gu askok autan ibilli gaitu  
tabernetan da kapian,  
tximillu txar bat asi da artza  
artu nairik ankapan,  
bazar guztiyak nastuko ditu  
uzten bazaio pakian.

2.—Liburutikan letuta dakit  
Getari zerbait ba zala,  
zenbait tokitan presentatua  
mudatu gabe azala,  
biotz oneko jende ondradu  
prestua ta serbitzala,  
lareun urtian eman diona  
Kantabriari itzala;  
zuek Oriyon zein dezute guk  
emen Elkano bezela?

3.—Asarratzeko ainbat badegu  
zerbait inporta zaganak,  
kopeta illun jarriko degu  
sentimenturik degunak;  
gu mendeaturik egin dituzte  
esplikaziyo legunak,  
gaizki esaka ixildu gabe  
arratsak eta egunak,  
eskerrik asko, begi okerra  
eta dituzun lagunak.

4.— Indartsua ta korajetsua  
beti izan da Oriyo,  
niz ez det inñor bera jetxi nai,  
al dan guziya gora iyo;  
bertsuak jarri dituztelako  
gaude pixka bat seriyo,  
bi erri autan artu gaituzte  
txaboi bat dala meriyo,  
obrak begiyen bistan or daude  
gezurrak ez du baliyo.

5. —Aita Elkanon seme maitiak  
gure eeriko personak,  
Españian da Franzian ere  
guztiyen buru izanak;  
garai arretan umil ziraden  
orain arro dabiltzanak,  
oraindik danak ez dira illak  
denbor artako gizonak,  
mundu guziya bildurtu zuben  
Getariyaren izenak.

6.—Amalau gizon arraunlariyak  
beren txalupa ta guzi,  
ez det kuadrilla bizkorragorik  
itxas gañian ikusi,  
illabetian iru batalla  
zituztenak irabazi,  
emen ezikan Bayonan ere  
Getariya zan nagusi;  
orain bertsuak orFa jartzia  
guk ez genduben merezi.

7. —Kulparik gabe jarri dizkigu  
begi okerrak bertsuak,  
inposible da lau zientziak  
ote dituen osuak,  
orren kontuak getariarrak  
ongi dauzkagu jasuak,  
beti gureztat azaltzen dira  
endredadore batzuak,  
indar gutxiko bularra zuben  
ura azi zun atsuak.

8.—Zelebria da kulparik gabe  
jarri diguzun disputa,  
ze adelantu espero dezu  
okasiyua piztuta?  
Zure kontuak getariarrak  
ez daukazkigu aztuta,  
guri bertsuak jarri ta saltzen  
sos batzuekin poztuta,  
zer nai orlako erdi txoruak  
juziyorik eztuta.

9.—Jai-goiz batian ikusi nuben  
Zarautzera etorriya,  
pranko altutik mintzatutzen zan  
ona zeukan eztarriya;  
arrazoi gabe desonratu du  
pakian daguen erriya,  
toki onian allegatu da,  
artuko zaió neurriya,  
gogotsua da kantatzen baña  
jakinduriyaz urriya.

10.—Guri berfsua jarfzia orrek  
egin du pranko itxusi,  
iñoren ere lizentxi gabe  
gero kantatzen zan asi;  
Zarautzen nota portunatu zan  
neronek nuan ikusi,  
bi aguazillak kargu artuta  
bere papera ta guzi,  
preso sartuko ez baldin bazan  
larri juañ zan igesi.

11.—Tokatzen ez dan gauza txar asko  
guregatican esan du,  
aurten atzetik etorri arren  
ezkero txarrak izandu,  
kulparik gabe kantak jarfzia  
jendiak damu artzen du,  
guztuyen buru balitz bezela  
erri guziya sartzen du,  
ez nuen penik zerbait azaña  
zerorrek egin ba zendu.

12.—Oriyo ere gelditu ezan da  
aurten gu gauden moduan,  
Getariyatik etzan bertsorik  
aiantzat izan orduan;  
gorroto txarrik ez degu baño

lengo kontuak goguan,  
eskuetako arraunak ere  
jokatzeko eman ginduan,  
ongi egiñak gaizki askotan  
pagatzen dira munduan.

13.—Kontrariyoric gabe egondu  
giñan amabi urfian,  
emen da Bilbon,ta Baionatik  
San Juan de Luz bitartian;  
gure atzetik segitu eziñik  
asko zebiltzan neokian,  
desafiyuak izaten dira  
projimuaren kaltian,  
errespetua guardatu zuben  
Zirilo zebillen arfian.

14.—Berfsuen bidez emen jendiak  
pena pixka bat artzen du,  
eskarmentua ikustiak bat  
juiziyuan sartzen du;  
bera aldrebek dabilen batek  
martxa guztiya galtzen du,  
au aditu ta Zirilo zarrak  
bere koleran esan du;  
"Oriyotarra paore baizik  
eztiyet egin izandu".

15.—Etsai gaiztua saiatutzen da  
justuba tentatutzeko,  
motiborikan asko izan da  
gu eskarmentatutzeko;  
aiek etzuten eskubiderik  
gure konduta galtzeko,  
ordena nuben bertso oriyek  
paperan piantatutzeko,  
Santa zarrak eta Zirilok  
jaietan kantatutzeko.

# BERTSO BERRIYAK ANTONIO ELIZALDEK JARRIYAK

1919

1. — Donostiyatik Oriyorako  
bertsuak dituzte jarri,  
Bilbaon zerbait egin dutela  
arro dira izugarri  
suertez irabazi duena  
guziyok degu igarri,  
txalupa berdiñakin jokatu  
nai ba dezute, etorri.

2. —Agorrillaren zazpiyan giñan  
Kontxan jokatzan abitu,  
Donostiyako bati arrauna  
ausitzia egokitu,  
berriz jokatu gabe orduan  
iñola ezin kabitu,  
orain guk desafiyo eginda  
ikaratuta gelditu.

3.—Bilbooko estropada eginda  
ojak zabalduzen asi,  
oietan zegon "gaur Kirikori  
iñork ezin irabazi",  
txalupa berdiñakin ezgera  
bear bezela ikusi,  
ez esan zuek zeratela orain  
Kantabriyako nagusi.

4.—Nere lanakin arrazoiakin  
eman nai diyot segira,  
kosta guziko arrantzaliak  
jarri zaitezte begira;  
txiripazko premiyo orrekin  
ixildu gabe ai dira,  
oik baño arraunlari obak  
Kantabri ontan badira.

5.— Bertso oietan jartzen dīgute  
ondatu dala Oriyo,  
oiek ez bezela guk erriya  
aspaldiyan degu iyo,  
berak biartu gaituztelako  
egin zaie desafiyo,  
pozik jokatuko zuten baldin  
egon ba ziraden fiyo.

6.—Geiena zein geran ikusita  
ori bear zan bukatu,  
oriyotarrak arraun lanian  
berriz nai zuten nekatu,  
Donostiar da Zumayarrakin  
bear genduen jokatu,  
paperetan gezurrak jarrita  
biyak digute ukatu.

7.—Gizon oiekin gu jokatzeko  
jarri giñan beriala,  
bildurtu ez ba ziran uste dot  
nik etorriko zirala,  
Zumaiatikan esan digute  
txalupa igual dirala,  
ori sinisteko ez pentsatu  
orren txoruak gerala.

8.—Patroiakin muturka gaudela,  
ori gezurra sortzia!  
nunbait pentsatuko zuten oiek  
guri neurriyak artzia,  
zer dala uste dezu ez diran  
gauzak paperan jartzia?  
Orrelakuak merezi luke  
presidiyuan sartzia.

9.—Txokolate bera jatxi naian  
daude kopetak beztuta,  
zenbat irabaziyak dituen  
al daukazute aztuta?  
Amabi saiotan bat besterikan  
oraindik galdu eztu-ta,  
orren arraun soñura guziyok  
egoten giñan poztuta.

10.—Entierrua egiten biziyai  
ibillera itxusiyak,  
ori gaizki dagola diyote  
persona formal guziyak,  
umil askorik Kontxa aldian  
daduzkagu ikusiyak,  
gu gerade jostatzen oieri  
nolanai irabaziyak.



11.—Oien izketa gure artian  
dago ederki jasua,  
ez al zazute akordatutzen  
lenagoko erasua?  
iru urte da artu zutela  
izugarrizko mazua,  
negarrez egon ziran orduban,  
etzuten egun gozua.

12.—Orduban zer izan nuen orain  
nago adierazteko,  
tostan ezin ondo kabituta  
arraun lanian asteko,  
gizon petrak batek esan zuan  
serrakin anak mozteko,  
ez al zan inor ari orduban  
bizkar ezurra austeko?

13.—Erri txiki au menderatzeko  
Jose Martitarren grina,  
Oriyon daude arraunlariyak  
ba dira oientzat diña,  
gaizki eska jardun dirade  
guretzako alegiña,  
lengo epurdikuak sendatzen  
badaukate zer egiña.

14.—Banderakuna egualdi txarra  
go zetikan izugarri,  
arratsaldina jokatu zala  
esan giñiyon alkarri,  
Jose Maritar oiek gelditu  
ziran oso lotsagarri,  
teatrorako funtziorikan  
orduban etzuten jarri.

15.—Donostiyako kaie onduan  
juan dan igande batian,  
Kirikoren azañak kontatzen

arrabtzalien artian,  
gizon batek esan ziyen: Egon  
au aditu bitartian,  
bandera bat besterikan ez du  
ogei eta sei urtian.

16.—Bear ez diran kontuba franko  
aditu da oiengandik,  
paperetan aitzaki asko ta  
jokatu nai ez inondik,  
emeretzi urtian bitan bestetan  
ez degu galdu emendik,  
Oriyon ba da indarra eta  
abildadia oraindik.

17. — Mapatik iya borratu zala  
esten digu erriya,  
ori jarri zuana burutik  
egongo zan elbarriya,  
baña Oriyon dago bandera  
pilla ikaragarriya,  
ta urrezko medalla ederra  
Biarriztik ekarriya.

18.— Emezortzigarrengo bertsua  
orain nuan esatera,  
nere kistabak, galdetze-izuet  
gezurrik jarri ote da,  
Donostiar da Zumayarentzat  
orra nik kantak atera,  
lenguen ordañak ikasteko  
artu zazute papera.

1919 ko agorrillaren 7 an egin zan estropada

Fru treñeru ziran eta onela gelditu:

- 1.—Orio.
- 2.—Pasai San Pedro.
- 3.—Donosti.

# MILLA BEDERATZIREUN ETA OGETABATEKO ESTRO PADAK

(Bertso onein eglllea, Juan Jose Sarasola, Lezokoa, dala uste da')

1. —Milla bederatzireun kunpliturikan

ogei ta batian aurten  
arraunlariyak probatu dira  
zenbat talentu daukaten;  
oien bertsuak ateratzeko

nola agindu diraten,  
gaizki andirik itzegitia  
eztit goguak ematen.

2. —Agoztoaren ogei tabatian

modu egoki askiyan  
zazpi txalupa jokatu dira  
estroparan Donostiyari:

alegiñian sayatu dana  
zertako artu gaizkiyan?  
oietan aiña fama duenik  
ezta Gipuzkoa guztiiyan.

3.—Bi igandetan jokatu ziran

au ion lenengo saiva,  
diru askoko premiiya zan  
entzuten desafiiya;  
ontzi bakoitzak amalau gizon  
tripulaziyo jaiva,  
beti urian peliatzen da  
itxasorako jaiva.

4.— Pasaia Antxo eta Getari

Zumaya, Ondarrabiiyak,  
Jose-Maritarra ta Oriyo  
ziyoten estugarriyak,  
danetan gizon balerosuak  
probatzera etorriyak,  
kalte aundirik eztu izandu  
Donostiyako erriyak.

5.—Orain bezela alkar artuko

baluteke bi Pasayak,  
obe luteke patrioiak eta  
orduho txalupa zaiok;

auzo erriyak, etzaitezela  
izan alkarren etsaiak,  
amistadetik pasatzen dira  
egun batzuek lasaiak.

6.—Markik onena Oriyok zuen

Pasayakua bi garren,  
irugarrena Donostikuo,  
Getarikua laugarren,  
bostgarrengo Zumaiakua,  
diferentziyan alkarren,  
bestiak ere portatu dira  
aik año egin ez arren.

7. —Bost oyek beren irabaziya

jaso dute lenbiziko,  
lau onenaren bi garren prueba  
illun ogei ta zortziiko;  
ta beste biyak deus eman gabe  
etziran noski utziko,  
berak obiak gerta litezke  
emendik urte gutxiko.

8.—Bitorioso nai duten danak

alkarrentzat kontrariyo,  
bildurrik gabe datorranari  
alare inporta diyo;  
beren txalupa ganbatiyak  
trastornatzen du Oriyo,  
pazientziya artu bearko  
gauz ori dala meriyo.

9.—Lenbizikuan lenengua ta

bigarrenian azkena,  
ustez seguro zegon jokua  
galtziak ba du bost pena,  
itzez ta obraz ezagutzen da  
ballientiak zoaztena,  
alare ezin esan liteke  
oberik iñon eztena.

10.—Kosta guziyan itxas gizonak  
izanagaitik fijuak,  
erri danetan aman semiak  
bai daude anka bikuak,  
Jose Monitor obek ez daude  
nolanaiko mutikuak,  
famatuenan marka pasota  
aurrera Donostikuak.

11.—Orretarako amaiketari zan  
batelaren apostua,  
gero txalupa preparatzia  
iñork etzaukan aztua,  
aberatsaren boltsillotikan  
eragiten da gastua,  
lege zarreko funtziuetan  
norbaitek ba da gustua.

12.—Beren balizan nola prestatu  
jariyak zeuden kontuan,  
konpotik berriz beti bezela  
iru millaka puntuan,  
ogei minuto sei segundokin  
ta gañera lau kintuan,  
atze aurrera indako markak  
Pasayakuak zituan.

13.—Nola lenago artuak ziran  
oyek beren mereziya,  
zazpi milla ta bosteun peseta  
zuten oraingo graziya,  
bi milla eta berrogei ta amar

duro da kontu guziya,  
premiyua oiek eta bandera  
Pasaia irabaziya.

14.—Kontxatik eta kaie aldetik  
zetorren alaitasuna,  
bakoitzak bere alderdirako  
beti degu naitasuna,  
itxasoz eta legorretikan  
nola izandu dan sona,  
publiko dana juzgatu dute  
ogei bat milla persona.

15.—Trabesagatik jente artian  
izan da zenbait atake,  
disputarikan ez izatia  
geienak obe luteke,  
famiyaren kalte ezтана  
disimulatu liteke,  
danak esaten asi ezkeru  
kontu geiegi niteke.

16.—Biba Antxo ta Ondarrabiya,  
nai zaituztegu gora iyo,  
biba Zumaia, zureztat ere  
badaukagu amoriyo,  
biba Pasaia ta Getariya,  
Donostiya ta Oriyo,  
aurtengo fama jaso bezote  
tokatzen zayon meriyo.

(Imp. J. Díaz - Irun)



# BERTSO BERRIYAK, DONOSTIAKO ESTROPADARI JARRIYAK

Pello Zabaleta  
1922 urtekoak

1. —Milla bederatzireun  
eta ogei ta biyan,  
gañera Agorreko  
iHan beatziyan,  
Elkano onratzera  
Kosta Kantabriyan  
ogei milla persona  
nere iritziyan,  
estropasa ikusten  
ba zan Donostiyan.

2.—Zazpi txalupa ziran  
or apuntatuak,  
aurtengo estropadan  
jokatutzequak,  
Bizkayatik bakarra,  
sei gipuzkoakuak,  
Ondarrabi, Pasaya  
bi Donostikuak,  
Zumaia ta Santurze  
ta Getarikuak.

3.—Plaian juntatu ziran  
juraduengana,  
suertia botzera  
au lenengo lana,  
Bizkaiako Santurze  
den da aurrena,  
Getariya bigarren,  
Pasaya urrena,  
Ondarrabiyakua  
gero laugarrena.

4.—Juraduak salida  
oiei emanikan,  
Getariya sartu da  
danen aurretikan,  
Pasaitarrak an zitun  
laister ondotikan,  
gero Santurtzetarrak,

gogor jogatikan,  
Ondarrabitarrakin  
etzun arronkikan.

5.—Oiek allegatuta  
berriz jokatzeko,  
iru txalupa zeuden  
elkar probatzeko,  
bi Donostiyakuak  
etzeuden galtzeko,  
Zumaia ere firme  
peleatutzeko,  
al ba zan Getariyan  
marka borratzeko.

6. — Soterotxon mutillak  
jo dute gogotik,  
bandera jokatzeko  
geld itz laga itik,  
arrauna dantzatuta  
sartu da aurretik,  
gero Bizkon kuadrilla  
gaztia ondotik,  
irugarren Zumaia  
oriyen aizetik.

Soterofxo, donostiarren patroia zan.  
Bizko, donostiar beste kuadnllarena.

7.—Getariyak markarik  
onena zubela,  
Donostiya ta Pasaia  
berdin ziradela,  
zein banderako berriz  
joka biar zela,  
juraduak itzegin  
omen zuan ala,  
bañan jendiak diyo  
posible etzala.

8.— Berriz jokatu dute  
urrengo jayian,  
juraduak jarrita  
biyak arrayian,  
baldin ba zeuden ere  
probatu nayian,  
seis segundoz Pasaia  
sartu da aurrian,  
geiago diralakoz  
aurten arraunian.

9.— Pasaia biar zuen  
bandera jokatu,  
aguro aitzakiya  
ziyoten plantatu,  
Donostiyak galizia  
etzae gustatu,  
tranpetan bedenikan  
bandera nai artu,  
argatikan zituzten  
deskalkifkatu.

10.—Au da Donostiarren  
protesta guztiya,  
Pasaitarrak zutela  
lagun bat berriya,  
bañan sobra zekiten  
etzala egiya,  
baizik baten izena  
alrebes jarriya,  
enteratu etzedin  
bere familiya.

11.—Juraduak argatik  
ditu kastigatzen,  
bañan oinbesteraño  
merezi etzuten,  
bere burua eztu  
askorik edertzen,  
mutil gizarakuak  
alperrikan lertzen,  
ori egitekotan  
ez utzi jokatzen.

12.—Arraunian etziran  
alperrikan asi,  
zenbat lan egin duten

ez el da ikusi?  
Alare premiyorik  
gabe daude utzi,  
nekiya beste gauzik  
ez du irabazi,  
Pasaitarrak etzuten  
aurten oi merezi.

13.—Frabazi duenai  
kendu ganantziya,  
ori arrapatzen det  
gauza itsusiyaa,  
Arrillagan kuadrilla  
onrak mereziya,  
bañan egin diote  
nai duten guziya,  
Pasaia fueratu ta  
sartu Donostiya.

14.—Danak dira pizkorrak  
eta indartsuak,  
bañan oriya lanak  
gaizki juzgatuak,  
zeñek dituen kulpak  
daki publikuak,  
ez gera inozente  
engañatzeukuak,  
estropada lkusten  
izandutakuak.

15.—Berak faltatzen dute  
juan dan aspaldiya,  
nonbait oien legiak  
ez daude neurriya,  
besterentzako jartzen  
saiatu erriya,  
banderak irabazten  
dituzte tranpiya,  
kontzientzirik ez da  
orlako tokiya.

16.—Orain dala bi urte  
oien aziyua,  
Kirikok égin zuen  
falta aundiya:  
Zumayan baliza sartu  
enbarkaziya,

bañan oientzat beti  
erremed iyua,  
lotsa gutxikin jaso  
zuten premiyua.

17.— Reglamenteu bat ba da  
juraduak jarriya,  
kanpotarrei artzeko  
ederki neurriya,  
etxeuak libre egin  
nai duten guztiya,  
biar bezela egin  
balitz justiziya,  
banderikan gabe zan  
aurten Donostiya.

18.— Saltsa edo aitzakiya  
badute betiko,  
onra aundirik ez dute  
orFa irabaziko,  
urtero bandera nai  
dute Donostiko,  
naiz dala Soterotxo,  
igual Kiriko,

ez dira Pasaitarren  
nagusi jarriko.

19.— Donostiko koskero  
arraunlari azkarrak  
kosta guziyan uste  
dirala bakarrak,  
ederki probatuak  
dirade indarrak,  
saiatugatikan  
Joxe Maritarrak,  
aurten nagusi dira  
gora Pasaitarrak.

20.— Ogei bertso berrikin  
nere esplikaziya  
aurten pasatu darlo  
gauza seriyua,  
irabazi duenai  
kendu premiyua,  
gastuak pagatzeko  
zer alibiyua,  
bandera biar zuben  
tripulaziya!

Tip. Valverde-Renteria



(Kiriko, Donostiko patroiz izan zan)

(1.000 bertso paper atara ta egun berian saldu ei zitun Pellok Errenderi ta Pasaian. Paper bakarra gelditzen zaiola, ondarrutar bat urretatu ta bosteun eskatu Bakarra emon eta nai ba eban berak atarateko esan eta alaxe, ondarrutarrak be inprentan atara el zituen bertso oneik).

## GORA ORİYOTARRAK

1923 ko estropodak

1. —Donostiyan jokatu dirade estropa ikusgarriyak, orregatikan nua oyeri jartzera bertso berriyak, geren denporan oyen izango dira goguangarriyak, zergaitik aurtin egin dituzten marka ikaragarriyak.
2. —Bost txalupetatik iru ziran jokatubak lendabizi, Donosti, Getari ta Bermeo aurrena ziraden asi, Elkanotarrak bentajarekin etzijuazen itxusi aurrera pasota Jose Mari tarrak ziyen irabazi.
3. — Oriyo eta Pasayakuak bigarrengo Juan ziran, alegiña egin gabetandik bide orretan etzian, San Nikolasen seme leyalak aurretikan jarri zian denporarikan gutxiyenian oyek etorriyak zian.
- 4.—Oriyotarrak bost txalupetan etorri ziran aurrena, donostiarrak bigarrengo ta Pasaya irugarrena, iaugarrengak Getariarrak Bermeo zan bosgarrena, jendia eramateko au da festarikan ederrena.
- 5.—Bigarrenguan Posayatarrak ziran Getariarrakin txalupak trukatuta jokatu bear zuten alkarrekin, Sanjuandarrak erraz ibili dira treñero orrekin, gañera irabazi diyote bentaja aundiyaekin.
- 6.—Azkena jokaturako biyak Donostiya ta Oriyo San Nikolasko erriya aurtin gora nai ziguten iyo, errespetuan ibili dira irabazi arren seriyo, oriyotar danak pozak gaude oyek dirala meriyo.
7. —Donostiarrak banderakuan gallen ziranian jarri, Gaztelualdeko jente ayek arro ziran izugarri; baña Oriyo aurretik zala laister ziyoten igarri, umil askorik goitikan bera gero ziraden etorri.
- 8.—Lenago egindako azañak nai ditut adierazi, oroyotarrak donen aurrian askotan dira ikusi; orain baño len sei txalupar erraz ziyen irabazi, aurtin berriz bostetatik berak gelditu dira nagusi.
- 9.—Apusturak ematen ba daki askori eztuasuna, galtzen duenak berekin dauka barrango tristetasuna, sei banderakin oriyotarrak daukaten alaitasuna beste lekutan non ikusten da orlako edertasuna.
- 10.—Batzuek poltzak betiak eta bestiak berriz uztubak, irabazitzen degun orduban egoten gera poztubak, arraunlariyak ondo egiñak ez daduzkate aztubak, janda eran lasai eman zioten Ayako gizon prestubak.

11.—Erri ta erbeste irabaziya  
izanda askorentzako,  
gorrotorikan ez dadukagu  
batere iñorentzako,  
bi premiyo aundi ta bandera  
aurten Oriyorentzako,  
ta urrenguan akaso berriz  
Josemaritarrentzako.

12.—Konbiatuta Aginagara  
San Frantzisko egunian,  
janda edan ederki egin dute  
aran Juan diranian,  
arrauntariyak andik aurrera  
oso umore onian,  
orra zenbat egiten diyoen  
irabazi duenian.

13.—Donostiarrak zerbait aurretik  
ginduenian ikusi  
Oriyotarrari Bakeriza  
kiñuka zitzaien asi,

uste zuen patroi orrek berak  
aurten ziralanagusi,  
banderan buelta eman orduko  
Oriyok zituben ausi.

14.—Lengo zarrak bezela portatu  
zaigu kuadrilla gaztia,  
Oriyo askok nai izatendu  
estropetan ikustia,  
Olaizolak bost bandera ta  
aurten Urangak bestia,  
edozein moduz erri aldera  
oyek ekartzen eztia.

15.—Oyen barrenak lasayak daude  
eta indarrak biziyak,  
arraun lanian ederki dira  
gaztetatik ikasiyak,  
oyek gantikan diruba franko  
ba dira irabaziyak,  
gora Antonio Maria Uranga  
ta arraunlari guziyak.





# BERTSO BERRIYAK

1923 ko estropadak. (Getariarren alde)

1.—MilFa eta bederatzireunda  
ogeita irua  
lenengo estroparan  
zegun girua  
ebirik atertzen ez  
naiko deskuidua  
bañon pagatutzeko  
oyen sentidua  
Donostiko erriak  
ba zuen dirua.

2.— Lenengo asieran  
Agorrak amasei  
egualdi zikiña  
ibiltzeko lasay  
Bermeo eta Getari  
Oriyo eta Pasaj,  
Donostikuak ere  
irabaziyan zai,  
orla sayatzen danak  
ez al du arrasoy.

3.—Amaika terdiyetan  
astekuak zian,  
bañon geroxeago  
denbora pasian  
kontxako balisetan  
arrimatu zian  
kanpokoen neurriya  
lenengo klasian  
itxaso ona san baño  
danak busti zian.

4.— Donostiya eta Getari  
Bermeo bestia  
irurok tokatu da  
lenbizi astia.  
Gayenak baliente  
kuadrilla gastia  
Pasaya eta Oriyo  
eskasak ez dia,  
oyena zan bigarren  
prueba ikustia.

5.—Lendabiziko markan  
Oriyok irabazi,  
gigarrenguan ezta  
gelditu itsusi,  
egin biar danian  
eten edo ausi  
bestiak ezin zuten  
oyek aña grasi,  
gauzik presisuenak  
naitut adierasi.

6.—Berrogeita iru segundokin  
emeretzi minutu  
segundo batez lenago  
Oriyo geratu  
konpondu eta besteren  
txalupa mudatu  
eskatutako gauzak  
zaiskiyo eratu  
ortan Donostiyari  
diyote pegatu.

7.—Bermeo gelditu da  
estadu txikiyan,  
probatu arteraño  
nunbait etzekiyan,  
kejarik ez daukagu  
oyen aitzakiyan,  
garbi portatu dira  
kariño propiyan,  
onrra merezi dute  
dabiltzan tokiyan.

8.—Eman diyotenian  
beren meresiya  
bost milla errialda  
artu duten grazia,  
lastimaz egun artan  
beste desgrasiya  
baforia galduta  
gizonan bisiya,  
ala biarrekua  
suerte guziya.

9. —Lau onenaren prueba  
utzi zan geroko,  
Agorreko illaren  
ogeitairurako,  
igande artan ere  
denbora durako  
Donostiya ta Oriyo  
zeuden banderako,  
bañan suspenditu zan  
aste azkenerako.

10.—Aste azkenian berriz  
itxaso gaiztua,  
nola nai jokatzeko  
peligro estua,  
amabost aldi batez  
luzatu gaztua  
alare etxetorren  
guziyen gustua  
ogeita amarrian  
asken apostua.

11.—Azkenengo egunian  
itxaso ona zan,  
eta atze aurrera  
aguruago zan,  
gizon boten izketa  
begira nola zan,  
bandera laister dala  
Oriyoko plazan,  
egiya izango da  
desiyua ba zan.

12.—Onoreko bandera  
eta bi premiyo  
aundiyenak jasua  
da aurten Oriyo.  
Trabesa asko eginda  
au dala meriyo,  
kanpuan arro dana  
etxian seriyo,  
galduak buruari  
ats egingo diyo.

13.—Amabi milla berreunda  
berrogeitamar peseta  
bi premiyotarako

jornal txarra ezta,  
konformidade artan  
danak dira kosta  
marka danak pasia  
pasayako kasta,  
berriz ere ayekin  
*ez liteke* josta.

14.—Suplentiak daudenak  
zenbait arraunlari  
askotan laguduak  
arrantzaliari  
epurdiyan kallua  
atzaparrak lori,  
ezagutu ez banitu  
enintzan ola ari  
gaixo daudenen partez  
ederki da ori.

15.—Biba Donostiya eta  
Getariyatarrak,  
konserbatu ditzala  
Elkanoren barrak,  
Lan asko egiten du  
maña eta indarrak,  
oyen mobimentuak  
ez dira baldarrak,  
Biba San Nikolas eta  
Bibc Sanjuandarrak.

(Imprenta J. Díaz-Irun.)



# BERTSO BERRIYAK

1923 ko estropadak (Oriotarren alde)

1.—Milla bederatzireun ogei ta irurekin estropada izan da agorrillarekin, Bermeo, Getariya, Donostiarrakin, Pasai San Juan, Oriyo beren arraunakin ederki neurtu dira danak alkarrekin.

2.—Estropadako eguna aloya goizetik, amaika gazte ta zar irten zan etxetik jayak beti poza du izaten aurretik, naiz gero saminduta ibilli ondotik, amaika arindu da aurten sakeletik.

3.—Fillaren amaseya izendatu zana treñeruan mutillak neurtzeko eguna, jendiak ikusi nai gazte oyen lana, segundo bat Oriyok Donostirengana, abek dira lenengo eta bigarrena.

4.—Urrengu igandian batekoz bestera proatzeko ustian juan ziran ostera, itxasuan nola zan olaska atera iñork nai ezarren gelditu atzera berriz aldatu zuten azteazkenera.

5.—Asteazkenen berriz jendia bildu zan bañan goiz goizetikan jarri zan zalantzan, gero arratzaldean jokatu ote zan baña itxasorikan baretutzen etzan, eta iganderako ostera utzi zan.

6.—Larunbat gabian urten zan Notiziya pronostikuba zeukan oso egokiya, Donostiya lenbizi, urrena Pasaya, irugarren Oriyo gero Getariya, iya asmatu zuben, ori da begi ya!

7.—Ogei ta amarren berriz jo zuten

sarrera

Getariya atzetik Pasaya aurrera, urrena Donostiyak egin zun joera Oriyo asieran utzirik atzera baño alperrikan, gaur guk degu bandera.

8.—Bost erri dira au rten neurtu diradenak, gazteriya bikaña indar bizidunak, guztiyak agertubak dituzte almenak, batere etzan txarrik danak ziran onak, baña, Oriyotarrak aurtengo onenak.

9.—Oriyoko gaztiak arauak dantzaten ongi ikasik daude aurrera luzatzen, baita indarrarekin atzera etzaten argatik olatuban diranian sartzen atzetikan aurrera egan dira juaten.

10.—Otegi aurretikan Murgiondo ankiyan gazteriya ederra biyen bitartean, oyek danak zuzentzen Uranga atzian, lasai jun! ots egiñaz noizik bakoitzian aurtengo premiyua zeukagu etxean.

11.—Fjituak gerla digute esaten auzuan okerragoak dirade azaltzen, il da arkitzen giñala adierazitzen entierro antzera zutela azaltzen ez dute aurten lanik kandelik erretzen.

12.—Zaitzalle ederra da Uranga guria, gorputzez egokiya, begi ya ernia, aisa igarotzen da orrekin biria, mutillak zuzentzeko nun dago obia? A bejondaikela Antonio Maria.

13.—Ez degu nai asarre izan iñorekin ez Gipuzkoa eta ez Bizkaikuakin, uste gabe biartzen gera alkarrekin itxaso gaiztuaren burrukaldiyakin, baña aitortu Oriyo aurten txapelakin.

14.—Arraunlariyak gustiz argiyak gazte bigun ta indartsubak, arraunlariyak arrigarriyak dira Oriyokuak!

# BERTSO BERRIYAK AURTENGO ESTROPARI JARRIYAK

1925 ("Gaztelu" Jarriak)

1. —Milla ta bederatzireun da  
ogei ta bosgarrenian,  
aurreneko estropa izan da  
Agorren seigarrenian,  
danak gogotik saiatu dira  
egun ortan arraunian,  
Oriyotarrak orain dauzkagu  
sasoirik ederrenian.
- 2.—Estroparako premiyo aundiak  
jartzen ditu Donostiyak,  
egiñalian saiutzen dira  
joaten diraden guztiyak;  
donan aurretik etortzen danai  
ematen zaizka graziyak,  
galdutakuen miñikan ez du  
;zafen irabaziyak.
- 3. —Gipuzkoatik lau juan ziran  
bosgarrengua Santoña,  
premiyuakin apenas asko  
onratu duen Montaña,  
beren ustian arraunketan e  
ikasiya dauke maña,  
arako onak egongo dirc  
emen galdue due baña.
- 4.—Estroparako abildadia  
eta indarra da ona,  
abonatzia gustatzen zaigu  
danoi egindako lana;  
premiyo asko irabaziya  
Oriyok daduka sona,  
erri batian zazpi bandera  
ori da edertasuna.
- 5.— Pentsatzen zuen bezela ezta  
gelditu Pasai San Juan,  
oñaze aundiya artu du eta  
edukiko du goguan,  
nunbait patroiak erretirua  
atzeko asmua zuan,  
salaio gabe etzan izango  
bandera eraman ba zuan.
- 6.—Kadrilla orrek Oriyotarrai  
egun ortan ziyon esan  
txalupa pronto edukitzeko,  
jokatgian artu zezan;  
"guria zueri emanda biyok  
lutxa bear degu izan",  
oiek bandera eramatia  
aurten prezisua etzan.
- 7.—Ondarrabiyak kalterik ez du  
lanteri ortan asiya,  
bandera eder bat eramatia  
orren desio guziya,  
aurten atzetik ibilli zaizka  
Donostiya ta Pasaya,  
Oriyorikan juaten ez ba da  
laiste du irabaziya.
- 8.—Estropada ori jokatze  
zorioneko Oriyo,  
publikuari gustua franko  
onezkero eman diyo;  
juaten danian lana egitia  
azkotan gustatzen zayo,  
orregatikan irabaziyak  
dauzka orrenbeste premiyo.
- 9.—Festa egunian zabaltzen dira  
bandera oiek guziyak,  
kanpotarraire gustatzen zaizke  
ez al dira itxusiyak;  
ezertan ere mantxik gabiak  
ditugu irabaziyak,  
edertasunez kontentu gera  
Jaungoikuari graziyak.

10.—Aurten txalupa berriya eginda  
atorri ba litz azkarra,  
jokatutzera etzan juango  
lenago daguen zarra;  
sasoi batian Donostiarrak  
esaten zuen kabarra,  
oiei kanuai irabazteko  
oraindik ez dago txarra.

11.—Lana egiteko lekurik gabe  
gizonik ezta proatzen,  
malizi ori zer dan batzuek  
asko ez dute pentsatzen:  
beren txalupak trukatu eta  
gustora ba dira jartzen,  
kostako zaio Oriyo baño  
lenago bueltan etortzen.

12.—Zazpi bandera irabaziyak  
beren premiyo ta guzi,  
zabaldu eta bistan jartzian  
ez due ematen itxusi,  
nola diraden apartekuak  
paperetatik ikasi,  
askok egin du gustubagatik  
etorri eta ikusi.

13.—Juan dan urrian Sanjuandarrak  
oso gora ziran iyo,  
dudarik gabe aurtenguan e  
izango ziraden piyo,  
ustez seguru zuten bandera  
irabaziya Oriyo,  
zezen gaiztua izanagaitik  
banderilla sartu diyo.

14.—Erri askotatikan jendia  
estropan izan gerade,  
batzuen pozaz egongo dira  
bestiak tristuran gaude;  
duro ederrak egun oietan  
aldatubak ba dirade,  
Getariyako arbi aziyak  
aurten dantzan dirade.

15.—Egun oietan jendia franko  
estropan izanak gera,

premiyo onena uste zuten  
batzuek Pasai aldera;  
esaten zuten "Bigarren aldiz  
baldin jokatzen bagera,  
aurten gureztat izango da  
Donostiyako bandera".

16.—Gizon batzuek zerbait esaten  
kaie aldian ai zian,  
ta bestek erantzun ziyen  
belarriyaren ertzian:  
Orain bi urte Oriyotarrak  
Pasayen onduan zian,  
baña ala ere San Juandarrak  
gelditu ziran atzian.

17.—Oriyokuak lana galanki  
aurten dirade egiñak,  
lanteri txarrak ekartzen ditu  
alkar ikusi eziñak;  
Oriyotarra entierua  
len badirade egiñak,  
arrezkerozkik berak penatzen  
ditu ipurdiko miñak.

18.—Arraunlariyak leku askotan  
oraindik dirade bizi,  
batzuek diralako estropa  
ederra orra ikusi,  
ainbeste azaña egin duenak  
zerbait ez aldu merezi?  
amar xentimo bertso berriak  
nai dituenak erosi.

- 1.—Orio.
- 2.—Ondarrabin.
- 3.—Donostia.
- 4.—Pasai Son Juan.
- 5.—Santoña.

# PORTUGALETE - KO ESTROPADAK

## 1.925 Burgoa <sup>k</sup> karriak

1. —Milla bederatzireun ta  
ogeta bost urte,  
irallaren ogeia  
señalatzen dute,  
estropada ederrak  
izandu dirate,  
jokatu zan lekua  
da Porfugalete  
allegatu da ara  
makiñabat jente.

2. —Deportibo Aurrera  
Ondarruatarrak  
erakutsi dituzte  
txit mutil azkarrak,  
arraun barriak ere  
ez dirade txarrak  
ikusi baterako  
ederki labrauak  
erri ontan oraindik  
ba dira indarrak.

3. —Bost treñeru zirala  
jokatutze kuak,  
aditzen eman zuan  
ango Juranduak,  
Iru ziran aurretik  
ateratakuak,  
Ondarru Porfugalete  
ta Santoñakuak,  
markarik andiena  
egin gurekuak.

4. —Sestao Zierbana  
ziraden urrenak,  
gure atzetik aiek  
jokatu zutenak,  
estropada orretan  
egin ziran lanak  
bigarren etorrera  
dauka Zierbanak  
baña Ondarrutatarrak  
borrat ditu danak.

5. —Zierbana ta Ondarru  
ogeta zazpian

jokatzeko zirala  
askok bazakian,  
guregana etortzen  
bildurfutzen ziran,  
orregaitikan jarri  
dira aitzakian  
beste lanikan pozik  
etorriko zian.

6. —Gurekin jokatzera  
allimatzen etzan,  
begira zeguanak  
ala dute esan,  
aitzakiak ugari  
orregaitik ba zan  
Zierbanatar ori  
deskalifika zan,  
ezan orla izango  
gogor egon bazan.

7. —Estroparo aurretik  
jokatu onduan  
desafiorik asko  
aditu genduan,  
premioak atera  
dituguz klaruan,  
Errege jaunaren kopa  
orra nun dagan,  
Deportibo Aurrera  
Ondarruakuan.

8. —Zierbanak ukatu,  
Sestao zan jarri,  
bigarren premiva  
eman zien arri,  
asko gustatu zaie  
ondarrutatarrari,  
gogoz luzatu die  
eskuak alkarri,  
orregatik gelditu  
ez da lotsagarri.

9. —Gure kontra ba zian  
burla ta ujuak,  
ez da esan bearrik  
auzo errikuak,



ensayuan azita  
erretiratuak,  
gu ez gera oraindik  
ori eindakuak,  
garialako mutil  
pexu onekuak.

10.—Azkanengo estropa  
emen egin zala  
ogeta iru urte  
da jokatu zala,  
asaba zarretatik  
datorren odola  
dantzatu da ederki  
arraunaren pala,  
jakin zazu oraindik  
lenguak gerala.

11.—Askoren desiva  
zan gu ikustia,  
estropada orretan  
atzetik ustea,  
baña suertatu da  
guk irabaztea,  
Ondarrutarak ortan

makalak ezitia,  
gora Beitia zu ta  
kuadrilla guztia.

12.—Kopak gurekin dagoz  
aurtengo urtian,  
ta ondo gordetara  
saisatu gaitian,  
okerrik ezpadegu  
bien bitartian,  
allegatuko gera  
alako batian,  
agun adiskidiak  
urrengo odian.

13.—Au ondo badakite  
auzo inguruak,  
txapeldun diriala  
Ondarruakuak,  
orra amairu bertso  
estropadakuak,  
aurte Portugaleten  
jokatutakuak,  
auek dira Burgoak  
ateratukuak.

# KALANDIKO ERREGIÑE DIENESI

Jose Brontxek Jarríak 1926

1.—Bertso berriak jartzera nua  
gusto duenak erosi,  
fiestak nola pasa ditugun  
nai nuke adierazi,  
musika eta tamborreakin  
gañera orfeoi ta guzi  
Donostiako etorreria  
esan bear det lenbizi.

2.—Motor ta bapor etorri giñan  
Donostiatik batian,  
eta Debara sartu giñaden  
ia ondarrera odian,  
txupiñazo ta txistua joaz  
danon umore onian,  
da Mutrikuko agintariak  
an ziran gure tartian.

3.—Andik urten da Mutrikun ere  
igual egin genduan,  
mendietatik guri begira  
jendia franko zeguan,  
Mutrikuar ta elantxobetar  
danok alkarren onduan,  
anayak giñan bezela igual  
etorrera egin genduan.

4.—Erregearen Fakunen ziran  
gure mutillak atzetik,  
motor ta bapor musikarekin  
atera ziran etxetik,  
leor guztia betia jente  
"viva" dearrez bestetik,  
guk eztakigu zenbat persona  
etorri ziran erbestetik.

5.—Gero gabian etorri zakun  
Mutrikutik tamborrada,  
allatutzian gure biotzak  
asi ziraden dardara,

guk ain gustora entzun genduan  
orren tamborren arrara,  
gure atzetik etorri zakun  
musikarekin Debarra.

6.— Mutrikuarrak eta Debarrak  
gurekin portatu zera,  
zaregaitikan gu alabatzen  
gugana etorri zera,  
gu emen guade, gure premiñan  
iñoiz aurkitzen ba zera,  
anaitasunik andienakin  
bizi nai degu aurrera.

7.—Andikan laister aditu nuen  
belarrietan pregoya,  
gu alabatzen nola datorren  
Durangotik orfeoa,  
leku batetik adituko zan  
erren kantuen orroya,  
kristau oyek merezi dute  
sombreru ordeze koroya.

8. — Beko fiestak akabatuta  
kale andira jaso giñan,  
ezin emanik egondu giñan  
ordu betian lau pauso,  
erregiñatzat Dienesi ta  
tamboliñakin Damaso,  
obiagorik egongo ete da  
mundu onetan akaso?

9.—Biba Mutriku eta Debarrak,  
da Biba Durangokuak,  
guztien partez milloi bana esker  
Brontxe ondarrutarrak,  
agradezitzen ondo dakigu  
geuri ondo egindakuak,  
zeruetara jasoko al zaitu  
danok gure Jaungoikuak.



10.—Ondo dakigu kale anditarrak  
zuek zerana nagusi,  
lenago ere zuen kalia  
obetuen zan ikusi,  
kalia orren orlan ipintzen  
nun ote duen ikasi?  
Danon erregin or daukazute  
Saguaneko Dienesi.

11.—Mai andi baten gañian zeuon  
kale andlko erregiña,  
jend ak bera soludatutzen  
eiten zuan alegiña,  
ondo ederki ematen dezu  
bada zerbaiten premiña,  
obetuago emango zuan  
piskat pintatu ba ziña.

12.—Gure mutillak nobliak dira  
da biotzetik zabalak,  
orregatikan orren burua  
arturik daukatez alak,  
erri guztia distrazatuta  
ustez ziran karnabalak,  
orrelangorik etzan egingo  
izan ba ziran makalak.

13.—Fiestarikan asko egin degu  
estroparen izenian,  
jentia ere aspertua da  
geyago ezin egiñian,  
da pelikulak otero ditu  
bialtzeko zuzenian,  
emen ikusi ez ituenak  
ikusiko itu zinian.

14.—Kozineriak ere ez dezute  
aurten eduki ain txarrak  
zuei danari jaten ematen  
atere dute aparrak,  
berez umilla eta garbia  
jenioz barriz azkarrak,  
orregatikan agertu dira  
gure mutillen indarrak.

15.—Amabostgarren bertsuarekin  
banua despeditzera,  
pizka bateko erretirua  
orain ba guaz artzera,  
guregatikan gaizki esaten  
barriro asken ba zera,  
gaizki esana gugana aurten  
zertan etorri etzera?



# 1926 ko ESTROPADAK.

## Jose Brontxek Jarriak

1.— Bertso berriak jartzera nua  
gusto duenak aditu,  
nere barrena betia dago  
geyago ezin det kabitu;  
pentsamentuan jarri orduko  
biotza gata mugitu,  
nayago nuke pasa bezala  
zuzen kontako banitu.

2.— Motiborikan asko ba degu  
zerbait esaten asteko,  
danontzat igual egon da aukera  
estropara jokatzeko;  
gure auzuak modu onetan  
gu gorrotuan artzeko  
arrazoirikan ez det billatzen  
tamaña ortan jartzeko.

3.—Ogei ta zortzi urte dirade  
Donostiara janan ziran,  
iru treñeru illaren lauan  
ederki probatu ziran,  
ilion zortzian Donostiarrak  
ura bentajaz atzian,  
premiva ta bandera artuta  
etxera etorri ziran.

4.—Andik lau urte pasota gero  
Bilbora ziraden janan,  
iru premio egondu eta  
danok ziran Ondarruan,  
izkai danetik erri bakarria  
falta izan zan orduan,  
beti ikasten baldin ba dabiz  
ez jarri aren onduan.

5.—Arrezkerozkik aditu degu  
makiña bat desprezio,  
lenago izanagarren zerbait  
gaur eztubela bolio,  
iru nagusi or daudetela  
Pasai, Donosti ta Orio,

oyek guziak aditu arren  
egondu gera serio.

6.—Club Deporfibon ondarrutarra  
jann don urtian zan jarri,  
Portugaleten dagon kopia  
bear zuela ekarri,  
da bost treñeru alkarren kontra  
kostauan ziran izarri,  
kopak guretzat ziraden baña  
bai gorrutua ugari.

7.— Estropara au irabazita  
jendia asi zan esaten,  
Bilboko kaldereruari  
errez dala irabazten,  
orren abillak izan da zertan  
Donostira etzera joaten,  
Gipuzkoako mekanikuak  
probatu ditugu aurten.

8.—Gipuzkoako profesoriak  
pentsata zeuken jokua,  
Donostiara lendabiziko  
bigarren Pasayakua,  
irugarren Fuenterrabia,  
laugarren Ondarruakua,  
baña Beitian kuadrilla ezta  
orrela gelditezakua.

9.—Lekeitio ortan emen zeukazen  
fiestak preparatuta,  
Ondarrutarrak baldin ba datoz  
Donostiatik galduta,  
iru korrida eiteko asmuan  
dirua ere batuta,  
zezen jaubia bialdu dute  
bere zezenak artuta.

10.—Bizkaya aldian euki nai dogu  
geure onra eta fama,  
bi portu orri erregalatu

lezake treñeru bona,  
da euren billa datozenian  
gañera jan da erana,  
Erregen jaunak kopatik berriz  
eran dezaten txanpaña.

11.—Portu bi orrek nortzuk diraden  
Lekeitio ta Bermeo,  
egia klaru esatekotan  
ajolorikan eztió,  
motibo gabe emon dizue  
makiña bat desprezio,  
orain ixilik egon zeintek  
ezpadozue balio.

12.—Mundu onetan ikusten degu  
persona askoren griña,  
norbera baño abillagorik  
iñork ikusi eziña,  
guk estropara irabaztiak  
eman al dute miña?  
akaso igual zuek nagusi  
juan da probatu ba ziña.

13.—Bizkaya eta Gipuzkoarrak  
konbenzitu al zerate oin  
ondarrutarrak baldin ba datoz  
berriz ere listo egon,  
• orregatikan musikak ere  
gaur joten digu Aliron,  
nai eztuenak aditu bear  
Ondarrutarrak kanpeon.

14.—Sei estropara bost treñerutan  
eta seiretan lenbizi,  
gure denporan olakorin  
iñork ez degu ikusi,  
ondarrutarrak arraun lanian  
egiñagaitik itxusi,  
oba zenduke eurak bezela  
kostautik juaten ikasi.



# 1926 GARREN URTEKO ESTROPADAK.

1. — Milla bederatzireun  
da ogeta seian,  
Algorreko illaren,  
lenengo jayan,,  
zazpi treñeru ziran  
Donosyiko boyan,  
danak premiyua  
irabazi nayan,  
alkarren pelian  
aurretik juan naian,  
danak arrabian  
ez une lasayan,  
baña Ondarrutarrak  
azkarren ziran.

2. —Donosti ta Ondarru  
Pasai ta Ondarrabi  
auek laurak zituzten  
lenengo jarri,  
zorrotz begiratzen  
zioten alkarri,  
iñork ere etzuan nai  
izan parragarri,  
tira arraunari,  
memoria argi,  
zuzen nai etorri  
trantze txarra da ori,  
gaitz da bentaja kentzen  
ona donan.

3.— Pasai ta Ondarrua  
lenengo egunian,  
auek etorri ziran  
donen aurrian,  
berriz probatu ziran  
urrengo igandian,  
txalupak trukatuta  
usatzen dan gizan,  
lagun bardiñian  
jenioz piñian,  
jo alegiñian  
gogor arraunion,  
gizon senduak daude  
Ondarru odian,

4.— Premiyo ta bandera  
trabes eta guzi  
oyek eta geiago  
zuten merezi,  
azpaldiyan ez dira  
jokatzen ikusi,  
jendiak uste zuan  
ziotela utzi,  
oreik ez etsi  
lenguari eutsi,  
indarra erakutsi  
txorakeri gutxi,  
orain ere auek dira  
kostan nagusi.

5. — Lenagotikan ere  
entzuten genduan,  
arraunlari on asko  
zala Ondarruan,  
ogei ta zortzi urte da  
ez dirala juan,  
banderarekin etorri  
ziraden orduan,  
neuk daukat goguan  
nola ikusi nuan,  
pozikan orduan  
nola ez daguan  
arraunak dantzatuten  
oyen moduan.

6.—Amalau lagunekin  
patroia Beitia  
kuadrilla guxtia da  
oso balientia,  
ikaratu gaituzte  
kostako jentia,  
ori do arraunian  
ondo jakitia,  
da borondate  
gogoz egitia,  
txalupa jixxia,  
zuzen ibiltio,  
sei bertsorekin  
orra errematia.

# BETI EZAGUN.-

Burgoak Jarriak. 1926

1.—Bizkaiko erri baten  
dago Lekeitio,  
bandera bat irabazi  
ez du oraindano,  
mingañarekin  
beti dira fio,  
auzuari ematen  
zenbat desprezio,  
ortarako obiak  
arraunian baño.

2.—Lengo igande batez  
aditu dedanez,  
korridak zeudezela  
jakin det zezenez,  
Santurtziarrak kontxa  
bazetorren aurrez,  
aurte ere kukuak  
jo die aldrebes,  
Lekeitioko atsuak  
or dagoz negarrez.

3.—Txasko ederrak ditu  
igaz eta aurte,  
ala ere ez dira  
ezkarmentatutzen,  
balekite jendiak  
zer esaten duten,  
beti desprezioak  
iñori ematen,  
ez dakit erri orri  
zoratu zayoten.

4.—Santurtziarrak ibilli  
ornen ziran bero,  
bandera eramatia  
bazuten espero,  
Lekeition korridak  
zezenakin gero,  
irabazi ba lute  
egiteko edo,  
engañatu dirala  
ni orretan nago.

5.—Zeuk lekeitiarrok  
zetan zabilzate,  
iñoai arraunlariak  
izan al zerate? .  
mutil baleintiak  
baldin ba zerate,  
Kontxara jokatzera  
etorri zaitzete,  
bandera eramaterik  
ortik ez det uste.

6.—Gaztetan entzun nion  
nik aite zarrari,  
erri orretan piratak  
zirala ugari,  
Pilbotik zetozela  
Ondarrutarrari  
bandera ostu nairik  
zebiltzala larri,  
zeñek egiten dute  
atrebentzi ori?

7.—Aita zarrari ori  
entzun neutsanian,  
nola kontestatu nik  
bate ez nekian,  
egia dala berak  
esaten zizkian,  
errian banderik ez  
iñori eskian,  
lotsatu ez ditezen  
ibilliko zion.

8.—Ordutik oneraño  
makiña bat tirru,  
erakutsi diote  
ondarrutarrari,  
pillaka du banderak  
zuri eta gorri,  
zuek nai ba dezute  
kofradian jarri,  
bidia libre dezu  
joanda ekarri.

# 1926 URTEKO ESTROPADAK.-

Burgoak jarriak.

1. —Milla bederatzireun ta ogeta zeigarrenian, jfallaren bostian izan giñan Donostiko errian, zazpi treñeru juntatu dira probatzera arraunian, aitzaki gabe jokatu dute jende askoren aurrian.

2.—Zazpi treñeru ain artetik jru ziran Bizkaitik, ondarrutarra aurrego baietz trabesa ba zan gogitik, dirua franko jbillj dute bizkaitarraren aFdetik, boltsak ederki ustutakuak ba dira Gipuzkuatik.

3.— Lendabjzjko jokatzuzera lau ziran atariak, Ondarrabia eta Pasaia Donostia ta guriak, Gipuzkoarrak uste zuten zirala eurak obiak, garai onetan ezagutu da nun diran arraunlariak.

4.—Lau treñeruak Kontxa ortan gogotikan dira saya, azkar aguro ezagutu zan zein izango zan etsaia, egun orretan gaztelutikan etzeuden jende lasaya, bigarregora gelditu ziran Ondarrua ta Pasaiya.

5. —Bi treñeruak jokatu zuten irallaren amabian, pasaitarrak beretzat uste dudarik ez dago ja, baña aurretik etorri zaie uste etzuten Erbio, Gipuzkorako au izandu zan egun señalagarria.

6.—Azpalditikan oyuka zeuden gurekin jokatzuzeko, desprezjorjk asko izan da ez gaudez ukatzuzeko, donostiarrak arro zebiltzen gure indarrak neurtzeko, egun alaia etzan jzandu Kaiako atsuentzako.

7. —Ogeta zortzi urte dirade Kontxan jokatu zutela, orduan ere arraunerako etzan kuadrilla uztela, gaztiak ere gogor egindu lenago zarrak bezela, bigarren aldiz ekarri dute Gjpuzkoatik txapela.

8.—Desaire asko aditu degu Bizkaiko portu batetik, esarre samar gaur ere dira ez dakit ori zergaitik, iduritzen xait izango dala bandera ekartziagatik, edo bestela elbarrituta egongo ziran burutik.

9.- Premirorikan asko ba degu ira aziak bakian, orainguan be kontentu gaude beste danakin batian, mįngañarekin balientiak zuek or zaude atian, bidia libre izango dezu jua n nai dezutenian.

10.—Premio onak izaten dira alde batetik bestera, ezagutuko zaituzte noski ara junten ba zera, amabi milla peseta eta sedazkua da bandera, Gipuzkoako ondra danakin ekarri dute onera.

11.—Desprezio au aitzen genduen  
gizon askoren aotik,  
or jolasian ibilli gabe  
ekarri Gipuzkoatik,  
aurten Kont xara etorri gera  
askoren esanagaitik,  
Juan nai duenak Kontrariorik  
ez du izango gugaitik.

12.—Guri begira gustora zeuden  
famili erreala,  
baita eskerrak ematen  
etorri zan bereala,  
Errege jaunak berak esan du  
ondo portatu gerala,  
agindu zigun bere yatian  
juan bear genduela.

13.—Etzait aztuko neri sekula  
mutil oien etorrera,  
ikusgarria izan zalako  
egin ziguten sarrera,  
Gipuzkoako matrikulakin  
irabazi du bandera,  
askok pentsatzen etzuen baña  
Ondarruan dago bera.


14.—Ai zer pozikan ortu zituen  
erriak eta auzuak

orreintzako izandu dira  
txalo ugari gozuak,  
bolanderaren tiruak eta  
musika soñu ta ujuak,  
aurten geiago merezi dute  
mutil indartsu brabuak.

15.—Arraunlariak ikusi deguz  
sanuak eta fuertiak,  
ondra andia irabazi du  
Juan Bautista Beitiak.  
Azaña andiak egiñak dira  
ain dira balientiak,  
mutil oieri beldurra zaie  
Kantabriako jendiak.

16.—Ez det esango gaizki portatu  
dirala Gipuzkoatik,  
irabazaik zerbait gartzia  
dudarik ez da ortatik,  
gure fabore asko izan da  
Deba ta Mutrikuatik,  
ain jente pilloa txalotutera  
etorri zaigu bertatik,  
zuei ezkerrak bialtzen dizut  
auzuak geran partetik.

Burgoa.



# BERTSO BERRIAK, DOMINGO GORRAK JARRIA.

1926

1. —Milla bederatzireun eta  
oi ta seigarren urtian,  
jentia ugari izan ornen zan  
Donostiako errian,  
mendi guztiak betiak zeuden  
estropada ikusi naian,  
olakorikan gertauko zanik  
etzubela uste kayian.

2.—Lengo urtietan zirika beti  
juaten etziralako,  
aurten ostera areriyο asko  
irabazi dutelako,  
ondarrutarrak arraunlariyak  
beti izan diralako,  
argaitik famak jaso dituzte  
merezi izan duralako.

3.—Kantabriako arrantzaliak  
arraunlariyak dirate,  
ondarrutarrak donen aurretik  
sarri etorri dirate,  
ainbeste urtian geldι egonda  
aurten be ikusi dute  
bandera ostera eginda ere  
ez dira nekatzen bate.

4.—Lengo urtietan egondu gera  
insulto asko entzuten,  
Ondarruarrak estropadako  
nola baliyo ez duten,  
bañan ederki ikusi dute  
Donostiko Kontxan aurten  
bi estropadan donen aurretik  
nota etorri diraten.

5 —Ondarrutarrak probatutzeko  
askok dute desiva,  
aurten ederki ikusi dute  
oso kuadrilla bibua,  
arraunerako ba dute oraindik  
indarra ta leziva,  
argaitik aurten ekarri dute  
bandera ta premiva.

6.— Banderarikan asko ba degu  
baña pobriak gerade,  
arrokeririk ez degu joten  
arraunari tira fuerte,  
ondarrutarrak arraunlariyak  
beti izan dirate,  
mundu guziak ori ba daki  
ezin ukatu leiteke.

7.—Lenguak aitak aurten semiak  
lau mutil izan dirate,  
jatorritikan arraunlariyak  
oyek izan bear dute,  
bestiak ere oyen odian  
ederki ikasi dute,  
Gipuzkoako onra guziak  
Bizkaira ekarri dute.

8.—Portuan jaten ari giñala  
erri ikatzak tiratzen  
gauza erreza dala uste det  
goitikan *bera botatzen*,  
eta gañera errezagua  
mingañarekin ibiltzen,  
baño gatxa da Kontxa orretan  
Ondarrutarrak garaitzen.

9.—Gizon aundiyak badaukatela  
Ondarrutarren turnia,  
zeregaitikan dakitelako  
zuten abilidaia,  
argatik bada prestau diote  
ontzi ikaragarria,  
Ondarruara eramateko  
estropadako jendia.

10. — Estropadia amaitu eta  
etxera etorreria,  
pentsatu nuen bai jetxi zala  
goitikan bera gloria,  
bandera eta musikarekin  
ura zan alegrantzia,  
eta gañera ikusgarria  
errirako sarreria.



11.—Bi banda eta orfeoi on bat  
zaigu errira etorri,  
Arteondo ta pelotariyak  
danak gura deusku guri,  
bandera ura bedeinkatzian  
beste egun bat edo bi,  
musika jota dantzian egiñik  
biar degula ibilli,

12.—Gora Ondarru, gora Beitia  
gora kuadrilla guzia,  
pozez beterik ipiñi degu  
erriko jende guzia,  
eta gañera ipini dezu  
uste askotarako pakia,  
nai nuke aurrera erriko danok  
adizkide izatia.

6



# BIBA ONDARROATARRAK BERTSO BERRIYAK

1926

1.—Milla beatzireun ta ogeitaseian  
Agorraren ambiyan  
estropadako bertso berriyak  
jartzeko orain nai abiyen,  
Donostiyarik menderatu gabe  
itz egingo det egian,  
obligaziyo deian bezela  
errespetu andiyen.

2.—Lendabiziko sariyak ziran  
Agorrilaren bostian,  
ta bi onenak amabirako  
pruebak erakustian,  
lenbizikuak ere ez daude  
oso estadu tristian,  
sekulan bezin animatuak  
dabiltza nere ustian.

3.—Donostiya ta Ondarrabiya  
bestia Portugalete,  
Ondarrua ta Pasayakua  
baza eman diyote,  
marka bardiñik inork ezin du  
guziyena diferente,  
alegiña egin duanarentzat  
zer esanik bai al dute?

4.—Bi erritatik piña trainera  
irutatik beste bana,  
aurtengo zazpi tripulariyak  
ondo egin dute lana,  
azkenerako txasko txiki bat  
sortu da askorengana,  
premiyo andiyak eta bandera  
Ondarroak eramana.

5.—Ederkiyena portatu dira  
Ondarroa ta Pasayak,  
diferentziya zerbait ba zuten  
ala artu det usaya,  
bitatik batek izan bear du  
egoki eta lasaya,  
Sanjuandarrak barka nazute  
zuentzat ez naiz etsaya.


6.—Oyen fabore zegoen batek  
itz egiteko oparo,  
atze aurrez ikusi arte  
ez da jakiten seguro,  
ustez ixilik egin zituen  
bosten kontra amar duro,  
esku aldatzen errezak ziran  
galdu zituen aguro.

7.—Ogei ta zortzi urte oneitan  
kayolan zegon txoriya,  
orain irten da dibertitzia  
ez da prestuezkeriya,  
trabeslariyak ibilli dute  
makiña bat istoriya,  
galdu dubenak begiyak triste  
irabaziyak gloria.

8.—Bidiak lengo legera ziran  
balizak lengo lekuan,  
anfik Kontxara atze aurrera  
palada asko zituan,  
esan biarrak bate badira  
estropadako jokuan,  
gero jentia konbertitzen da  
pruebak ikusitakuan.

9.—Nola diranden jende bardiña  
lirañak eta irtenak,  
ayen fabore itz egin dute  
ni informatu nautenak,  
ba dirutzate danak dira)  
famili zintzo batenak,  
errespetoko gizonak eta  
indar aundiya dutenak.

10.—Apostoluen atzera ziran  
len ere itxas gizonak,  
penitentziya pasa ta gero  
birtute asko izanak,  
li brutik dauzkat irakurriyak  
apaiz jaun baten esanak,  
erri leyal au formatu zuen  
Domingo Agirre zanak.



11.—Agure bati aditu diyot  
zortzu egunez onoztik,  
sekulan seme jatorragorik  
ogiyak mantendu ez dik,  
aurten bandera eman diyola  
Ondarroari Donostik,  
auzo erriko bezindadiak  
seriyo daude geroztik.

12.—Onra aundiyak merezi ditu  
Pasaiko aitona zarrak,  
Biba berori eta kuadrilla,  
ez dirade gizon txarrak,  
ez al du iñor enojatuko  
nere izketa jatorrak,  
onena zein dan aitortzeatik  
Biba Ondarroatarrak.

Im. "Aurrera".

# 1.926" ko ESTROPADETAUKAK.

Ondarrutar batek.

1.—Milla bederatzireun ogeta seian  
Agorilaren bostian,  
bost erritak zazpi treñeru  
Kontxara batu zirian,  
Donosti, Fuenterrabia, Pasai ta Ondarru  
laurak batera azi zian  
baña aurretik ondarrutarra  
balizara santutzian.

2.—Zeru urdiña, itxaso leuna  
eguzki ederrarekin,  
leor, itxaso poztu ginduzen  
oju ta txaloarekin,  
Juan Bautista Beitia  
zetozen jertz gorriakin  
e mutillak ba bildur zian  
ondarrutar oriekin.

3.—Jertz gorridunak aurretik datoz  
zer pasatzen da mutillak,  
ondarrutarrak Kontxa orretan  
sartu ditu banderillak,  
genioz oiek onak dirata  
errespetuan umillak,  
dirade mutil balientiak  
ta arraunian abillak.

4.—Bizkai aldetik auzoik urrena  
pozikan Asterrikara,  
bolanderia ugari dabe  
ederragua patxada,  
baldin atzetik ondarrutarra  
baliza etortzen bada  
uste etzuten zezen gorriak  
sartu diote adarra.

5.— Erri orretan zanzarradia  
eta ujuak úgari,  
or ibiltziko ze pasaten dan  
pregunta nion baten,  
gure poza da oiek galtzia  
orain estropada ori,  
destaña asko bota diote  
oiek ondarrutarrari.


6.—Ez bota guri destañarikan,  
libre Kontxara bidia,  
ara juanda andik ekarri  
zuek Bizkaira ondria,  
amabi milla peseta eta  
sedazkua banderia,  
nik dudatzen zuek juan eta  
andikan ekarritzia.

7.—Ondarrutarrak etorri dira  
gabarrarekin Kontxara,  
au guria da esan zuan da  
txapela bota urtara,  
Donostiarra usuarekin  
laugarren gelditua da,  
orreri ere zezen gorriak  
sartu diote adarra.

8.—Gabarra orrek bear duala  
soka erremolkerako,  
kaia gañian esan ziguten  
ori estropadarako,  
usuak danak atzetik dira,  
gabarra balizarako,  
gabarra ori bezela ez dira  
uso oriek portako.

9.—Diruak baño pena andiago  
bandera ona ekartia,  
Donosti ortan gelditua da  
tristura andiz jentia,  
sekula ez bezela mandera orrek  
puntan du matrikulia,  
esanaz beti guria degu  
aurtengo estropadia.

10.—Fllan amabin jokatu zuten  
Pasai ta Ondarruk berrio,  
orra nik esan papel onetan  
zer esan zuten garbiri,  
gure treñeruak irabazia  
kuadrillak ez du ballo,  
gure mutillak etorri ziran  
baliente ta serio.



11.—Errege jaunak agindu zien  
mutil oyeri yatia,  
preciso za' o Fokundasunen  
Ondarrura ekartia,  
txupiñaso ta musika ederra  
millaka bolandera,  
ikusgarria zan orduko oien  
porturako sarrera.

12.—Sei estropada urte betian  
oyen dituzte irabazi,  
leziorik asko eman dute  
nai baldin ba du ikasi,  
ogeita zortzi urte geldi egonda  
orrek dauka ze ikusi,  
ondarrutarrak donen aurretik  
beti dijuaz igesi.

13.—Oriotarrak ibilli dira  
atzera eta aurrera  
gure mutillak ikusi eta  
paladak kontatuzera,  
amendik pozik joanak ziran  
gogor trabesak eitera,  
baña ederto ustu zaizkate  
beteta zeuken kartera.

14.—Durango Orfeoi ederra  
Debatikan musikia,  
Mutrikutikan etorri zaigu  
tamborrada elegantia,  
oien aurretik jendia ba zan  
kale guziak betia,  
ezkerrak milla Jaunak danoi  
onekin despedidia.

# 1926<sup>"</sup> ko ESTROPADETA KUAK

Berrlatua <sup>"</sup>ko Ezkerrak Jarriak.

1. — Milla bederatzireun ta ogetasei urte  
li buruetan dala beintzet dizute  
bertso berri batzuek, jarri nai nituzke,  
goidokira nago, laguntzaren eske,  
Jesus eta Maria, lagun zaidazute.

2. —Komeni dan bezela autortu dezagun  
Donostian joko bat guri kendu zigun,  
gizon falso batgaitik ta irabazi zigun,  
baiña indarra nundan beti da ezagun,  
berriro ere laster, giñaden txapeldun.

3.—Gizon ori da, gugandik apa rte  
Montañako lurrian, egindu ainbat urte,  
gauza bastua beti saldutzen da merke,  
berak probetxu gutxi, guri asko kalte,  
aberastasun gabe, dago orain a rte.

4.—Agorreko jllaren lenengo eguna  
Donostiko estropada ikusi genduna,  
an ba zan indarra ta, bai azkartasuna,  
batzuk tamala zuten, guk alaitasuna,  
Ondarrutarrarontzat orduko fortuna.

5.— Illaren amabian berriro bestia  
aj ze poza guretzat, orj ikustia,  
berriro erakutsi zioten atzia,  
lan geiegia zuten lenak bardintzja,  
gertatuzan dobliaz, bentaja kentzja.

6.— Bigarren estropada au amaitu  
zanian,  
bezan tronpet soñua Donostiako errian,  
gure mutillak zeuden berriz proba naian,  
Errege Alfonsoren yate aurrian,  
buelta eman zioten, txanpa ederrian.

7. —Jaun onek ikustian beraren aurrian  
nota korritzen zuten, alako indarrean  
neuk eramango zaituet etxera bidean,  
bai entregatu ere, Ondarruko errian  
neuk azpian daukadan yate berrian.

8.—Goguan artzekua zan ikusgarria  
orduko sarrerria Ondarruko errian,  
estropada mutillak, baporen aurrian  
etxapelo ta soñuz, gortu besrrian,  
Errege Alfonsoren yate ederrian.

9.—Donostiarrak egon zindezkez etsita  
orain gertatu dana, orrela ikusita,  
faltsokeriz len egon giñacen jausita,  
diruak eta famak, zuentzat utzita  
baten orde z lau orain, guade irabazita.

10.—Sei gariza aundiak, arraun  
indarretan,  
irabazi dituguz Donostian bertan,  
diruak eta ere, lenen ordañetan  
korridu eta guztiz, bai alajañetan  
zer gertatu zaizute Donosti orretan?

11.—Orgulloz beterikan zeuden  
Donostian  
menden zeukelako ustez, Kantabri guztia,  
gizonak orrenbeste arro jzafia,  
batez ere Ondarru nai menparatzia  
gertatu zaizu diru ta bandera galtzia.

12.—Oriok desafio Ondarrutarrari  
"La Voz" zian askok du ori irakurri,  
errepuesta bertan, giñiozan jarri  
BFko premiora eiteko etorri,  
jekatuko giñola dirua alkarri.

13.—Juan giñadenian, geure txalopakin  
Donostian onela ziguten itz egin,  
zerta zatozte ona, gabarra oiekin,  
konparatzen al dezu, gure usuakin,  
usuak gabarria arrapatu ezin.

14.—Juan Bautista Beitia, zu zera  
mutilla,  
urte beten barruan, orra se j batalla,  
abilla zaralako, zu eta kuadrilla  
j kusiak ba dira, makiña bat milla,  
urte askotan orrela, portatua izan zadilla.

# NASTE BORRASTE

(1926)

Ama Antiguakua,  
biotz biotzetik,  
Donostiako Conchan  
Ondarrua aurretik.

No Floreis hijos míos,  
no Floreis mi ilusión,  
en eso de las regatas  
Ondarroa campeón.

Donostiarrak asi dira  
baburrinak jaten,  
datorren urterako  
indarrak gertutzen.

Olgetan asi eta  
amasei segundo,  
benetan izan ba litz  
minutu seguro.

Zazpi treñerutik  
Ondarru lenengo,  
sedazko banderia  
Santa Claran dago.

Con catorce remolaris,  
marineros de Ondarroa,  
rumba, la rumba, la rumba,  
Ondarroa campeón.

Paco contra Meabe,  
Club Deportivo Aurrera,  
rumba la rumba, la rumba  
Ondarroa campeón.

# ARRAUNKALAI ESTROPADA.

(1926) Eusebio Mugertza "Mendaro Txirristaka".

1. —Arraunkalai-estropa  
izan da Donostian,  
lendabiziko Agor  
illaren bostian.

*Ta biar det  
adierazi  
Bizkaitarrak  
dutela errez  
irabazi. Pin pon'*

2.—Bost erriren artian  
ziran zazpi kuadrilla,  
premiyua ta bandera  
sedazkuan billa.

3.—Zan gutxitan bezela  
lanerako girua,  
inoiz baiño geiago  
premiyo dirua.

4. —Oyek guziak baiño  
deseo zan bandera,  
juana da Ondarru  
torren mendera.

5.—Ondarrua lenbizi  
zan arraira iritxi,  
ta nekatu ziranik  
ezkiñon iritzi.

6.—Ondoren Pasaitarrak  
segundo bederatziz,  
itor biar txisturik  
ezin iruntsi.

7. —Zazpi egun geroztik  
estropada bigarren,  
naigabia askontzat  
ezetz uste arren.

8.— Minutuan ogei ta  
amazazpi arraunkarak  
zijuazen ematen  
ondarruatarrak.

9.—Danak aitorzten dute:  
"Ezkero oiek aiña;  
alperrik da jorzta  
ill una bekaña".

10.—Asko ixildu ditu,  
etzan erreza baiño.  
etorririkan orren  
kuadrilla bikaña.

I I.- Bularra eta zañak  
nekeru ondo ezi,  
estropada orregaitik  
dute irabazi.

12.—Alkar maite dezagun  
garalako anaiak,  
kontu txarrak ekartzen  
ditu gaizki naiak.

13.—Oraindano nagusi  
arraunian izan gera,  
alkar artuaz segi  
dezagun aurrera.

14.—Lenagoko asarriak  
alde batera utzi,  
zuen abilidadea  
orla erakutsi.

15.—Poza ematen dezute  
zuek Donostian,  
nai degu etortzia  
datorren urtian.

16.—Eta edozein moduz  
ez errietan ekin,  
guziok bizi biar  
degu alkarrekin.

17.—Uste gitxienian  
zuek gerta ziñezke,  
negarrez alkarre  
laguntasun eske.



# BERTSO BERRIYAK TXIRRITAK JARRIYAK

1927 estropadetan

1.—Siglo berriyan gaude ogei ta  
zazpigarrengo urtian,  
estropara bat izandu degu  
Kantabriako partian,  
Gipuzkoako Donosti deitzen  
don zitudade batian,  
guziyak alkar istimatuz  
bizi gaitezen pakian.

2.—Estropara ortan San Pedrotarrak  
etorri dira aurrena,  
ogei eta bat segundoz gero  
San Juanguak urrena,  
amalau mutil sasioekuak  
patroia zuten zarrena,  
berrogei eta zazpi urtetan  
bera ez daga txarrena.

3.—Graziak eman biar diozkat  
Manuel Arrillaga orri,  
iru seme ta illobatxo bi  
ditu treñerora ekarri;  
ta bera patroia atzian tente  
arraunarekin zan jarri,  
txoriya bezin alegre giñan  
donen aurretik etorri.

4.—Biba Manuel, patroia leiala,  
San Pedrotarren burua,  
aurten zurruta lasai eguzi  
badadukazu morua;  
zenbaitek aña sesiyo gabe  
dijua zure mundua,  
zure denporan amaika txanpon  
itxasuari kendua.

5.—Gero illaren emerzortziyan  
banderan jokatu zian,  
danak alkarri agur egiñaz  
gizon formulen klasian;  
alkarrentzako gorro txarrik  
etzeukaten biyotzian,  
ta berriz ere len bezelaxe  
San Juandarrek atzian.

6.—Donostiyari ematen dizkat  
ezkerrak eta graziyak,  
amabi milla peseta ditu  
San Pedrok irabaziyak,  
zazpi milla ta bosteun berriz  
San Juandarrentzat utziyak,  
emen eztago miseriyarik  
kontentu gaude guziyak.



7.—Frugarrengo zein etorri zan  
orain nua esatera,  
baldin egiaz egiña boda  
nik letu dedan papera;  
Pasay San Juan da Fuenterrabiya  
zian kasikan batera,  
segundo baten bi kinto ziyon  
diferentziya atera.

8.— Pasay San Juan da Fuenterrabiya  
ziran alkargandik gertu,  
beira jarrita aurrena zein zan  
ezin genduen neurtu;  
nik adituak kontatzen ditut,  
ez iñork punturik artu,  
deskuidoren bat izan zan eta  
irugarren ziran sartu.

9.—Bizkaiatik bat Zierbana zan,  
eta Santurtze bestia,  
juan daneko bi illabetian  
ez noski gutxi kostia;  
donostiarrak atzea xamar,  
nola zan jende gaztia,  
oraindik zerbait egingo dute  
mutil eskasak ezta.

10.—Dinbora asko ezta oraindik  
nire esan diratela,  
enbarkaziyoaz aukera dauka  
bapore eta batera;  
bere kuadrilla gobernatzeko  
ezta izandu motela,  
iru bandera sartu dituzte  
Manuel patroï dutela.

11.—Amazazpi urte zitueneko  
estroparetan asiya,  
alperkeriya ezta arentzat,  
aprobetxatu du sasoia;  
jendar andiko gizon pizkorra  
eta petxua lasaia,  
zori onian patroï jarri zan  
diruz bete du Pasaia.

12.—Urtian beingo dibersiyua  
esta gauza alrebesa,  
San Pedrotarrak aurretik ezetz  
askok egin du trabesa;  
irabaztunak kontentu dira,  
galdu dutenak bajeza,  
biba San Pedro, alkate jauna,  
Andonegi ta Markesal



# BERTSO BERRIAK

1. — Berso berriyen errespuesta  
gustiz umore onian  
igande eguna zelebratzeko  
deskantsuz naguenian,  
nerori ere saltazi naute  
koleratu naizenian,  
zenbait personak ibilli naute  
kulpik gabe mingañean.

2. —Apostu ori jokatu zuten  
oyek Pasaiko parfian,  
mutil gaste fanfarroi oyek  
eziraden aparfian,  
gorputz ederra gorri ta zuri  
'arruan bete betian,  
burla franko egin digute  
irabazi bitarfian.

3. — Frundar oyek apostu arfan  
sayatu dira fuerte,  
intensiyua bazuten baña  
abillidadia aparte,  
ni baldin banitzake  
erri aretako alkate  
preso sartuko nituzke bertan  
piskabat sinsatu arte.

4.—Gizon zar orrek izan bear du  
Miguel Joshe izena,  
orire ezta nere ustian  
oso aloja zuzena,  
orrek guri burla egitia  
guk artu genduen pena,  
orreatikan etorriya da  
sesiyua ori dena.

5. —Gure barkua pare gabia  
CECFLFA da nombratzen,  
lana franko bestiak ori  
ondotikan arrapatzen,  
berriz azitzen baldin ba dira  
apostu ori jokutzen,  
EÑARA ori ikusiko duzue  
lumarik gabe lajutzen.

6.—Koraje onian egon zaitezte  
nere lagun amiguak,  
norbaitek ere entendidu dezala  
nik esantako enbidua,  
egaztiya aire juan ta gero  
zertako tira tirua,  
berriz nai baldin baute jokatu  
emen baziok dirua.

7. —Zuen patroya ori beraz  
don Jose Urtizberea,  
barkua zuzen gidatu baña  
gutxi kurritu aurrera,  
orren aldian gure Ramuntxo  
badu igualeko sarera  
nai ba dezute berriz jokatu  
pozik etorriko gera.

8.—Limosna ederra egin gaituzte  
izana gatik pobriak,  
ezin arturik daude oñaze  
gaitzu orren doloriak,  
esan digute taberna oyetan  
ditugula poderiak,  
arraunian ta bertsutan ere  
Frunen bañon obiak.

9,—Oraingo txandan eman ditugu  
beldurrezko sentiduak,  
ukatzerik eztagon gauza  
pasaitarrak testiguak,  
iru milFa erril paper ta zillar  
dena Alfonson dirua,  
beste orrenbeste arrapatzeko  
ba genduke desigua.

10.—Nagusi gaituk esaten zuten  
probatuta ezagutu,  
uste etzuten arasteluak  
orra ederki garbitu,  
diruz gabetu dira denian  
razoi txarrian abitu,  
irabazi izan baldin ba dute  
oyekin zeñek burutu.

11. — Ez ote zaye jaunak damutu  
gezurra ori esana,  
legian kontra izanik ere  
atsegin zayote fama,  
kantinera orren trajian billa  
jabia beratzen juana,  
etzigutelako entregatutzen  
San Marzialetan emana.

12.—Ondarbiarrak albatutzen  
ni enaiz batere asi,  
ongi egiñak gaikirikaren  
sekulan eztu nerezi,  
burla ta farra egin naian  
eurak sebiltzan lenbizi,  
bost sentimuan amabi berso  
gusto duenak erosi.

(Irun.— Imp. de Valverde)



# BERTSO BERRIYAK.

1928 urteko estropadei. "Gastelu"k egiñak

1. — Milla ta bederatzireun da  
ogei ta zortzigarrena,  
bertso berriyak ateratzeko  
dogo gairik ederrena,  
bi egunetan estropak ziran  
kanpora eta barrena,  
dana irabazi ta zer poza  
aurten Oriyotarrenal

2.—Onadarrabitikan sedafiyua  
bota zuen lendabizi,  
paperetan nola etorri zan  
askok genduen ikusi,  
andikan laster Donostiyara  
ditugu ekarri-azi,  
lendabizikuan jokatzeko  
ez ginduen jarri-azi.

3.—Jose Ugeunekin asiyak  
apustura ztrratzeko,  
orrek in etzutela aiek nai  
Txokolate ekartzeko,  
Manterolak itza eman zuan  
estropa ori jokatzeko,  
orren premiya ba zan erriyan  
diru puska bat sartzeko.

4.—Orduan señalia bota zan  
eta gañera jokua,  
lau milla duro batel da arraun,  
badala uste det naikua,  
eta gañera trabsea franko  
badegu egindakua,  
oiek guziyak Manterola da  
an irabazitakua.

5.—Fnazio Manterola dago  
arraunlanian bikaña,  
orrek ederki artutzen diyo  
bere lanari tamaña,  
orrelakuak leku gutxitan  
orain daude alajaña,  
aurrera ere sano bada orrek  
egingo du askok aña.

6.— Txokolate eta Araneta  
gogor abiyatu zian,  
alkar su eziñikan biyak  
oso biraje luzian,  
baña Fnazio Manterola  
laiste zan gallen-antzian,  
berrogei eta zazpi segundoz  
an utzi zuten atzian.

7.—Arratsaldian berriz jokatzin  
arraunketa ederrian,  
oien artian zer gertatu zan  
nago esan biarran,  
Ondarrabitar ori piska bat  
izanagatik aurrian,  
Iñaziok batel mantsuakin  
segitu ziyon urrian.

8.—Ogei ta emeretzzi segundoz  
Manterolak irabazi,  
ez dakiyenikan baldin bada  
dezala ondo ikasi,  
Txokolatek lan oyeke eginda  
graziyak ditu merezi,  
arraun lanian Ondarrabiko  
Araneta dezu ausi.

9.—Manterola ta kontrariyua  
daude orretan yayuak,  
nolanai ez dirade egiten  
orrelako aziyuak,  
goiz arratsalde egiñak dira  
izugarrizko sayuak,  
biyak dirade arraunlariyak  
orretarako jayuak.

10.—Zer gertatu zan arratsaldian  
nai nuke adierazi,  
baxoko papore bat txistuka  
aguro zitzaigun asi,  
aiengatikan orrelakorik  
iñork etzuen merezi  
zer borondate daukaten oiek  
ederki degu ikasi.

11. —Arraunlariyak egongo dira  
Ondarrabiko partían,  
bañan obiak azaltzen dira  
Oriyotarren artian,  
aurrerare guziyok pakian  
erriyan izan gaitian,  
berriz ere zerbait egingo da  
indarra dan bitartian.

12.—Fillaren ogeian izan dira  
estropa arrigarriyak,  
Oriyotarrak egin dituzte  
marka ikaragarriyak,  
premiyorikan onenak dira  
eguna ortan ekarriyak,  
orrekin eztu kalde izango  
San Nikolasko erriyak.

13 —Kontu pofitak ba dira emen  
orain goguan artzeko,  
zenbait gizonen oponiyua  
beti diruba galtzeko,

baxo aFdeko jende oriyek  
daude guri bengatzeko,  
medikurikan ezin billatu  
lengo miña sendatzeko.

14 Bertso bat orri ataratzeko  
orain artu det idia,  
treñerua ta batel ederrak  
orrek egiñak badia,  
enbargaziyo onak egiten  
dauka abilidadia,  
nun billatu gentzake beste bat  
on dan baño obia?

15,—Ramon Solabarrietak zuen  
aurrenekua atera,  
ta Makazaga urrenguan zan  
gezurrik jarri ote da?  
Biyok ederki egin dute ta  
ez nua gaizki esatera,  
iñork nai ba du onetatikan  
emango diyot papera.



# ESTROPADAK IZANDU DIRA

(1928. Doñua: Frundarrak jarri nizkaten bertsuen giza. Eusebio Mugertza "Mendaro Txirristaka").

1. — Milla bederatzi eun da ogei ta  
zortzigarren urtian,  
estropadak izandu  
ditugu Donostian.

2. — Agorrillaren biyan  
eta bederatzian,  
Alta San Pedrok danak  
utzi ditu atzian.

3.— Ondarrabitarra  
da kuadrilla bikaña,  
bañan etzan iristen  
San Pedrotarrak aña.

4. — Arrillaga jaunari  
dakialado leman,  
merezi duan fama  
biar diogo eman.

5. — Nekearen bitartez  
indar ondo bilduak,  
gizon oiek junturak  
dauzkate zimelduak.

6. — Nagiyak izan gabe  
ongi biurtuak zañak,  
gero egin oi dituzte  
orelako azañak.

7.—Parrandaeri utzirik  
zintzo ibillirikan,  
gero korapillorik  
ez dezaten birikan.

8.— Igez bezela aurten  
arrokeria gabe,  
zuek egin zerate  
oial sedazkuan jabe.

9.—Zubena da dotore  
oial sedazko piña,  
gañeza amabi milla  
pezetako propiña.

10.—Premiyo irugarrena  
San Juanek eraman du,  
balizara jira eman  
ziolako berandu.

11.—Pedro, zu etzerala  
Juanen adizkiria,  
norbaiten mingain txarrak  
jarri du itz-biria.

12.—Ez kasorikan egin  
berritxu olakueri,  
inbiriya baizikan  
ez dizute zueri.

(ESTRFBILLO)

Ta esan dute  
San Pedrori  
alperrikan  
gu gabiltza, a!,  
kendu naian  
giltza.

# BERTSO BERRIYAK

## Abarrategik Jarriak

### 1929 urteko esiropadak

1. —Milla urte ta beatzireun da  
ogeita bederatiyan,  
estropada bat jokatu da  
Agorrillaren zortziyan,  
egun orretan jendia franko  
izandu da Donostiyan,  
sei eritako arraunlariak  
probatu dira urian,  
San Pedrotarrak etorriya da  
beste guztien aurrian.

2. —Amaika ta erdi alde orretan  
kontxan ziraden abitu,  
Santurfze eta Getari ziran  
San Juanekin tokatu,  
beti bezela iru millako  
bidia bear pasatu  
Elkano eta Pasaya ziran  
ederki asko probatu,  
oyen arraunak dantzatzutzia  
askori zayo gустatu.

3.- Bigarren txandan Sestao,  
San Pedro Donostiarrakin jarri,  
beren balizan bergiak erne  
begiratuaz alkarri,  
Joshemaritarrak aruzkuarfan  
bestian aurretik korri,  
beren indarrak aguro samar  
egiañak zituzten neurri,  
Arrilaga jauna bueltakoan  
bakarrik zaigu etorri.

4.- Lau onene prueba utzia  
illaren amabosteko,  
baġta txalupak ere trukatu  
zituzten egun artako,  
Santurtziarran ontzia berriz  
tokatu San Pedrontzako,  
orrek markik egingo zunik  
askok etzuten useko,  
laparda ederra eroria da  
deskuidatudanantzako.

5. —Ogeita emeretzi minutuekin  
berrogei ta irutan pasa,  
ni egunetako nere ustetan  
markori ezta eskasa,  
San Pedrotarrak etorri zian  
bestian aurretik lasa,  
Arrilaga jauna eta kuadrilla  
ezta oso aldrebesa,  
iru urtian irabaziya  
badu naiko interesa.

6.—San Pedrotarrak iru urtian  
iru premio onoreko,  
oiek orrela portautzia  
erriyak ezta kalteko.  
Pasai aldera etorria da  
Makiñatxobat ontzako,  
ogei ta amasei milla peseta  
iru bandera sedasko,  
modu ortako erri batentzat  
ez al da azañik asko?

7.—Sanjunadarra ere ez dago  
Kantabriako txarrena,  
aurten ere orra etorria da  
premiyua bigarrena,  
dotore asko egiten dute  
txalupa gañian lana,  
Pasai aldera etorria da  
aspaldin diru geyena,  
zazpi milla ta bosteun peseta  
aurten eman diotena.

8.—Getarik ere irabazia  
ba daka irugarrena,  
lau milla eta bosteun peseta  
orra tokatu zayona,  
Santurtzek berriz ala biar da  
atera du laugarrena,  
iru bat milla pesetakua  
orri eman diotena,  
ala ere badu pagatuzeko  
bi egunetako jana.




9.—Sestaoarra ta Donostiarra  
premiyo gabe geratu,  
egun orretan oyentzako zan  
sueñe txarra gertatu,  
bañan ala ere egiña dute  
propiña piska bat artu,  
beste batian irabaztia  
egin litzake tokatu,  
urrango urtian txuleta batzuk  
geiago jan da agertu.

10.—Gora San Pedroko arraunlariyak,  
eta gañera patroya,  
oiek ederki artzen diote  
beren lanari neurriya,  
Manuel gazte gazetetik  
orretarako jarriya,  
eta gañera ondo dakina  
itxasoaren berriya,  
Begondiola Arrillaga jauna  
di ruz bete du erriya.

11.—Nunbaitetikan billatzen ditu  
orrek mutillak zaintzuak,  
eta gañera jan dituztenak  
franko arraultza freskuak,  
oiek dituzten mobimentubak  
ez dira oso mantsuak,  
trabesian ere irabaziak  
ba dira kuarto batzuak,  
aurten ez dute diru faltarik  
San Pedro aldeko atzuak.

12.—Aurtengo naiko izango dira  
kantabriko notiziyak,  
oraindik ere mutil pizkorrak  
ba ditu Euskal Erriyak.  
Gazte gazterik itxasorako  
beren gorputzak neurriyak.  
Amabirekin bukatzen dira  
oraingo bertso berriyak,  
denpora pasa kantatutzeko  
Abarrategik jarriyak.

Imprenta Económica - Viteri 3



# 1930 URTEKO ESTROPADEN BERTSO BERRIYAK.

Gazteluk jarriyak

1. —Bertso berriyak orra ipiñi tokatutzen dan moduban, jendia sobre arroyu zaigu Oriyoko inguruban, orain orlako notizirikan esperantzen ez genduban, arrunka asko ta talentu gutxi Getariarren buruban.

2.—Aurten lenengo estroparetan Donostin giñan jokatu, danak dakite, bandera zale San Pedrokuak tokatu, Oriyotarrok giñan bigarren premiyuakin geatu, orain Getariar oriyekin zeñek bear du burutu?

3 —Sei txalupatik irugarrengo premiyatu zan Getari, azaña ori egin dutela bada arrunka ugari, ogei urtian beti atzetik or dabil kuadrilla ori, gerra ematen zer zabiltzate pakian dagueñari?

4.—Arrautzen partez alimentuba daukate lapa gordiña, txalupa azkar eramateko ez da genero bikaña, gabian amets egiten dute bai ote diran gu gaña, iruditzen zait orixen dala oien ipurdiko miña.

5. —Getanarrak zer zabiltzate Onyorekin. tirriyan?  
A ze azañak eginda muten gure Kosta Kantabriyan!  
arrunka gutxi egon liteke kuadrilla arraunkariyan, ogei urtian banderarikan sartutzen ez dan erriyan.

6.—Ogei ez dira iristen baño kunplituak emeretzi, kasu orretna emango ditut bi edo iru abertentzi; oiek jokatu zuten bezela orduban etzan lizentzi, legiaz kontra eramana da etzenduten irabazi.

7.—Getari ortan bedi badira bi iru berri-jariyo, zuen atzetik kasik apropos ibiliya da Oriyo, denbora junda pena izatiak ez du askorik baliyo, zuek añian gelditu gera bandera eta premiyu.

8.—Amabi milla pezta giñuan Donostiyatik ekarri, gastubak egin gañerakuak lasai partitu alkarri, ondoren artan Bilbaun zituzten berriz premiyuak jarri, ara jundare Getariarrak ibilli ditugu larri.

9.—Saiatutzeko aña bazan da prebenituta jun gera, zerbait egingo ote genduen ematen giñon tankera, Getariarrak mutil listuak baño Oriyo atera, guretzat ziran lendabiztko premiyu ta bandera.

10.—Bilbao ortan izandu degu portuna izugarriya, Oriyotarren konsuelua Getariako arriya, iru milla duro premiyu ta bandera gustagarriya, lenguen kontra antxe daukagu bendéinkatuta jarriya.

11.—Guk dadukagun bandera pilla  
ez dago oso tristia,  
Getariarrai kostako zaie  
marka ori iristia,  
aurten ere bi: bat Bilbautikan  
Tolosatikan bestia,  
erri batian Oriyon aña  
iñon egongo eztia.

12.—Utsa onenak izan balira  
estroparako trantzian,  
arraun-lanetik interes gutxi  
sartutzen dute etxian,  
amarretaik bederatzitan  
gelditzen dira atzian,  
lenago ere bagiñakigun  
Getariarrak zer ziran.

13.—Denbora pasa letu itzazute  
Oriyoko abisuak,  
gutxiyagorik ez du merezi  
persona desairosuak,

guk oraindikan sano dauzkagu  
bai oñak eta besuak,  
birtute ori guarda daigula  
Jaungoiko amorosuak.

14.—Geren tokian ondo genden gu  
zer zabilzate tentatzen,  
zeren burubak gora iyuaz  
guri bertsuak kantatzen?  
Ezer motibo geiago gabe  
kristaurik ez da mintzatzen,  
errespuestik izango zanik  
ez al zenduben pentsatzen?

15.—Besterik autan ez degu artzen  
esandakuak bakarrak,  
merezi ere bauzten eta  
orra ordañez ederrak,  
ez gaitu asko ikaratutzen  
oien desaire eta parrak,  
umiltxiago ibili zaitezte  
dios, Getariarrak!

Estropadaoneik Tan jokatu bear ziran, baña egualdi txarragaitik 9 an egin ziran.  
16' an jokatu zan azkena, eta onelaxe geratu ziran:

1. —San Pedro.
- 2.— Orio.
3. —Getaria.
- 4.—Pasai San Juan.
- 5.— Donosti
- 6 —Oikina.



# DONOSTIYAKO ESTROPADARI.

1931

Zabaleta tar Juan <sup>1</sup>ek jarriyak.

Gora bi Pasaitarrak,  
Gora Donostiya,  
Gora Oriyotarrak  
eta Getariya  
Gora Agiñagakuak,  
eta Ondarrabiya,  
aurtengo estropada  
zan ikusgarriya.

Estropadako eguna  
beti da ezagun,  
Festa ederragorik  
ez dalakoz inun,  
zazpiyetako batek  
garailai beartzun,  
San Pedro otero da  
guziyon txapeldun.

Bandera irabazi du  
bostgarren aldiyan  
alakorik ez da pasa  
nere oroitze guziyan,  
arrituta utzi gaitu  
danak Donostiyen,  
San Pedro nagusi da  
kosta Kantabriyan.

Bost bandera segidan  
ori da mutilla,  
gero sariya peztak  
emezortzi milla,  
zergatikan daukaten  
txit potro! abilla,  
Gora Arrillaga ta  
bere Kuadrilla!



# AURTENGO ESTROPADARI TXIRRIKAK JARRIYAK

1931

1.—Bertso berriyak jartzera nua  
estropadaren gañian  
itxas gizonak alabatuaz  
merezi duten añian;  
aurtengo ontan enpeñatu da  
jendia alegiñian,  
bosti atsegin eman diyote  
ospela zeukan oñian.

2.—Biba Manuel Arrillaga ta  
zeren dituzun lagunak,  
gauz ori ontzat artuko degu  
konprendituzten degunak;  
umore onaz pasa ditugu  
estroparako egunak,  
danok konforme gelditu gera  
bistan ikusi degunak.

3.—San Pedrotarrak kontendu dira  
zuek egindako lanaz,  
patroia ere saiaturzen zan  
"tira mutillak" esanaz,  
indar guztiyak azaldu gabe  
nik pentsatuzten dedanaz;  
orain deskantsun egon zaitzte  
naikua jan da eranaz.

4.—Patroiak uju egiten ziyen:  
"fuerte arraunari tira",  
ori aditu degun garaian  
mutillak saiatu dira;  
barkua txuxen eraman zuen  
desio zuen tokira,  
berialaxen eman ziyoten  
bere balizan jira.

5.—San Pedrokuak dute bandera  
Oriyokuak urrena,  
oien ondoren San Juan eta  
Donostiya laugarrena;  
txit errespetoz sartu ziraden  
beren arraian barrena;  
auzan sekulan ikusi degun  
estroparik ederrena.

6.—Lenengo bueltan bi segundoren  
bentajan zegon Oriyo,  
Manuel etzan asko estutu  
gauz ori zala meriyo;  
arrauna fuerte dantzatzen dute  
bera jetxi ta gora iyo,  
aik berdindu ta beste amalaren  
bentaja atera diyo.

7.—Zer sentidutan itz egin dedan  
konprendi zazute arren,  
lenengo bueltan lau txalupa oiek  
alde zireaden alkarren,  
kolka txituak ziruditela  
bata bestiaren urren,  
danak arraunak jaso zituzten  
amaika segundo barren.

8 Getariarrak ziran bostgarren,  
ala enteratu naute,  
eztira ola kostunbratuak  
orain dala zenbat urte;  
bakoitzak bere aietatikan  
enpeñatu dira fuerte,  
zer esanikan ez da oientzat,  
egiñala egin dute.

9.—Ondarrabiko arraunlariyak  
ziran gero seigarrenak,  
gorputz tamaña ederrekuak,  
franko aitu ta gizenak,  
soberbiyarik gabeko mutil  
prestubak eta zuzenak,  
despreziyorik ez du merezi  
fin jokatzten dan gizonak.


10.—Pasa bezela itz egin det,  
ordena ala nuan-da,  
Agoñagako barriyu ori  
oriotarren muan da;  
bandera billa saiatu ziran  
Donostiyara juanda,  
donen atzetik etorri ziran  
norbaitek biar zuan-da.

11.—Eskarrik asko, Donostiyako  
ziudade amantia,  
aurten naikua egin dezute  
orrenbeste ematia,  
ikusirikan badaukatela  
olako borondatia,  
berriz biurtzen ba ditu ere  
mereziko du juatia.

12.—Pasadizuak ikasi ditut  
aldian bizi naiz eta,  
gañera berrez neonek ere  
ñoiz letzen det gazeta,  
ongi kostata irabazten da  
oinbeste milla peseta,  
orain deskatsuz egon zaitezte  
oloz ta ardoz aseta.

13.—Agur Manuel Arrjllaga fa  
konpañi maitagarriya,  
zu zera urterik faltatu gabe  
bost bandera ekarriya;  
orantxe kosta kantabriyari  
artu diozu neurriya,  
biba alkatia Andonaegi ta  
gora San Pedroko erriya.

14.—Aita-semiak, osaba illobak,  
geienak parientiak,  
maisu onaren akolituak,  
jakinduriyaz betiak;  
gañera berrez aldamenetik  
olako ayudantiak,  
atrebentziya barka zazute  
Pasaiko lagun maitiak.



# DONOSTIYA -KO ESTROPADA -RI.

1 932

(Zabaleta tar Juan-ek)

1. — Milla bederatzireunda  
ogeita amabiyan,  
bertsua ipintzera  
orain naiz abiyan,  
San Pedro seigarrena  
oraingo aldiyan  
irabazi dubena  
curten Donostiyan.

2. —Sei urtez errenkan  
dakarte bandera,  
aurtene etorria da  
San Pedro aldera,  
iñork egiten ba dit  
gauz ontan galdera,  
Manuel Arrillaga  
txapeldun zu zera.

3.—Aita San Pedrokuan  
Arrilla patroï,  
bere kuadrillakin  
ipini nai det goi,  
zergatik arraunian  
daukaten txit sasoi,  
bestela etzan etoriko  
seigarren bandera oi.

4. — Kantabriko leoyak  
gaur san Pedron daude  
sei urtian argaitik  
txapeldun dirade,  
nere iritziyare  
esan bear nuke,  
estatua egitia  
merezi luteke.

5.—Mañuel Arrillage  
zu zaude kapitan,  
orrelakorik ezta  
gerta gizalditan,  
apenas ibili den  
lanian tranpitan

sei urtian aurretik  
amaika aldiyan.

6.—"Amaikak" irabazi  
diyo amabiya,  
zerbatikan Balentin  
den patroï aundiya,  
eta kuadrilla ere  
pizkor ta biziya,  
onrak merezi ditu  
gora Donostiyal

7. —Aurretik beti dute  
pizkorraren sonak,  
probatuta ekusten  
dirade gizonak,  
onrak merezi ditu  
patroï Lekuonak,  
eta Ondarrabiyako  
arraunlari onak.

8.—Laugarren Donostiko  
kuadrilla guztia,  
uste bezin atzian  
gelditu eztia,  
ezta txorakeriya  
len ortan astia,  
naikua egin dute  
ainbeste austia.

9.— Bostgarren Sestao da  
Kastro ori seigarren,  
curten probatu dira  
kanpoz eta barren,  
azkeneko sayuan  
bat bestien urren,  
bentaja aundi gabe  
an sartu ziraden.

10.—Aginaga zazpigarren  
Zumaya urrena,



sartu ziraden Kontxan  
balizan barrena,  
onekin bukatu zan  
estropada dena,  
sayatu faltan ezta  
gelditu azkena.

11.—Galderak tristura du  
irabaziyak poz,  
zergatikan ordaña  
etortzen dalakoz,  
ez degu bizi biar

alkarren gorrotoz,  
obe degu pakian  
eta errespetoz.

12.—Amabi bertsorekin  
nai nuke bukatu,  
orra esan estropada  
nola dan jokatu,  
ezer ofentsarikan  
badago barkatu,  
t'urango urte arte  
Jainkuak nai ba du.



# AURTENGO ESTROPADARI TXIRRITAK JARRIYAK

1932

1. —Milla bederatzireun ogetak eta  
amabigarren urtian,  
estropada bat izandu degu  
Donostiyako partian;  
irabaztunak mesede zuten  
galtzallientzat kaltian,  
ausunto ortaz oroituko naiz  
bizirik naizen odian.

2. —Nere lagun bat inguratu zait  
gizon prestuaren giza,  
denbora pasa dibertitzeko  
kantak jarri al ba nitza,  
triste daudenak konsolatzeko  
pensamentuan dabilta,  
aren gustua egitiatik  
baietz eman diot itza.

3.—Agur Pasaiko San Pedrotarrak,  
gora Manuel Arrilla,  
aita ta seme eta illoba  
osatzen dira kuadrilla,  
indar aundiko arraunlariyak  
patroia ere abilla,  
Donostiyara lasai juan ziran  
diur ta bandera billa.

4.—Orain sei bandera errenkaran  
eta len bi ekarriyak,  
San Juandarrakin soziyokua  
an du Miserikordiyak;  
beste txiki bat Tolosatikan  
ongi arturik neurriyak,  
orrekin ere onra ederra  
dauka Pasaiko erriyak.

5.— Lenbizikuan bere lanari  
eman diyote segira,  
jendia pozez egondua da  
aldamenetik begira;  
gero txalupak trukatu eta  
mansotu zaie mugira,  
dirua pranko galdutakuak  
azkenekuan ba dira.

6. —Ondarrabiyak Pasairi ta  
Donostikuak elkari,  
lauak txalupak trukatu eta  
korajez ziraden jarri;  
asteko seña egin zanian  
mugitu ziraden sarri,  
irugarren zan San Pedro baña  
bandera berak ekarri.

7. — Biraje onian Donostiarrak  
etorri ziran aurrena,  
Ondarrabiya bigarren eta  
San Pedro irugarrena;  
nola oientzat tokatu baizan  
txaluparikan txarrena,  
uste zan baño nekexiago  
sartu ziraden barrena.

8.—Pasai San Pedron egun orretan  
gertatuko kasua,  
pixka batian etzait aztuko,  
ementxen daukat jasua;  
"Biba Manuel" esanaz dantzan  
larogei urteko atsuak,  
gazte denboran etzan izango  
fandangolari mantsua.

9.—Lendabiziko lau txalupetan  
etzagon jende narratsa,  
bi bizkaitarrak egin digute  
oso joera garratza,  
biyak batian balizan buelta,  
arraun kolpia zorrotza,  
lendabiziko zein etorri zan  
etzan juz gatzen erreza.

10.—Aginaga ta Zumayak ere  
egin dute alegiña,  
ziran indarrak enpeñatuaz,  
ori da apustu tiña;  
guziyak ezin iritxi degu  
altueneko tamaña,  
atzetik neurtzen errezagoda  
aurretik etortzen baña.

# 1933 KO DONOSTIKO ESTROPADEL.

"PELLO SAIKOLA" bertsolariak egiñak.

(Pello Saikola au PEDRO ARAMBURU, da, Arrua-beko Keixeta baserrian jaioa)

1. —Bi milla urte laister dirade  
Kristo mundura jayorik  
iñori gaizki itz egiteko  
ez daukat opiniyorik;  
Oriyon orain arraun lanian  
ba dogo mutil yayorik,  
makalarentzat ez da izaten  
bandera ta premiyorik.

2.—Lau milla duro iya dirutan  
seda fiñesko bandera,  
Donostiyatik ekarri eta  
bastante kontentu gera,  
San Pedrotikan arrazoi txarrak  
noiznai ba datoz onera,  
seta galanta ba dute baña  
oiek ainbeste ba gera.

3.—Oinbeste diru irabazita  
nola ez gera poztuko?  
Bañan etzaio galdu dubenai  
pizka batian azuko,  
olakorikan pasa zanik  
askok etzuten usteko,  
San Pedron ezto arraunlariyik  
oriyotarrak austeko.

4.—Gipuzkuatik bost giñan eta  
beste bat Bizkaiatikan,  
arraun lanian saiatu dira  
danak oso gogotikan,  
oriyotarrak ez giñan asko  
estutzen oiengatikan,  
bi egunetan lasai etorri  
gera donan aurtikan.

5. —Bi kopa eder ekarri ditu  
banderarekin batian,  
ongi portatu geradelako  
Donostiyako partian,  
diruba pranko sartu da aurten  
erriyak ez du kaltian,

zuek auzitzen zalla izango da  
beste amar bat urfian.

6.—Otiyokuak premiyo onena  
San Pedrotarrak urrena,  
Ondarrabitik bi ziran eta  
irugarrengo ta azkena;  
Donostiyako Amaika Bat i  
eman zaio laugarrena,  
ta Sestaoko kuadrilla ori  
gelditu da bosgarrena.

7. —Oraindik ere mutil pizkorrak  
erri onetan bu daude,  
oien pruebak ikusi eta  
danok arrituta gaude;  
San Pedrokuak Oriyorena  
allegatzen ez dirade,  
orregatikan gure atzetik  
oiek ibilli dirade.

8.—Bei zat bat aurten jan ornen dute  
dana lanparoiz betia,  
nola na-ezute klase orrekien  
txalupa azkar jutia?  
Estropa orlan arfuba año  
izango dute botia,  
ez dago ola osaturikan  
esposatzeko dotia.

9.—San Pedrotarrak bandera baietz  
egiten zuten trabesa,  
kuadrilla ori sosegatuzten  
etzegon oso erreza,  
diruba bota kupira gabe  
oso estu eta presa,  
inguru orlan galdu dituzte  
makiña baf interesa.

10.—Arraunlariya obia franko  
fa dago itxas ertzian,  
danen aurretik etorri biar

onenak izan ba zian:  
Arrillaga oi guziyen aita  
gelditu zaigu atzian,  
iñoiz añeko konsuelorik  
ezta izango etxian.

11.—Jokuak beti berekin dauka  
galdutzeko arriskua,  
makinat ditu partituba da  
ori besteren eskua,  
orain or dabil gelditu gabe  
arraskatubaz kaskua,  
Arrillagari pasatu zaio  
uste etzuben txaskua.

12.—Bere ustetan bandera zeuken  
Errereraño eramana,  
andik aurrera kosta zaiote  
bazuten naikua lana,  
asper gaiztuan eztute ibili  
oiek ainbeste afano,  
bein irabazi baño lenago  
ez du jo biar kanpana.

13.—Arrilaga ta bere koadrilla  
geldituba da seriyo,  
aurtengo ontan erri-aldia  
ez dute asko gora iyo.  
bere ustetan irabazteko  
zeuden izugarri fiyo,  
bandera pozik emango zuten  
juan ezipalitz Oriyo.

14.—San Pedrotarrak usteko zuten  
zirala berak bakarrak,  
bañan otero azi dizkagu  
oien abotik aparrak,  
al Arrillaga, goguan dauzkau  
guk zure arrazoi txarrak,  
por si acaso aitu al dira  
zuen txuleten indarrak?

15.—Ai Arrillaga, ibili dezu  
fanfarroikeia ugari,  
bueltak onela etortzen zaizka  
len arro dabillenari,  
obeditzia askozaz obe  
geiagokua donan,

leku onian geldituba da  
Aita San Pedroko ori.

16. Oriyotarrak irabazita  
dauzkagun konsueluak,  
arraun lanian geradelako  
oipaño obiaguak,  
Donosti orlan jo dizkigute  
bereziko txaluak,  
oien txuletak ainbeste indar  
badu emengo taluak.

17.—Oriyon dagon aurrelariya  
Fnazio Sarasua,  
onek arraunai ematen diyo  
sekulako tirazua,  
ta gañerako koadrilla ere  
gaztia ta indartsua,  
biba Domingo patroï maitia,  
zu zera oien maisua.

18.—Onena danak irabazten du  
eztu baliyo tirriyak,  
aldez aurretik izan dirade  
afana izugarriyak,  
orain ederki umildu dira  
lengo arrunkalariyak,  
zer diran ondo probatu ditu  
Pasaiko arraunlariyak.

19.—Oriyo ontan txiki ta aundi  
ogei banderaño dira,  
olako pillak ezin ekarri  
makalak izan balira,  
ta urtetikan urtera beti  
oñadituzten ai dira,  
obek lan txarrak emangoituzte  
berriz e sano badira.

20.—Bertso berriyak orra ipiñi  
arraunlariya oyeeri  
mereziz ere badituztela  
irudituzten zait neri,  
bañan eskerrak ematen zaizke  
irabazten dutenari,  
oso ederki egin dute ta  
gora Oriyotarrari.

# BERTSO BERRIYAK.

1933 urtekoak (Egille ez ezaguna)

1.—Onra aundiyak merezi ditu  
aurtengo ontan Kantabriyak  
auzotik nola izan diraden  
asarre izugarriyak,  
motibo ori dala meriyo  
dirade bertso berriyak,  
fama aundiyak merezi ditu  
ortan Oriyoko erriyak.

2.—Fñola ezin utzi nezake  
San Pedro nua sartzera,  
gizon askotxo gertatzen dira  
da atso asko saltsera,  
aurtengo ontan izana dute  
bereziko aukera,  
uste etzutena gertatu zaie:  
gelditza atzera,

Desio izutet urte askuan  
abildade a osasuna,  
danak dakite ederki asko  
asko baliyo dezuna,  
enteratuta arkitzen gera  
irabazi ziguzuna,  
argatik alkar probatuzera  
juan giñaden Fruña.

4. -- Enteratuta arkitzen gera  
aurtengo pasadizuak,  
danak arrotuta ibilli dira  
anai eta lengusuak,  
igualmente juzga litezke  
nola ume ta atsuak,  
nolabait ere deskuitadu ida  
ego gabeko usuak.

5.—Arrillaga akordatzen al zera  
berdeletara juanda,  
etzanda antxe gebiltzaden gu  
indarrrik ezkenduben da,  
oso arrituta gelditu nitzan  
gizon on batek esanda,  
burla egiten zertako jardun  
motiborikan etzan da?

6.—Bein ere etziguzun ematen  
Arrillaga arrazoi onik,  
iñork ez dizu deklaratu  
guk kulpikan gendubenik,  
animaliyak ere ez dit eman  
sekula ortako miñik,  
pentsatzen nuben ote ziñaden  
beste moduko personik.

7.—Oso onduan ibilli gera  
udaran eta neguban,  
aurten orlako estropozorik  
pentsatuzten etzenduban,  
akordatzia nai nuke beti  
zer burla egin zenduban,  
zu bezelaxe bestiak ere  
jaio giñaden munduban.

8.—Orra, kiristauak, mundu onetan  
nola izaten dan griña,  
sasoi nagon bin bitartian  
dantzatuko det mingaña,  
sekulan etzait neri aztuko  
zuk antxen gaizki egiña,  
etzaizu laister sendatuko  
aurtengo tripako miña.

9.—Urte betian gobernatuta  
Paulinokin ziñan irten,  
Oriyo ontan sartu dirade  
iru bandera eder aurten,  
mundu ontara jaio giñaden  
makiña bat asto kerten,  
eskarmentatziagaitikan  
berrizko jakin dezaten.

10.—Lenbizikua Tolosatikan,  
bigarrena Frundikan,  
Donostira berriz juan giñaden  
probatutziagaitikan,  
oso arrotuta gizon batzuek  
irtenak San Pedrotikan,  
banderarikan ederrena guk  
ekarri gendun andikan.

11.—Gure Jainkuak eman ziraden  
indarra eta graziya,  
egon ziñezke urte batzutan  
lanteri ortan etsiya,  
sei urtian nagusi izanda  
oixen da diferentziya,  
aurtengo ontan borraratunitugu  
da guretzat da auziya.

12.— Itzegingo det biar bezela  
alain gogor eta sendo,  
laguntzallien faltik ez daukat  
kantatu biar det ondo,  
orlako markik egin dubenik  
inguru auetan nun do?  
Aurten San Pedroi Oriyok kendu  
berrogei ta bi segundo.

13.—Oriyo ontan gertatzen dira  
makiña bat talo jale,  
testigun bistan arrazoi ori  
askotan esana zaude,  
polborik gabe tiro gaizto bat  
guri zuk botia dale,  
uste ez arren zure aurretik  
etorri giñan alare.

14. — Diferentziak beti dirade  
nola antxo ta sardiña,  
gauza igualtsubak gertatzen dira  
ala ezurra eta zaña,  
zuretze dator, ai Arrillaga,  
lenago gaizki itz egiña,  
gure taluak gaur baliyo du  
zure txuleta oñak aña.

15.—Naiz uste arren zerala zerbait  
ez degu zure bildurrik,  
projimua ezta postura orretan  
gaizki tratatu biarrik,  
ikusi dira amalau mutil  
igualmente bakarrik,  
zure ustiak zerbait badira  
bañan zabilta alperrik.

16.—Arrillaga, nik ba dakit ondo  
gizon formal bat zerala,  
amaika bider esan diguzu  
gu ijituak gerala,  
bañan sekulan ez gera ibilli  
zu zabiltzan bezela,  
gu aurten abilla atera gera,  
zu berriz oso motela.

17.—Ai, Arrillaga, izan dituzu  
zeure buruko ustiak,  
lastima auxe dadukazuna  
juan zaizkizu urtiak,  
larriturikan arkitzen dira  
zure barrengo estiak,  
biba patroia lendabiziko  
ta Oriyoko gaztiak.

18. —Akordatutzen al zera, aizu,  
lengo istori zarrían,  
milla bederatzireun eta  
lendabiziko urtian?  
Oriyotarrak orduban ere  
izan ziran suertian,  
gauza oriyek akorda zaitetz  
bizi zeraden odian.

19.—Amabost bandera ba daude  
granorik ez da txarrikan  
amalau garbi irabaziyak  
dira Kantabriyatikan,  
egiyak garbi esaten ditut,  
batere ez da gezurrikan,  
amabostgarrena ekarriya zan  
jaunak, estranjeritikan.

20.—Sarasua da mutil pizkor bat  
Txokolate ez da debilla,  
Solabarrieta kasikan berriz  
balorez oso abilla,  
patroia, zuri emate izkitzut  
orra eskerrak nik milla,  
beste bat arte, biba esaten det  
San Nikolasko kuadrilla!

# BERTSO BERRIYAK.

Oriotarrei erantzuerak.

1933 ko estropadetakuak

(Estropada oneitako sei bertso paper batu ziran beintzat.

Oriotarrak arro agertu ziralako, erantzuerak be artu zituezan. Au bat. Egillea, ez da ezagutzen)

Estropada oneitan onelaxe geratu ziran

- 1.—Orio.
- 2.—Ondarribia.
- 3.—Donostia (Amaikak Bat)
- 4.— Santurze.
- 5.—San Pedro.
- 6.— Luchana.
- 7.—Donostia (Empuje).

1.—Milla bederatzia eun eta gañera ogeita amaituan, bertso berriyak jartzera nua artu ditzaten goguan. Oriyotarrak arro xamarrak juanak dira orainguan, lengo beiaren larrua emen det gordin nere okulluan.

2.—Bigarrenari jarri beaiot tokatzen zaion klasera, jakin dezten nola dabiltzan ijito eta trapera, San Pedrotarrak orain bi urte —akordatutzen al zera?- zuek bezela, eztga geratu diguntuaren antzera.

3.— Enteratuta arkitzen naiz ni aurtengo pasadizuak, arrotu eta juanak ditugu aurten gure ijituak, zesto barriyak egingo ituzu eraman bauzu naibuak, guk sobrantia badegu oraindik len irabazitakuak.

4.—Antonio Mari, ez al zerade oraindikan akordatzen,

oraintxe dala iru bat urte nola etorri ziñaden? Egunsentiyan Kontxara juan da marka guziyak probatzen, kanderakuan or geatu zan besten putz usaiak biltzen.

5.— Manuel Arrillaga izandu da gizon ona eta justua, bere denporan okasiyoric iñon jarri gabekua, merezi luke edukitza estatu baten modua, zergatik beñere eztan izandu zubek bezin saltserua.

6.—Osaba illobak eta semiak arro ibilli dirala, edozeñek esango dizute motibua ba dutela, sei bandera eder gorbatarekin gañera bi kopa dela, kostako zaiio ijituari marka au ondutzen onela.

7.—Aurten olako estropozorik ez gendubelapentsatzen, lenagotikan oitua zera aundiaguak arfutzen, etxeko beiak eta zekorrak guziyak dana galdutzen, Txokolate ta kafe esniak ez al dira gogoratzen?

8.— Urte betian gobernatzuten euki degula gizona, señaile oraindik sobrante deula len irabazi genduna,

lotsa guxikin esaten dezu  
gosiak euki deguna,  
errukiturik utzi dizugu  
aurten eraman dezuna.

9.—Naiz uste arren ba zeratela  
San Pedroko zarrak aña,  
kostako zaitzu ordaindutzia  
oiek egindado azaña,  
gaizki esaka dantzatu dezu  
nere ustetan mingaña,  
Oriyo orlan zein da gizonik  
baliyo dunik oik año?

10.—Esaten dute juan zaizkiyola  
Arrillagari urtiak,  
baña oraindik osasunakin  
gaude animoz betiak,  
mesederikan ez izan arren  
baizik berentzat kaltiak,  
zere denporan amaika bati  
itxi dizkatzu atiak.

11.—Orra, kristabak, nola izatea dan  
munduan zenbait griña,  
ordañarikan etzan izango  
ixilik egon baziñak,  
beti ijitua antolatzen da  
izketan ain da apaña,  
beste batian ondo pentsatu  
nola dantzatu mingaña.

12.—Amabigarren bertsuarekin  
au da nere despedida,  
Asteasu gazte orreri  
jarri nai diyot segida,  
nai leuke baña ezta irixten  
bertsolariyen neurrira,  
baldin oberik ez ba du jartzen  
egin lezake erretira.

(Imp Macazaga-Renteria)

1 933 ko estropadetan

1. — Lendabizkoak neriak ziran da zuenak bigarrenak, eraingo ontan jarriko ditut guztiyetan ederrenak, San Pedro ortatik etorri dira izugarritzko ordenak, besteri lotsak eman nai dizke berak batere ez dutenak.
2. —Kulparik gabe esaten dezu gu difuntuak gerala, sinista zazu oraindik ere sano arkitzen gerala, ordañak jarri biar dizkizut merezi dezun bezela, aitormen on bat izan dezazun bertsolari nai bezela.
- 3.— Milla bat bider ibilliya naiz bizon onaren bañan, oraingo ontan ikusiko dira bertsolariyak zein dian, iñola ezin gelditu neike San Pedrotarren mendian, lengua bezela ez nazute ni arrapatuko sanan.
- 4.— Motiboik gabe artu dezute bajaturik Txokolate, señalaturik danak batian nola esne eta kafe, pakia beti ibilli izan da zuengatikan aparte, onen mendian urte batzutan izan biarko dezute.
- 5.—Txokolate au artu dalako oso arrotzen ai dira, Kantabri ontan ori gañako arraunlariyak nun dira? orain jo naiez arkitzen dira nunbait orrekin benzida, gu orain ere gertu gerade beste bi baldin ba dira.
6. — Zertan esaten digu Joxe motiboik gabe gezurrik, galdu itugula nola larru ta igualmente ezurrik? oso pobriak gerade baño ez degu zure bildurrik, Oriyo ontan beñere ezta falta izango txekorrik.
7. —Amaika orlako gaizki esale sartu ziraden munduan, olain txarra zu ziñadenikan asko pentsatzen ez nuban, bueltarik ainbat etzala izango zuk ala uste zenduban, gure beiak kabitzeko ainbat leku ez da zire ukulluban.
- 8.—Bertso oriyek jarri dituna ai zer nolako gizona, motibo ori eman dulako ez da izango itz ona, bere burubai ematen ai da izugarritzko afana, begi oker ori zuzendutzeroa jua zinezke Vidaurrena.
- 9.—Diferentezko gauzak dirade nola leor da putzubak, oin traiziyuak eztaguzkagu oraindik danak aztubak, Arrillaga orri irtenak zaizka izugarritzko aunditxubak, oiek guztiyak sendatuko izka don Vidaur jaun medikuak.
- 10.— la gogua artutzen dezun zuk gaste onen esana, naiz kasik iya betenayuen gradura iristen naizena, olain gaizki zu egotia nik artutzen dedaden pena, Vidaurrek sendatu ezin bazaitu etorri zaitez nigana.



11.—Lau probintzian nola izan diran komeri izugarriyak,  
bigarren bueltan jarri beicut  
gutziz arrazoi garbiyak,  
oraindik ere ez gaitu ilko  
nola gose eta egarriyak,  
gaizki esaten jarden dirade  
urdai gabeko zerriyak.

12.—Bekulan neri etzaizkit aztuko  
Arrillagak esandako itzak:  
"Gure aldian geio dirala  
beti esanez zebiltzak".  
Oraingo ontan aitorfutzeko  
moduban dirade gaitzak,  
San Nikolasek kendubak dizka  
San Pedrotarrak giltzak.

13.—Amaika bidar esana zaude  
gu ez gerala azkarrak,  
egiyak garbi deklaratzeko itut  
apenas diran gezurrak,  
jaiotzatikan pizkorrak dira  
gure zain eta ezurrak,  
guk zuben putzak artu giñuben  
zeuntzat gure puzkerrak.

14.—Arrazoi asko jarri dituzte  
olain gaizki ta itxusi,  
errespetua lendabiziko  
egin biar da ikasi,  
ben marka guzik borratuarren  
alare ezin iritxi,  
gora Mitxelena kuadrillarekin  
zu zera oien nagusi.

15.—Juan dan urtian nola ibilli ziñan  
ez al zerate akordatzen?  
Donostiarren mendian kasik  
antxen gelditu ziñaden,  
zertan ai zera esaten beti  
izan zeradela gallen?  
bate banderikan gabe antxen zu  
iya gelditu ziñaden.

16.—Zuek bezela bestiak ere  
beti dabilta esperanzan,  
sei urtian oian ibili zerate  
bildurrik gabe arrantzan,  
zuen gradu ori noizebait ere  
mudatzia komendi dan.  
Donostiarrentzat ordun bandera  
urikan satu ez ba zan.

17.—San Pedrotarrak zuentzat ere  
beti badute arrabiya,  
bi urte ortan erakutsiyozu  
gutziz istillu gorriya,  
zertan kristauak biar du izan  
postura ortako itriya?  
aurten ariyek atzetik ziran,  
aurretik Ondarrabiya.

18.—Merezi dute kuadrilla onek  
gutzizko fama ederrak,  
ainbeste gañekok nola diraden  
zuen beso ta bularrak,  
estu ta larri ibilli ituzte  
oriyek San Pedrotarrak,  
noizebait ere komeni zan da  
gora Ondarrabitarrak!

19.—Neurtu ditut biar bezela  
nik Joxe orren pausuak,  
begi batetik arfuba dauka  
oso ziara lausuak,  
tamaña onetan etortzen dira  
mundu onetan kasuak,  
zuriak itzak bakarrik ziran,  
obek dirade berfsuak.

20.—Jarriko dizut nai dan tokiyan  
egokitzen dan aukera,  
oneian ezin ezer eginda  
zu juan zaude txarrera,  
amaika txoro zur tabernan  
engañatutzen ai zera,  
naizun tokira ezaldu zaitez  
neretzat gauza ba zera.

l 933 urteko estropadetakuak.

1. — Pasadizuak biar bezela  
ai ba nitza esplikatu,  
bertso berriyak jartzera nua  
gusto dubenak kantatu,  
Donosti ortan giñadeloko  
noizbait bigarren gertatu,  
orain San Pedrotar oriyekin  
zenek bear du burutu?

2.—Ejenplo piñal gaztetan artu  
ona nal duanan zartzara,  
notizi oiek juango zaizkitzu  
belarriaren ertzera;  
irabazi ezun urte orlan e  
marka aundik egiña etzera,  
lene askotan geldidu izan zan  
Pedro gure atzera.

3.—Oraintxen dala iru bat urte  
bajatu giñala bera,  
oietatikan notizi ori  
allegatu da oneram  
ogei ta zortzi milla pezeta  
ta gañera bi bandera,  
urte orlan e irabazita  
ekarritakok gu gera.

4.—Orain bi urte giñala berriz  
difuntubaren antzera,  
orduban ere giñan bigarren  
premiyuak etxera,  
zenbat aurrera pasa zaizkizun  
akordatzen ez al zera'?,  
aurten zedorri bosgarrenakin  
putz usai taten or zera.

5 —Errukituta egin dutela  
lrungo aldeko joera,  
oiek besterik ezin daneko  
erremedyuak dira,  
an trabesian. bete giñuen  
boltsikuk eta kartera,  
Sarasua da irabaziya  
milla pezta tu bandera.

6.—Gauza oriek nola diraden  
jendiak ondo dakizki,  
kasu orretan San Pedrotarrai  
barri biar dizket itz bi;  
sei urtetan sei banderarekin  
arro xamar dira noski,  
iru urtetan irabaziyak  
Oriyon dauzkugo zazpi.

7. —Kale esnia artzen degu  
jaikita laster goizian,  
txokolatia komeni bada  
igual arratsaldian;  
zenbaiti irteten zaio gezurra  
auko zuluua betian,  
gure txekorrik eta beyikan  
ez dute Pasai aldian.

8.—Txekorrak eta beiak galduta  
sartu gerala etxurra,  
lotsarik gabe iritxi dira  
ori paperan jartzera,  
ez enpeñatu guzurrarekin  
jendia engañatzera,  
zenbat tresabi dauzkagun urtik  
etorri ikusitzera.

9.—Oriyo ontan zein dan gizonik  
baliyo dunik oik año?  
berak atzetik nola ibilli  
ezkasaguak bu giña?  
Bi estropetan guk degu aurtan  
markik aundina egiña,  
bertsolarin bat billatu dute  
bastante gutxi jakiña.

10.—Geren enploion segi dezagun  
gu ijituak ba gera,  
toki askotan ikusten dira  
Oriyon aña trapera,  
automobil bat kargatu eta  
denpora labor or gera,  
aurreratuta emen dauzkagun  
zesto barriyak saltzera.

11 —Ontara naizen ezkero biat  
beste kaso bat berritu,  
baporiari arrika tiraka  
nota zaizkigun abitu,  
au adituta gure aitonak  
etziran gutxi arritu,  
sufritu eziñak olako lanak  
askotan ekartzen ditu.

12.—Oriyotarrak au ikustian  
ai oien mugimentuak!  
dudarik gabe egongo ziran  
lenago preparatuak;  
mendirak juanda izanik dira  
arriz beteta kolduak,  
aziyo ederrak eginda daude  
erri ortako golfuak.

13.—Sujeto batzuk ikusi giñun  
abiyatutzen korrika,  
soldadu oiek baziruditen  
zijuazela Afrika,

menditik laister ekin zioten  
baporiari arrika,  
erri ortatik ezta aparte  
iñuzentien fabrika.

14.—Ez dira asko enpeñatubak  
errespetua gordetzen,  
lanikan asko ba dauke oiek  
besteren ona sufrintzen;  
gizonak ez du ondo ematen  
beti besteri mengatzen,  
kontzientziya kargatzen danik  
ez al dezute pentsatzen?

15.—Amabost garren bertsuarekin  
nua bukaera billa,  
gazte jende au osasunakin  
ondo gertatu dedilla;  
ai ijituen mugimentuba  
ezta izaten debilla,  
beste urte bat artian agur  
Arrillazaga ta kuadrilla.

(i mpr. Elustondo-Zarauz)



# ZORTZI TREÑERU

1933 ko estropadefakuak.

1. — .....

zortzi treñero jokatu dira  
danak alkarren pelian,  
aurten ederki azaldu dira  
mutil pizkorrak nun dian.

2. — Gipuzkoatikan bost giñan eta  
beste iru Bizkoiatikan,  
premiyua ta banderarekin  
arriskatziagatikan,  
gazte jendia preparatuta  
jun giñan Oriyotikan,  
bi egunetan lasai ibilli  
gera danen aurretikan.

3.—Donostiarak ziran bigarren  
lendabiziko jayian,  
Ondarrabiya aurrera pasa  
zitzaion bigarrenian,  
alare beti kuadrilla ori  
dabil umore onian,  
zortzitatikan irugarrengo  
gelditu diradenian.

4. —Du Amaikak bat izena ta  
Donostiyakuak dira,  
ero askotako arraunlariyak  
dauzkaten soziedadia,  
oiek kastuben kuprik gabe  
preparatzen ornen dia,  
oraindik geio kastako zaie  
bandera irabaztia.

5.— ..... deskuiduak  
..... munduan,  
..... Arrillagak  
zer suerte izandu duan;  
Aginaga ta orlako asko  
gertatu oi diran moduan,  
aurten San Pedro ibilliya da  
banderatikan kanpuan.

6. —Beren ustetan Kantabri ontan  
zeudenan kanpeonatu,  
au rten bostgarren premiyaikin  
San Pedro zaigu gertatu:  
uste etzuten kuadrilla asko  
aurrera zaie pasatu,  
zer kontatuba izango zuten  
guk ori egin ba gendu.

7. — Zerbaiten poza izan dezaten  
lengo kuadrilla zarfzera,  
orain guk lana egiten degu  
oriyen !ango antzera;  
zer edertasun daukagun emen  
nua adierazitza,  
mantxarrik gabe irabaziyak  
dauzkagu amabost bandera.

8.—Tolosatik bi, Zarauztikan bat  
beste bi berriz Frundik,  
Getarrarai irabazita  
seigarrengua Bilbotik;  
beste zorfzirak Donostiatikan  
lana eginda gogotik,  
amabostagarren ori aspaldi  
ekarri gendun Frantzitik.


9.—Iñolañian ez gijuazen  
usariyu oi galtzera,  
bikaivari alde z aurretik  
eman giñun aditzera;  
Juan giñan iru bandera berri  
aurtengoak bedeinkatzera,  
lenguak berriz eraman giñun  
oiek akonpañatzera.

10. —Tolosan jartzen diran premiyoak  
beste erritako leger,  
puntziyo arfara San Juanetan  
dauka jendiak joera;  
irabazteko gaña bentaja  
an ere lasai alero,  
Solabarrietak ekarri zigun  
ango lenengo bandera

11.—Lana egiten dubenai beti  
tokatzen zaio jornala,  
Txokolate da irabaziya  
jokua ta bi batela;  
Sarasua da orain sasoiari  
orduan oiek bezela,  
bi arraunian Oryron dago  
Gipuzkoako txapela.

12. —Amabigarren bertsuarekin  
bukatzera nua salla,  
iñora ezin jua gindezke  
patroi obiaren billa;  
urten askotan aurten bezela  
ondo portatu dedillo,  
gora Oriyoko arraunlariyak  
Mitxelena eta kuadrilla.

(Puntuetan dagozan zatiak, apurtu ta agertzen dira paperian).  
(Imp. Elustondo-Zarauz)



# BERTSO BERRIYAK, MARZIAL URTZEGIAKJARRIYAK GORA ORIYOTARRAK! GORA AMAIKATARRAK!

1. —Milla ta bederatzí eun da  
oi ta amairugarren urfian,  
bertso berriyak jartzera nua  
arraunlariyen artian,  
zortzi trainera oso ederki  
jokatu dute Donostiyako playian,  
arraunlaririk etzaigu azaldu  
Oriyotarren aurrian.
2. —San Pedrokuak galdezka daude:  
"Oriyokuak nunzian?"  
berai begira jarriyak daude  
presentatuta ontzian,  
ogei segundo gutxienezko  
kendu zioten aurtzian,  
beste emeretzi konpleto berriz  
artu dizkiote onuntzian.
3. — Pasau San Pedro urrengo urteko  
preparatuta egongo da,  
urte betia pasia do ta  
ustez ba doia denbora,  
aurten bezela obe du ez Juan  
gaubez prueba egitera,  
bestela berriz bandera ere  
juango da Oriyo aldera.
- 4 —San Pedrotarrak sei urte ontan  
eraman dute sei bandera,  
abildadia zegon edo ez  
orfikon kontubak atera,  
aurtengo urtian etorri zaigu  
Donostiarrak austera,  
bañan alare Joxe Maritarrak  
utzi dituzte atzera.
- 5 —Oriyotikan etorri zaigu  
bastante jende trebia,  
Juan dan urtetan ez da egondu  
iñork aitatu gabia,  
uste detanez ekarri dute  
sobrante abildadia,  
beren trañiera berri orrekin  
aidian ibilli dia.
- 6.—Ondarrabiya premiuetan  
sartu zaigu bigarrena,  
berai lagunduz aldamenian  
Oriyotarrena aurrera.  
Santurzetar gizon famatuak  
tokatu dira laugarrena,  
oik e kontentu juan dirade  
eztue premiyo txarrera.
7. —Arraunlariyak nai dubenak  
Oriyo aldera beiratu,  
bakarka ere egiten dute  
dotore sumar jokatu,  
bat Txokolate, Manterola da  
koñadu Fnazio Sarasu,  
aurtengo urfian bi bandera  
ekarriya zera zu.
- 8.—Aurtengo urfian iru bandera  
sartu dituzte errrian,  
kuadrilla ederra ekarri dute  
Jaungoikuaren graziyan,  
San Pedrotarrak paliza ederra  
artu dute Donostiyan,  
Oriyo austekoik ezta egongo  
Kosta Kantabri guziyan.
- 9.—Oriyotarrak mutil berriya  
ekarri dute ankian,  
batere etzula orrek baliyo  
esandakuak ba zian,  
baña alare kontrako guzik  
utzi dituzte atzian,  
ojala ola etorriko ba litz  
berriz urrengo urfian.
- 10.—San Pedrotarra desapiyoka  
alperrik zertan ai zera,  
bakarra ere nai baldi badu  
Oriyo kontra atera,  
Sarasu orrek kendu diote  
aurten ere bi bandera,  
ez txalopetan, ez traineretan,  
allegatutzen etzera.

11.—Oriyon ba do abildadia  
nai dubenak aditu,  
aurtengo urtian iru bandera  
ateriak e baditu,  
aurten eindako marka oiekin  
egin liteke arritu,  
San Pedrotarra gauza ez dalako  
bostgarren zaigu gelditu.

12.—Aurrera ola segitu diyon  
guk lengo lege zarrari,  
bestela igual leku txarrera  
egingo gera erori,  
bentaja ederra kendu diyote  
aurten San Pedrotarrari,  
**neronek ala desio nuben,**  
**biba Oriyotarrari.**

13. — Oriyotarrak merezi ituzte  
eskerrak eta graziyak,  
aurtengo urtian treñero ortan  
presentatu dian guziyak,  
eraman dituzte premiyua eta  
beren bandera guziyak,  
propina txarrrik eman dutenik  
ezin esan Donostiyak.

14.—San Pedrotarra erretiatu da  
aurten ederki etsita,  
ezer ein gabe gelditu zaigu  
zerbait bazala asita,  
kuadrilla ori balijuake  
ben treñerua utzita,  
Oriyok aurten emango zitun  
erremolkiak eantzita.

15.—San Pedrotarra oiekin ere  
jarri gaude arritzen,  
etorri dira seigarren aiek  
kaka-usaia aritzen,  
abildaderik eztauke eta  
nola etzuen segitzen.  
Oriyotarran aurtengo lanak  
eztiyo oneik egiten.

16 — **Donostiarrak, segi zazute**  
**asi zeraten lanian,**  
aurtengo urtian ibille zeate  
San Pedrotarren gañian,  
gaizki esaka ai ornen dira  
jendiak diyotenian,  
baño alare ez dia sartu  
Amaikak-Bat en aurrian.

Imp. Macazaga Renteria.



# BERTSO BERRIYAK- AXENTZIO TXANKAK JARRIAK.

1934

1. — Pasadizuak adierazteko  
ipini naute binan,  
milla urte ta bederatzireun da  
oi ta amalaugarrenian,  
bost bandera eder sartu dirade  
Oriyoko erri noblian,  
ortik kontuba otero leike  
arraunlariyak nun dian.

2. —Aurten lenengo treñero estropak  
Bilbon zaizkigu jokatu,  
premyorik onena zaie  
Sestaoarra tokatu;  
Agorrillaren beatzin gera  
berriz Donostian probatu,  
emendik bueltan ez dira juanak  
etorri bezin kontentu.

3. —Estropa ortatik bigarrenakin  
etorri giñaden baña,  
txalupa zuten luzeagua,  
lijerua ta ariña;  
enbarkaziyo igualtsuakin  
danok jokatu bagiña,  
Bilbaon bertan azalduko zan  
Sestaoarren azaña.

4.—San Pedrotarren konsuelua  
Bilbon Oriyok galduta,  
landua jotzen jardunak dira  
kankarta zarrak artuta,  
beti burutik ibilli naiak  
orlako lanak dituta,  
jokatu dira erri askotatik  
arraunlariyak sartuta.

5. —Arrillagaren erronkak aurten  
etzuten asko baliyo.  
"biren erdiyan daukat bandera"  
esaten zuben propiyo;  
ipurdikua artu du prankok  
ori dalako meriyo,  
galdu debenak or konpon bitez,  
lontentuz laga Oriyo.

6.— Bost erritatikan sei treñero  
Donostin gera jokatu,  
or jartzen duten biaje ori  
zeñek lenengo pasatu,  
banderakuan kuadrilla asko  
zaizka aurretik plantatu,  
aurten San Pedro bigarrenakin  
izan liteke kontentu.

7.— Lendabiziko Oriyokua,  
San Pedro da bigarrena,  
Ondarrabitar legor aldeko  
kuadrilla irugarrena,  
Donostiarrak dira laugarren,  
Sestao da bosgarrena,  
Ondarrabiko arrantzaliak  
seigarrengo ta azkena.

8.— Estropa orrek premiya du  
ez da izaten apustuba,  
funtziyo ori ikustia da  
jende askoren gustuba;  
zer kantidade partitzen duten  
etzadukagu aztuba,  
portatzen zaigu Donostiyako  
Ayuntamiento prestuba.

9.—Aita Manuel, erri guztiya  
jarriya zenduban pozak,  
espero zendun premiyo onena  
bandera eta trabesak;  
idea oiek ez dira izan  
guretzako aldrebesak,  
aurten ez dizu asko luzitu  
automobilien karrozak.

10.—Lenbizikuan erretiratu  
giñadenian Bilbotik,  
indar gutxitxo ete genduban  
esaten zuten gugatik;  
berak naikua euki ba lue  
ezin ekarri kanpotik,  
banderakuan Sestaoarrak  
sartu zaizkate aurretik.



11.—Guk ez dakigu erreparuan  
jendia nola jarridau,  
zenbait ez dira eskarmentatzen  
txanponak bota artian;  
Oriyotikan Donosti aldera  
kamiyotikan urrian,  
aditzen degu billete ederrak  
galdutakuak zein dian.

12.— Mutillak zintzo kunplitzen dute  
beren patroien ordena,  
atzera eta aurrera bizi  
ibilli re bai arrauna,  
asi bezela iristen dira  
kanpora eta barrena,  
bildur piska bat izan zazute  
ortan Oriyotarrena.

13.— Nolakaikua ez da izan aurten  
Oriyotarren joera,  
txikiyak ere sartuko ditut  
danak aundiyan salleran,  
zer interesa ekarri duten  
orain nua esatera,  
ogei ta amabost milla peseta,  
lau kopa ta bost bandera.

14.—Ogei ikurrin eta lau kopa  
ayuntamentu batera,  
San Nikolasko gazteak jendiak  
ekarri ditu onera,  
saiatu arren batzuek ezin  
dute alerik atera,  
Oriyon bada erri guztiya  
tapatzeko lain bandera.

15.—Oriyotarrak toki txarretik  
ziranian suertatu,  
Sestaoarrak burla egin naian  
etziran gutxi arrotu;  
orregatikan ginan nerbiyo  
danak altxata jokatu,  
San Pedrotarrak bezela ziran  
gure atzetik gelditu.

16.— Bakarrekuen pasadizuak  
biaitut adierazi,  
San Pedro egunez Frunen nola  
Manterola zan lenbizi,  
bestiak erraz konpontzen ditu  
Txokolate ezin ausi,  
bolara ontan bi arraunian  
Sarasua da nagusi.

17.—Bertso berriyak jarri ditugu  
gusto dubenak kantatu,  
sei igandetan sei estropada  
ditugulako jokatu;  
berriz ortara guazeneko  
ez degu iñor markatu,  
geldu gera Kosta Kantabri  
daneko kanpeonatu.

18.—Disponitu det bertso onekin  
azaldutzia azkena,  
danak ikasten saia zaitetze  
al dezuten azkarrena;  
zuk dakizu nola ibilli  
zure atzeko arrauna,  
gora Oriyoko gazte kuadrilla,  
eta patroii Mitxelena.

(Impr. Elustondo-Zarauz)



# 1935 URTEKO ESTROPADAK.

(Oriyotarren burlaz)

1. —Emeretzireun urtez gañera  
ogei ta amabostian,  
estropada bat jokatu degu  
Agorrillaren zortzian,  
bost erritako arraunlariak  
izan gera Donostian,  
Oriotarra geratua da  
uste gabeko tokian.
- 2.—Beren ustetan ekarri zuten  
txalupa ona ta ariña,  
beste danari irabazteko  
asmu orretan egiña,  
asi ta beloa puskatu dute  
ontziak zuen makiña,  
uste det oh izandu dala  
kartoiarekin egiña.
- 3.—Gizon askori aditi diot  
neurritz fuerako zala,  
au esan arren ezta mudako  
Oriyotarren azala,  
neronek ere pensatu nuan  
zerbait gertatutzen zala,  
urrengo Lidian zuzena ekarri  
San Pedrotarrak bezela.
- 4.—Orio ondo aterako zan  
ura egon balitz geldia,  
itxasotik ere egun orretan  
izan zuan gaizto oidio,  
txekorrak eta zikirok jan ta  
mutillak pixu andia,  
kargiak errez menderatzen du  
indar gutxiko zaldia.
- 5.—Lenzizikuan suerte txarra  
izan zuana Oriyo,  
jendia frankok ikusi zuan  
gezurrak ez du baliyo,  
bigarrenian ere nere uztez  
ezta askorikan iyo,  
Ondarrabiko baserritarrak  
naiko lana eman diyo.
- 6.—Ondarrabian iru kuadrilla  
oso motelak ez dira,  
aukeratzeko arraunlariak  
mutil ederrak ba dira,  
oietatikan ondo unitua  
etorri egingo balira,  
urte gutxien buruku oientzat  
diruak eta bandera.
7. —Arrillagaren mobimentuak  
oso motelak ez dia,  
orrek ederki billatutzen du  
ixtas gañian bidia,  
gaztetatikan artuba dauka  
arraun laneko idia,  
Oriyon ba da indarra baña  
San Pedron abildadia.
- 8 —Oriyotarren esana oraindik  
guri itzaigu aztutzen,  
zernai esan da ere oriyek  
ez dira asko lotsatzen,  
bel lanporayaz betekua guk  
jan degula publikatzen,  
ganadu txarrik pasai aldian  
beñere ez da sartutzen.
- 9.—Oyek uste ute berak bezela  
gu ijituak gerala,  
zeernai esan da ere askori  
batere etzaio ajola,  
juan da urtian bertsuetan jarri  
guk bei zarra jan degula,  
aurten Oriyon jan ornen dute  
ardi zarraren gibela.
- 10.—Erronka eta afana ba zan  
lenago oien artian,  
bandera ez diola iñork kenduko  
beste amar bat urtian,  
mingaña askotan dantzatutzen da  
kasik nok bere kaltian,  
aguro sumar ikusi degu  
San Pedro erri maitian.

1 1 —Zenbait gizonek beti izaten du  
inbiri edo zelua,  
esanaz gure txuletak aña  
badala beran talua,  
non ote dabil jua dan urteko  
kant jartzalle lelua?  
Memoriyak nastubote dan  
daduka errezelua.

12. — Usteagatik ez da erreza  
lanari artzen neurriya,  
ederki samar nekatzen dira  
besuak eta gerriya.  
Orion aurten eroria da  
bi egunetan arriya,  
piska bateko galdu ornen ditu  
kale eta baserriya.

13.— Diferentiak izaten dira  
leiva eeta atia,  
Oriotarrak trabesarako  
bazuten borondatia,  
irabazdunak kontentu daude  
galdu dutenak kaltia,  
aurtengo ontan sobratu degu  
esposatzeko dotia.

14.—Donan aurririk etorritzeko  
egiña zuten promesa,  
ogei zazpiti bildurrik gabe

bota ere bai trabesa,  
egun orretan askok egin du  
pentsamentu aldrebesa,  
beste batian irabazteko  
pazientziya ar beza.

15.— Paper onetan amabost bertso  
egin ditugu guk jarri,  
ez dira txarrak gusto dubenak  
egiteko irakurri,  
Euska errian gorroto txarrik  
ez diogu biar alkarri,  
urrengo urtian aurten bezela  
osasunakin etorri.


Estropada onetan, Orioko  
treñeruak tira bira egin  
eban.

Lenengoa Agorraren 8'n.  
Bigarrena, 19'an.

15 eta 17'an ezin jokatu al  
izan zan egualdi txarragaitik.

- 1 —Son Pedro
- 2.—Ondarrabia, legorrekoa
- 3.—Sestao.
- 4.— Donostia.
- 5.—Ondarrabia, mariñelak.

(Imp. Artística y Hormaechea, Guernica).



# BERTSO BERRIYAK.

1 935 Axentzlo Txankak.

1. — Ftzalditxo bat ateratzeko  
ematen digu goguak,  
esplikatubaz arraunlariyen  
aurtengo deskalabruak,  
Pasai aldetik etorri dira  
Oriyora abisuak,  
ez dizkigute ondo azaldu  
gertatutako kasuak,  
alkar probatu bentzitutakoan  
jarri oi dira bertsoak.

2 —Obligatubak arkitzen gera  
emendik bueltak jartzera,  
ezta komeni aurtten jeixtia  
Pasa itar oien oinpera,  
pasadisuak adierazteko  
oraintxen degu denpora,  
Donostik e ezta San Pedron  
Oriyon aña bandera,  
zuek joateko koraje gutxi  
guk Bilbaokok gañera.

3 —Bizkaian ere arraun laneko  
martxa gendukan asita,  
Bilbao aldera egiña degu  
aurtten lenengo bisita,  
jendia pranko arritu da an  
gure lana ikusita,  
jokatu diran kuadrilla danoi  
bi estropa irabazita,  
banderarekin etorri gera  
marka guziyak auzita.

4.—Beste erritara ezta tiratu  
Oriyora aña tanto,  
San Pedrotarrak abillak dira  
gu bizi bagiña tonto,  
oraingo oien bertsuen bueltak  
jarrita dauzkagu pronto,  
olatu aundiyak azpiratuta  
ondatu giñan da kito,  
kententu gera egun orretan  
inoz ez danian ito.

5. —Txalupa dona urez beteta  
giñadenian gelditu,  
gu ikusita auzo-erritarrak  
etziran asko kupitu,  
Getariarrak aldamenian  
txaloka oso kontentu,  
orraun lanian ba degu oraindik  
oiek ainbeste talentu,  
berak baliyo ez dutenian  
besterena ezin sufritu.

6 — Itxasuaren zakar aldiyak  
ekartzen dituben lanak,  
biraje ori itxura txarren  
egña zuten geienak,  
Ondarrabin e ba dira zerbait  
esango lutekienak,  
giro obien jokatu ziteken  
nai izan ba zuten denak,  
zuertiaren billa zebiltzan  
bestela bildur ziranak.

7. —Jarri digute Oriyo ontan  
gizon astunak daudela,  
kanra aundiyak zaldi txikiya  
azkar bajatzen dubela,  
mutillak arin konserbatzeko  
oitura duten bezela,  
Pasaitarrentzat utziko degu  
ardi zarraren gibela,  
guk oraindikan sobre daukagu  
zekor gartzien okela.

8.—Oriyotarren txalupa dala  
kartoiarekin egiña,  
kaso onetan gezur kontari  
jardun dira alegiña,  
egun orretan urez beteta  
ondatu giñaden baño,  
bost jokatuta lautan Oriyok  
aurten e markik aundiña,  
ondo ikasten sala zaitezte  
nola dantzatu mingaña.

9. — Momentu artan kastigatuba zan  
nunbait gureztat erori,  
gauz orregatikan sufritu eziñik  
ezin iduki iñori,  
olatu aundiyak pare-parian  
altza zitzaizkigun guri,  
pesto jartzera ustez juan eta  
amalau gizon igari,  
munduban bizi geran artian  
etzaigu aztuko ori.

10.—Gaztetatikan arraun lanian  
ornen ziraden abitu,  
bidia erraz billatzeuela  
azkotan degu aditu,  
danak dakite egun orretan  
gu nola giñan gelditu,  
abil-usteko asko lenore  
menderatu izan ditu,  
obe dezute itxasuari  
zuek ere obeditu.

11.—Bere tokitik giro onian  
aldutzen zaio lanari,  
obeditzia ez al da obe  
itxaso indartsubari?  
Kaso orretan Pasai aldetik  
bada afana ugari,  
San Pedron dala abildadia  
asi zaizkigu kontari,  
alkarren ondon proatutakon  
ikusiko da gauz ori.

12.—Erri koxkoar au bajatu naian  
San Pedrotik dira asi,  
leno eginda dagon lanari  
erreparatu lenbizi,  
Oriyotarren bateko lautan  
jokatzen dira ikusi,  
ala ere guk aña bandera  
ez dituzte irabazi,  
abildadia ona da baña  
indarra dago nagusi.

13.—San Pedrotarren desaide danak  
etzaizkigu akordatu,  
Ondarrabiko baserritarrak  
nai lituzke goratu,  
gure onduan bi jokatuta  
atzetik dira geratu,  
lenbizikua ornen zuten da  
ezta oiekin zer arritu,  
kuadrilla orek azain ederrak  
oraindik egingo ditu.

14.—Donostiyako funtziyo oyek  
diradenain bukatu,  
Portugaleten estropa ederrak  
segidan dira jokatu,  
an egin degun lanikan ere  
ezin gentzake ukatu,  
bentaja aundiyen Oriyotarrak  
aurretik giñan gertatu,  
premiyua ta kopa artuta  
etorri gera kontentu.

15.—San Pedrotikan Oriyorako  
bertsuak jarrigatikan,  
ez gera asko apuratutzen  
ez gauza orrengatikan,  
edozer itza ateratzen da  
zenbait gizoen autikan,  
uzteko zuen etzala izango  
lenguaren ordañikan,  
juan dan urteko bertsolariya  
sano dago oraindikan.

16.—Portugaleten arraunlariyak  
juntatu dira propiyo,  
Ondarrabitik bi ziran eta  
Sestao eta Oriyo,  
iñor ez nuke bajatu nai nik,  
ezin nezake gora iyo,  
jendia prankok pasiatu du  
estropa dala meriyo,  
aurtengo lana bukatu da ta  
beste bat arte ariyo.

# 1935 URTEKO ESTROPADEI.

Juan Jose Sarasola Azkue "Laxo"

1. — MilFa bederatzireun da  
ogei ta amabostian  
estropada ederrak  
ziran nere ustian;  
San Pedro porfatu da  
danak ainbestia,  
premiyorik geiena  
ark irabaztian,  
Donostiyan ez gaude  
itxura tristian.

2. —Agorraren zortziya  
goguangarriya,  
urteero bezela  
bireko neurriya,  
Sestao ta San Pedro  
ta Ondarrabiya,  
asieratik au da  
ondo etorriya,  
beste irurak zuten  
istillu gorriya.

3.—Ondarrabi-Marina,  
Donostiya ta Orio,  
oriek olatua  
zuten kontrariyo;  
atzeko biyek zuten  
naiko istoriyo,  
urez bete ziran ta  
ezta misteriyo,  
suerte txarra izan  
dutela meriyo.

4.—Atzekuak etziran  
balizetan justu,  
aruntzian kontuz ta  
onuntzian estu;  
jotzen bazuten ere  
baporiak txistu,  
ontziyak puskatuak  
ezin ziran piztu,  
trabesa asko galdu do  
nai dunak sinistu.

5. — Pasa biar ziral  
bestiaren markak,  
lasai esaten zuten  
jasorikan maukak;  
itxaso legunian  
guztizko galopak,  
aserratzen danian  
zeñek ditu kulpak?  
papera dirudite  
orlako txalopak.

6.—Bigarren ensayua  
urrengo iganderako  
aurretik ziran biyek  
ziran banderako;  
amaika t "erdiyetan  
pronto lanerako,  
itxasua zakartu  
lau egunerako,  
gero prestatu ziran  
ostegunerako.


7.—Ostegunian ere  
trabesak ugari,  
zazpigarren txalopa  
zitzaigun ageri,  
ekusiyagatikan  
iru Ondarrabi,  
gure artian etzan  
ainbeste errabi,  
oien garbitasuna  
gustatu zait neri.

8.—Azkeneko estropadan  
emeretzi illak,  
konpletatu dituzte  
beren iru millak,  
errespeto aundiyan  
sartu dan kuadrillak,  
gaztiak diralarik  
prestu ta umillak,  
nonai presentatzeko  
oik dira mutillak!

9. — Fru tripulaziyo iruak bigarren, esateko moruban onenaren urren; Oriyok indarraren poma izan arren, Donostiyan eztago uste bezin barren, esperantza gaiegik ara zer dekarren,

10.—Manuel Arrilaga gizon arituba, itxasoko lanetan asko korrituba, zartuta ere ezin zaio galdu kredituba, seme ta illobarekin orren merituba, nola osatzen diran nago arrituba.

11.—Sei urten segituan ditu sei bandera, aurtan allegatu da zazpigarrenera, urte asko dubenak sasoia gain-bera, bista ere laburtu zaio edadera, gaztiak gertu daude orren esanera.



# ESTROPADAK.

(Eusebio Mugertza, "Mendaro Txirristaka")

1. —Estroparak izandu  
dira Donostian,  
batzuen miserian,  
askoren kaltian,  
okasiorik gabe  
elkarren arfian,  
asi eta bukatu  
ziran bitarfian.

2. — Euskaljerri-guzian  
biar det adiaz  
oriotarrak atxa  
dutela irabazi,  
ziralako iritxi  
arraira lenbizi,  
Domingo Mitxelena  
zutela nagusi.

3.— Gorroturik ez arren  
illuna bekaña,  
indarra eta arraunian  
dotore dakiña;  
barrenian zuala  
kuadrilla bikaiña,  
treñeruak zirurin  
zuala makiña.

4.—Ondoren zuten marka  
obena egiña  
oin emeretzi urte  
egiya da; biña  
espero arren oial  
sedazkoa piña,  
aurten ere alperrik  
dute alegiña.

5. —Asi Santurzen eta  
Ondarrabiraiño,  
arraunlari obenak  
dira araindaño;  
aonbat aldiz probatu  
izan dira, baiño  
Orio geienian  
lenbizi arrairaiño.

6.—Zekorrek uztarriyan  
bezelaxen ezi,  
gero lanian jator  
dezaten ikasi;  
giatzalle jatorro  
dutela nagusi,  
sarritan estroparak  
ditu irabazi.

7. —Ainbat oial sedazko  
erriko etxian,  
ikusgariak dira  
zintzilik jartzian;  
neska mutillen gisa  
alai biotzian,  
atsuk ere dantzan  
soñua jotzian.

8. —Aurtenguakin ogei  
eta bederatzi  
premiyo banderak  
sedaz dira jantzi;  
oiek guztiak ustez  
diradela gutxi,  
Oriok berriz ere  
eingo du irrintzi.

9.—Oi ta bederatzigarren  
sedazko bandera;  
juan dan urtian izan  
bazuten galera,  
aurten orbek zimurak  
sartu sakelera,  
ta eraman dituzte  
Orto aldera.

10.—Boga boga arraunian,  
arraunian!  
Gera obenak aspaldian, aspaldian,  
Kosta Kantabrian,  
Kosta Kantabrian;  
aizia eta olatuak  
lertzen diranian diranian,  
ez gera gu izutzen  
uraren gañian. (Bis).



# 1940 URTEKO ESTROPADETA KO BERTSUAK

Axentzio Txankak

Agarraren 8 ta 17 an Jokatu ziran

1. —Ori o

2. — Ondarrabia

3.—Amaikak bat

4. — Loiolatarra

5.— Santurtze.

1. —Milla urte ta bederatzireun ta gañera berrogeyan, estropa ederrak jokatu dira Bilbaon da Donostiyan, deseoz genuen funtziyu oiek ikusteko aspaldiyan , banderak daude premiyuakin San Nikolasko erriyan.

2. —Bilbaotikan Oriyotarrak aurten zituzten eskatu, jendia nola juntatuko zan burua zuten askatu, iñork asmorik etzeukan baño laister ziraden prestatu, ango bandera irabazita amar segundo sobratu.

3.— Estropa oiek ikusitzeko Bilbaon zegoen kuadrilla, andre ta gizon, neska ta mutil berrogei ta amar milla, oien guztiyen artetik bazan naiko txalua ta bulla, Oriyotarrak ziraden juanak ango banderaren billa.

4.—Dirua pranko sartu dalako aurten Oriyo aldera, alaitasun bat allegatu da basarrira ta kalera, arraunlariyak portatu dira aurreko zarren legera, ta banderaundi ekarrire bai lenguen aldamera.

5. — Oriyo ontan sekulan ezta faltatzen arraunlariya, orrengatikan dago erriyan bandera pilla aundiya, aurten-e ez dute gutxi ondratu gure Koska Kantabriya, bere kuadrilla zuzenarekin goratu zagun patroya.

6.—Gipuzkoan e jarri diyote Bizkaikuari segira, Agorriaren zortziyan jo da Donostiyako pelira, batzuek bian gelditu ziran, besteak iyo mendira, gustora asko egonak gera arraunlariyai begira.

7.—Amabostian berriz jotzeko txalupak ziran trukatu, kuadrillak pronto an zeuden baño egualdi txarra tokatu. Juradu ziran gizon prestuak amazzipira luzatu, egun orretan guztiz estropa ederrak dira jokatu.

8.—Ogei ta amazzipi segundoz Oriyok du irabazi, orrengatikan etorri ziran beren bandera ta guzi, azkenenguan Amaikatarra ibilli da lenbizi, datorren urten Donostiarrak jarriko dira nagusi.

9.—Oraindikan e gustara asko juango litzake aurpera, ura artuta okerture bai estiborreko aldera,

Donostiarrak poztu ziran da  
pixka bat er ten aurrera,  
lengo kartoizko txalopa zarrak  
irabazi du bandera.

10.—Erremint ona nai degu danok  
izan ezker o aukera,  
zer gertatu dan jende geiena  
emana daga tankera,  
naiz asko tira txalopa zorra  
mantso juafen da aurrera,  
arrimatutzen etzegon errez  
Donostiyako jai era.

11.—San Nikolasek urte askotan  
egiten ditun morubak,  
ekartzen ditu banderak eta  
berebiziko dirubak,  
indar aundizko belarrak dauzka  
Oriyoko ingurubak,  
esan gentzake jarri dirala  
Kantabriyako burubak.


12.— Zer dan ederki protzen dute  
estropetako trantzia,  
or komeni da arraunarekin  
urari fuerte eltzia,  
uste ez tala gerta liteke  
datorren ur ten galtzia,

gauzik onena izango degu  
pazientziya artzia.

13.—Oriyotarrak estropadetan  
dabilkiten suertia,  
konsideratzen jarri ezker o  
izango da dezentia,  
ezta bastante arrauna artuta  
adozein moduz juatia,  
ogei ta zortzi bandera daude  
kopakin maia betia.

14.—Urdangarai tar Jose Maria  
gaizki portatu etzea,  
urte batian bi bander aundi  
sartu dituzu etxea,  
jendiai gusto ematiatik  
funtziyo ori jartzea,  
arraunlariyak, bizi zaitetze  
danok anien antzea.

15.—Amabostgarren bertsuarekin  
banua bukatutzera,  
orra jendia biar bezela  
garbi eman aditzera,  
arraunlariyak enpeñatu naiz  
al dana goratutzera,  
gusto dubenak paper ontarik  
saiatu ikasitzera.



## AURTENGO ESTROPADAK.-

("Mendaro Txirristaka" = Eusebio Mugertza.) 1941

1. — Estropadak izandu  
dira Donostian,  
milla bederatzí berrogei fa  
batgarren urtian. Ja, jai!
- 2.—Agarraren zazpiyan  
Kontzaren erdira,  
irurogei ta emezortzi gizon  
inguratu dira.
- 3.— Patroiakin amairu  
ontzi bakoitzian,  
agiri ziran iru balizo  
Gaztelu atzian.
4. — Makiñatxo bat giñan  
aieri begira,  
ikusí naian zein irixten zan  
lenbizi arraira.
- 5.—Estropara bietan  
ona zan girua,  
portalietan, beti bezela,  
bentajen dirua.
- 6.—Ilusio geiegi  
zutenak buruan,  
mingaña gaizki dantzatu zuten  
nere inguruan.
7. —Egun artan San Juan  
probaturik ondo,  
Ondarrabiaik zuan bentaja  
zan iru segundo.
- 8.—Son Juaniek arrauna  
jaso ta esan du:  
"gure markarik oraindik ez du  
iñork ere onda."
- 9.—Milla bederatzireun  
ogei ta iruan,  
Matxet giari, etzan atsegin  
aien inguruan.
- 10.—Urrango igandian  
batzuek irrintzi,  
eta bestiak ezin txistua  
zutela irrintzi.
- 11.—San Juan zan arruino  
iritxi lenbizi,  
segundo batez Ondarrabiak  
zion irabazi.
- 12.—Aurten, bene-benetan  
etorririk billa,  
**ditu bandera eta pezetak**  
emezortzi millo.
- 13.—Beti saiatu dira  
arrokeri gabe,  
aurten lenbizi dira bandera  
sedazkuan jabe.
- 14.—Oiek beti portatu  
diran edo ez jator,  
dudan dagoana dakianari  
galdetzerá betor.
- 15.—Fzan arren aizia  
eta olotuak,  
ontziya zuzen giatu zuan  
zuten pilotuak.
- 16.—Saiatu mariñelak,  
jator berriz ere,  
gorrotu gabe bizi-moduan  
alkarri mesere.

# 1941 - K0 DONOSTIKO ESTROPADEL.

Pello Saikolak jarriak.

1.—Milla urte ta bederatzireun berrogei eta batian,  
kanta batzuek jartzera nua  
gutzizko borondatian,  
arraunlari onak orain ba daude  
Ondarrabiko partian  
saiatu dira bandera ori  
erriyan sartu artian.

2.—Donostin jarri digutelako diru pi!, izugarriya,  
arraunlariyak ondratu dute  
gure Kosta Kantabriya,  
oi ta bi milla peseta eta  
bandera gustagarriya,  
aurten nolanai ezta gelditu  
Ondarrabiko erriya.

3.— Estropa oien asiera zan  
Agorrillaren zazpiyan,  
oiek ikusten jendia franko  
izan gera Donostiyan,  
norberegaitik saiatu dira  
danak egiñak guziyan,  
al dan lenena sartu dirade  
bakoitza beren tokiyan.

4.— Amalabian bere txalupa  
alkarri zizkan trukatu,  
San Juandarrak lendabiziko  
allegatzia tokatu,  
jendiai gusto eman diyote  
ez dira gaizki portatu,  
ez da estropa ederragorik  
espaldi ontan jokatu.

5.—Amaika ta erdik jo zutenian  
laister ein zuten sayua,  
arrexkatubaz zeñentzat izan  
lenbiziko premiyua,  
arraunlariyak izan dute  
pranko istimaziyya,  
publiko dana aiei txaloka  
orko animaziyyual

6.—Ogei minutu pasian jua  
ziraden beren sarrera,  
makalarenak atzera eta  
abillarenak aurrera,  
alkar neurtzeko etziran jua  
Kontxara leku txarrera,  
segundo batez Ondarrabiya  
irabazi du bandera.

7.— Donosti ontan bete ditugu  
norbere egizkizunak,  
arraunlariyak alkar probatzen  
ortxen dirade izanak,  
toki askotan egonagaitik  
indar aundiko gizonak,  
jpar aldetik azaldu dira  
aurten danetan onenak.

8.—Sei txalopa or giñan guztiyak,  
Gipuzkoatik bost-tia,  
alkarren kontra peliatuak  
Bizkaiakua bestia;  
esperantz ono ekarri airen  
Sestaoyik Donostia,  
oi ta bi milla pezta nolanai  
irabazitzen ezta.

9.—Koadrilla ori prestatuba da  
patroiarekin ondraru,  
baña ez dute Donostiyatik  
eraman nai aña diru,  
apusturako kontua ezta  
izaten oso seguru,  
galdu dubenak pazientziya  
artzia askoz obe du.

10.—Diperentziya dago koadrillan  
batetikan besterena,  
indarra eta abildadia  
azkar joateko onena,  
nai izan airen iritxi ezin  
orrek ematen du pena,  
banderik gabe norbaitek ere  
gelditu biar azkena.

11.—Bizkai aldetik etorri ziran  
bastante mutl batuak,  
fanfarroi antzak mingañez baño  
egin zituzten naikuak,  
pruebetan zerbait luzitu arren  
lan txarrak ditu jokuak,  
aurtengo ontan makiña bati  
oker jo diyo kukuak.

12.— Estropa oiek ikusitzeko  
deseoz zegon jendia,  
batzuek bian gelditu ziran,  
besteak iyo ornen dia,  
egun oietan billetederrak  
esku aldatubak dira,  
galdu dutenak umil) askorik  
etxe aldera joan dia.

13. —Arraunlariyak ipiñi dute  
Donostiyan naiko festa,  
jende puska bat inguratzeko  
punziyo oberik ezta,

irurogei bat milla persona  
urian ziraden presta,  
apenas iñork oiengatikan  
egin dubenik protesta.

14.—Ondra andiyak artu dituzte  
patroi ta bere kuadrillak,  
alkar neurtuta ezagutzen da  
aber zein diran abillak,  
mokadu onak janda ez daude  
gorputzetikan debillak,  
zer ziradela uste zenduen  
Ondarrabiko muillak?

15.—Kontxa orretan azaldu dira  
mutilla kuriyosua,  
urte askuan lagun deiela  
gure Jaun amorosua,  
gorrotu gabe bizi gaitezen  
erbesteko ta auzuak,  
estropa ori dala meriyo  
orra ipiñi bertsuak.



# BERTSO BERRIAK, AXENTZIO TXANKA JARRIAK 1942.

Agorraren 6 ta 13an jokatu ziran.

- 1.—Orio.
- 2.—San Juan.
- 3.—Ondarrabia.
- 4.—Loyola.
- 5.—Amaiak Bat.
- 6.—Armada.

1.—Bertsuak ipintzera  
orain naiz abiyan,  
milla bederatzireun  
berrogei ta biyan,  
egiya esateko  
Agarraren seiyan,  
estropadak jokatu  
dira Donostiyen,  
ederragorik ez da  
izan aspaldiyan.

2.—Txalopak trukatuta  
berriz amairuban,  
danak jokatu dira  
len oi dan moduban,  
askok irabaztea  
zeukaten buruban,  
bañan etziran asi  
leku seguruban,  
aurten etzan atsegin  
gure inguruban.

3.—Galdu dutenentzako  
izan da ekaitza,  
San Juandar oriyek  
zuten esperantza,  
argatik ibilli da  
dirubaren dantza,  
gutxi dira ta beti  
azkar jutun gaitza,  
Oriyotaren kontra  
alperrik dabilta.

4.—Onela ikusten dira  
zenbait arraunlari,

obeditu nai eza  
geiago danari,  
esperantz onak eman  
erri guztiari,  
gero jendiak bota  
dirua gari,  
txaskua pasa zaie  
San Juandarrari.

5.—Lengo azañei ondo  
erreparatuta,  
San Juandar batzuek  
zeuden arrotuta,  
baña bandera gutxi  
erriyan sartuta,  
larogei bat segundo  
Oriyok kenduta,  
asko gelditu dira  
sakela ustuta.

6.—San Juandarra etzan  
aurten dudan asi,  
espero zun jartzia  
guztiyen nagusi,  
nola etorri ziran  
zituzten ikusi,  
karroza eramateko  
aengeru ta guzi,  
txoriak Oriora  
juan zaezke igesi.

7.—Galdubak men ematen  
oiek lanbidiak,  
ixillikan ba gaude  
egin du guriak,  
arrika jardun dira  
mutil dotoriak,  
orrororik merezi  
eztu baporiak,  
ori ez du egiten  
persona nobliak.

8.—Beti aitortzen degu  
egindako lana,  
igaz zan Ondarrabi,  
bandera eramana,  
urte bete osuan  
iduki du sona,  
argatik trabesian  
alako apana,  
curten Oriotarrak  
jo dute kanpana.

9. — Kanta paperan jarri  
ditzogun egiyak,  
pixka bat onratubaz  
estropalariyak:  
Ondarrabitik alai  
ziran etorriyak,  
trabesa galdu eta  
oien arrabiyak,  
kukubak oker juak  
San Juan eta biyak.

10.—Estropa oiek dira  
ederki ikusi,  
iñork ere etzuen  
ematen itxusi,  
lau jokatu ditugu  
dabetan lenbizi,  
bation galtzen ba da  
seitan irabazi,  
Oriyo arraunian  
daukagu nagusi.

11.—Portugaleten ere  
degu jokatuba,  
guretzat gertatu zan  
ango merituba,  
periodikuetan  
askok du letuba,  
Gobernadore jaunak  
dauka juzgatuba,  
Oriyo Kantabriko  
kanpeonatuba.

12.—Domingo Mitxelena  
daukagu giyari,  
erreparatutzeko

bere kuadrillari,  
bentaja kendurikan  
beste guztiyari,  
entregatu dizkate  
Oriyotarrari,  
bi bandera eder ta  
kopa aundi ori.

13.—Kopa aundi eder ori  
zania ikusi,  
Bizkaiko estropetan  
bero giñan asi;  
ango eskola ere  
genduan ikasi,  
iru urtetan degu  
garbi irabazi,  
entregatu digute  
bandeta ta guzi.

14.—San Juandarra jun zan  
kopa orren billa,  
esperantzetan ba zan  
gutxiyenez milla;  
Domingo Mitxelena  
etzeguen debilla,  
ondo preparatuba  
zedukan kuadrilla,  
irabazi ditu ta  
probetxa dedilla.

15.—Kontu oiek aditu  
dizkagu askori,  
zer esaten zioten  
Portugaleteri:  
"Aurten jokatzen ba da  
kopa aundi ori,  
guk kenduko diegu  
Oriyotarari..."  
Tira biarko zaio  
geio arraunar.

16.—Donostiyan dalako  
petardo emana,  
tripako miñez zegon  
or galdu duena;  
Bizkaitik ekarri nai  
zuten osasuna,



aste erdirako zan  
ensaiora juna,  
Loiolatarrak austen  
bazan naiko lana.

17.—San Frantzisko eguna  
ortarako autu,  
meza nagusi on bat  
zuten aukeratu;  
banderak eta kopa  
danak bedeinkatu,  
kanpotarrare asko  
zitzaigun juntatu,

egun oberik ezin  
gantzake pasatu.

18.—Funtzio ori bukatu  
danian elizan,  
estropada polit bat  
segiran da izan;  
neskatxak aurrekua  
oien alabantzan,  
kabitu eziñikan  
jende asko plazan,  
makiña bat persona  
ibilli da dantzan.



# BERTSO BERRIAK ESTROPA-GAIZ BASARRIK JARRIAK 1944.

1. — Milla ta bederatzireunetan  
berrogei ta laugarrena,  
Kantauriako itxas ertzetan  
aztu ezin litekena,  
betiko penaz gelditi liteke  
joaterikan etzuenan,  
sei ontzi bizkor leia bizian  
bata bestean urrena,  
gure begiak ikusi duten  
arraun jairik ederrena.

2. — Ain gazte jende sendo, zaildua,  
indartsu bezin liraña,  
nolako txanpa beldurgarriak  
ura arraunketa bikaña!  
Testigu ortxe gelditutzen da  
Donostiko itxas gaña,  
urrezko letraz moldetu leizke  
merezi dute, alajaña!,  
bi Pasai, Ondarrabi, Orio,  
Donosti eta Pedreña.

3. — Lendabiziko neurketa izan zan  
Agorraren amarrean,  
gure itxasoa etzan arkitzen  
oso era zokarrean,  
mugitzen zanik etzirudian,  
baretasan ederrean;  
ura jokoa ta estuasuna!  
danak alkarren urrean...  
bein bear eta Oriotarrak  
beste guzieren aurrean.

4. — Bi2kor asi ta bizkor bukatu  
an etzan iñor makaldu,  
joko guzitan gertatzen dana:  
norbaitek bear zun galdu;  
ta bakoitzari berea eman,  
zertako temari eldu?  
langille onak bere soldata  
irabazia ez al du?  
guziak onak izanagaitik  
batek onena bear du.

5.—Arraunlariak jokatu ziran  
asmo zuzenez beterik,  
aien burutan etzegen ezer  
al zona egin besterik,  
askok diote an ez ote zan  
amairu seundon alderik,  
laiko juezak nastu litezke,  
ortan ez dogo dudarik,  
ala izan arren mutil on aiek  
bai al zeukaten kulparik?

6.—Uretan garbi erabaki zan  
ontzi arteko burruka,  
gero etzegen kalerik kale  
zertan ibilli muturka,  
ainbat eta ainbat nabaitu giñun  
karraxita ta ujuka,  
urte ontako txapeldunari  
fueraka eta txistuka,  
gauz ori ontzat artzen duanak  
gizatasunik ez dauka.

7. —Galdu-irabazi lagun bear du  
alkarri esku emanda,  
gure aurreko guraso zarrak  
ala gelditzen ziran da;  
itxusi baitzan ainbat naspilla  
Donostiraño juanda,  
nik beintzat asko sufritu nuan  
begira egon nintzan da,  
alkar jan naian ala ibiltzea  
danok anaiak izando.

8.—Gora San Juan, gora Ondarrabi,  
biotz on oiek alaitu!  
egin dezuten lan eder orrek  
guziok poztu bai gaitu.  
Gora Pedreña, gora Donosti!  
aurrera gogoz jarraitu,  
ta Sanpedrotar bikain trebeak  
aurten bigarren gelditu,  
aita Manuel jator leialak  
ndorengoak ba ditu.

9.-Oriotarren birtute ori  
arrigarri ez ote da?  
Obrari begiratu zaiogun  
itzak lago alde botera;  
errespeto onez txapela erantzi,  
gizonak baldin ba gera,  
txarrak izando ezтира ekartzen  
nolanai erri aldera,  
lau medallakin amabi kopa  
eta ogeitamar bandera.

10.—Ara Bilbaon nola izan diran  
uste ez ginduzen orđañak,  
Españiako txapelketa or  
eraman digu Pedreñak,  
beste tokitan ere semeak  
ba dira amak egiñak,  
itxasoa ta ibaia nunbait  
ezтира izaten berdiñak,  
galtzen ere ondo jakin bear du  
irabazitzen dakinak,

(Zarauzko Elustondo moldiztegian).



# BIBA ORIO!

("Mendaro Txirristaka" Eusebio Mugertza. 1946)

1.—Agorren iruan  
ta amabostian  
estropada jatorrak izandu  
dira Donostian, Ja, jai.

2.—Arraunlari euskotar  
gizonak bikañak  
izanagatik atzian utzi  
zituan Pedreña'k.

3.—Batzuen meseria,  
askoren galera,  
ontzi obiarekin Orio  
Santander aldera.

4.—Ostegun urrenguan  
eta igandian  
oriotarrak ziran aurretik  
Santander 'eko baian.

5.—Errex irabaziko  
zutela uste, baña  
Orio'ren atzetik, Sestao  
bezela Pedreña.

6.—Bandera ustez egin  
zutela berentzat,  
sedazko pin, urrez bordatua,  
oriotarrentzat.

7.—Erre nai bazioten  
enbarkaziyua,  
ori da zentzu-gabiak duten  
ekukaziyua.

8.—Bedia 'k izan arren  
ostentaziyua,  
distingitu zan Makazagairen  
tripulaziyua.

9.—Orio.ko atsuak  
aguriakin dantzan  
egingo dute, amalau gizona  
oien alabatzen.

10.—Asi Santurze'n eta  
Ondarrabiraño,  
arraunlari obenak izandu  
dira oraindaño.

11.—Arraunlari jatorrak  
oitura garbiyan  
oriotarrak dira, itxasuan  
bezela, ibayan.

12.—Aizkolariyak ere  
Euskalerrikuak  
dira, dituztenak pare bana  
gorringo bikuak.

13.—Birika lasaia eta  
indar aundikuak,  
orregatikan dira kanpeoi  
Españiakuak.

14.—Gipuzkoa ta Bizkaia  
alkarren lagunak,  
zergatik geran gure izkuntza  
euskera degunak.

15.—Birau bakar bat ere  
ez duan izkera  
maite desagun, maitagarriya  
dalako euskera.

# BERTSO BERRIYAK ONDARRABIARRAI JARRIYAK

1948 (José Manuel Ugalde)

1. — Milla bederatzireun  
berrogei ta zortzi,  
Donostiyan regatak  
ditugu ikusi;  
ondarrabiatarrak  
ditugu nagusi,  
emen etorri dira  
bandera ta guzi.

2. — Falta ziran Pasaia  
eta Donostiya,  
Gipuzkoatikan bat,  
ura Ondarrabiya;  
Bernardo Elduayen  
zutela patroia,  
bandera irabazi,  
ori dek sasoia.

3. — Illaren bostian zan  
lendabizikua,  
ondarrabiar onek  
egin du naikua;  
Pedreñak ezin eutsi  
oien erasua,  
erriyuan ez gaude,  
ez da itxasua.

4. — Ogei ta amar segundo  
estropada bate,  
Pedreña aundiyari  
dizkatela kentzen;  
alperrik da Oriyo  
Pasaia naiz irten,  
Ondarrabi kanpeon  
Españiyan auten.

5. — Castillatik etorri  
dira arrotuta,  
aiek añakorik ez  
dala sinistuta,  
orain bueltatu dira  
oso umilduta,  
kaskarreko ederra  
buruban artuta.

6 — Bi urtian egondu  
dira gobernatzen,  
zortzireun milla pezta  
gañera gastatzen;  
Ondarrabiyak berriz  
zein ezt arritzen? -  
amabost egun pasa  
ditu preparatzen.

7. — Orain bi urte ere  
nork ez du goguan? -  
Españiko txapeldun  
Pedreña zeguan;  
etorri zan onera  
arruen moduan,  
Ondarrobiyarekin  
galdu egin zuan.


8. — Ondarrabiyak ba du  
mutilla trebia,  
bost bandera oietan  
badauka partia;  
au bai dala erriyai  
fama ematia!  
Pedreñak izandu du  
orrekin kaltia.

9. — Alperrikan dabilta  
Pedreña ta Oriyo,  
Ondarranlyarentzat  
ez dute baliya;  
Argi ikusi degu,  
alkatiak diyo,  
ayuntamentutikan  
imil da seriyo.

10. — Sagarzazu jaun orrer  
poz eta atsegIña,  
guztiyen aita danez  
da gauza jakiña;  
Marino'ra joan giñan  
jendia no! año,  
an berriz egin zuan  
itzaldi bikaña.

11.—Gipuzkoa guztiyak  
arturikan parte,  
gaurko jai eder au  
antolatu dute,  
erriyak eta bandak  
aguazil da alkate,  
arraunlarik ondo  
mereziya dute.

12. —Amabigarren bertso  
onekin amaya,  
ez da iñoiz aztuko  
emen gaurko joya.  
Euskalerra guztiyan  
entzuten dd deya;  
Gora Gipuzkoa ta  
gora Ondarrabiyal



# 1951 ko estropadak.— BERTSO BERRIYAK

Asentxio Txankak jarriak.

1. — Milla pasota bederatzireun  
berrogei ta amaika urte,  
Kristo mundura jaio zanetik  
asi ta orain bitarte,  
aurten Donostin txalopa ta arraun  
estropak jarri dituzte,  
zein dan onena ezin antzeman  
jokatzen ikusi arte.

2.—Sei erritako arraunlariyak  
bildu gera Donostiyan,  
txalopa andiyen asiera zan  
Agorreko jliaren biyan;  
bigarrenkoa berriz segiran  
Agorren bederatzian,  
etzan estropa ederragorik  
ikusiko aspaldiyan.

3.— Estropa oiek ikusitzeko  
askok zeukan ilbiriya,  
lendabiziko Oriyotarra,  
bigarren Ondarrabiya,  
irugarrenko Donostiarra,  
laugarrenko Getariya,  
bosgarrenkoa Zarauztarra ta  
azkenengoa Zumaya.

4.—Aurten lenengo onra Oriyk  
ekarri du Tolosatik,  
bigarrenkoa Lasartetikan  
irugarrena Frundik;  
laugarrenkoa Zarauztik eta  
bosgarrena Donostitik,  
kanpeonatua irabazita  
seigarrenkoa Bilbaotik.

5.—Aurten Oriyon arraunlariyak  
ondo zaizkigu portatu,  
beste tokitan ezta olako  
ederlasunik gertatu;  
sei erritako premiyorikan  
onenak zaizke tokatu,  
urte batean ainbesterekin  
nai luke kanpeonatu.

6.—Alkarren bildur aundiyan ziran  
estropa jokatzen asi,  
baña eztute arrauna ibiltzen  
guztiyak igual ikasi,  
Oriotarrak bentaja aundiyan  
danen aurretik lenbizi,  
Sarasua ta bere kuadriHa  
gelditu dira nagusi.

7.—Sarasuaren kuadrilla dabil  
oso joera biziyen,  
nola Donostin, ala Bilbaon  
biyetan irabaziyan,  
kanpeonatu deitzen diogun  
arrauneko jimnasiyan,  
Oriotarrak aurten txapeldun  
gera España guziyan.

8.—Kanpeonatu ori jokatzen  
Bilbaon giñaden asi,  
lendabiziko palaratikan  
arrauna zitzaigun ausi;  
beste arrauna prestatzerako  
kontrariyuak igesi,  
arrapatuta pasa giñun da  
an e Oriyo lenbizi.

9.—Egiyak garbi esan ditzagun,  
gezurrak eztu baliyo,  
oraingo bertso berriyak dira  
estropa dala meriyo;  
Getariarrak aurten azpira  
bota nai zuben Oriyo...  
lengo oiturak segitziatik  
kukubak oker jo diyo.

10.—Getari orlan batenbat bada  
bere ustetan abilla,  
estropa kontun ez orrera jun  
languntzalliaren billa,  
bat Aiakua genduela ta  
kendu ziguten mutillo,  
ori gabere jokatu gera  
oiek añako kuadrilla.

11.—Getariarrak arraun lanean ikasi dute dotore,  
Oriyotarra irabazteko  
aurten prestatu dirade;  
kuadrilla aundiak alkar artuta  
governatuta or daure,  
olako markak egin ditezke  
lapa gordiñak jandare.

12.—Estropa aurreko egun batzutan  
erronka bazun Getarik  
oien txalopak ez du artutzen  
biar añako martxarik,  
ez du baliyo ez baldin bada  
indar aundiko gazterik,  
arraunai gutxi tirata ez dago  
estropa irabazterik.


13.—Len egindako azagañatik  
arrotutzen al zerate?  
Getariarrak poztutzen dira  
bakarrik dabilzan arte;  
baña estropa jokaturakoa  
askotan galtzen dezute,  
oraindikako lotsagarriña  
aurten gelditu zerate.

14. — Nolanaikua ez da izan aurten  
Oriyotarren joera,  
lenago ere urte askotan  
onla ibilliyak gera;  
irabaziyak zenbat ditugun  
orain guaz esatera;  
ogei ta bost kopa eder ta  
berroi ta amabi bandera.

15.—Kopak ere bai, bandera asko  
bedintzakeko zegun,  
Agorrillaren ogei ta iruba  
egun bat jarri genduan;  
arraunlariyak arraun da guzi  
aldariaren onduan,  
bedeinkaziyo eder askoa  
guztioak urte genduan.

Estropada oneitan onelaxe geratu ziran

1. —Oria
- 2.— Ondarribia.
- 3.—Donostia (Amaikak Bat).
- 4.— Santurze.
- 5.—San Pedro.
- 6.—Luchana.
7. —Donostia (Empuje).



# BERTSO BERRIYAK, ORIOKO ARRAUNLARIAI

## JARRIAK.- 1951

**J. M. Ugalde**

1. — Milla bederatzireun  
berrogei ta amaika,  
Donostian bildu da  
jendetza galanta,  
estropada aundia  
jokatzen dala-ta,  
egualdi ederra,  
itxaso aparta.
2. — Orlo, Donostia  
eta Ondarrabi,  
Zumaia eta Zarautz,  
gañera Getari;  
bizkaitarrak ez dira  
onera etorri,  
"obe diagu ez joan"  
esanaz alkarri.
3. — Donostian ezdegu  
ikusi oraindikan  
aurtengo estropada  
bezelakorikan;  
gaztiak zintzilika  
arboletatikan,  
mendiyak jendez bete  
etzan tokirikan.
4. — Illaren bian zuten  
lendabizikua,  
Orio aurrena baietz  
diruba naikua;  
nunbait patroia zuten  
konfiantzakua,  
amaika estropada  
jokatutakua.
5. — Eguerdiko amabiak  
jo duten orduan,  
ontziak urten dira  
tximisten moduan,  
laister ikus; degu  
indarra nork duan,  
Donostia lenbizi  
sartu da portuan.
6. — Bigarren tanda zuten  
Oriotarrakin,  
Zarautz eta Zumaya  
kuadrilla onakin,  
etzioten nolana  
arraunran ekin,  
Orio lendabizi  
bentaja aundiakin.
7. — Urrengo igandian  
zuten lendabizi,  
Zarautz eta Zumaia  
alkar ezin ausi;  
ziabogan Zumaia gelditu ta asi,  
Zarautzentzat bentaja  
Getari lenbizi.
8. — Azkeneko estropada  
danetan onena,  
bandera norentzat dan  
esango diguna,  
ba dijuaz aurrera  
puntetan barrena,  
laister beultatu dira  
Orio aurrena.
9. — Bilbaon jokatu zuten  
juan dan igandian,  
Españiko txapeltza,  
ura zan jendia!  
Orio añakorik  
ez izan ardia,  
bi bandera ederrak  
or dauzka gordiak.
10. — Oriotarrak beti  
arraunlari onak,  
onek aurrera ere  
emangoitu lanak,  
atzera utzirikan  
kontrario danak,  
osasuna ematen  
badiote Jaunak.



11.—Españiko txapeldun  
aurten da Orlo,  
euskaldunak txit gora  
au dala merio,  
emen kontubak ez du  
batere balio,  
kastillarrak ez dira  
ortarako jaio.

12.— Gaurko jai aundi ori  
dute merezia,  
orFa jaso dutenak  
gure Euskalerria;  
deadar egiteko  
orain da garaia:  
Gora ain jatorra dan  
Orioko erria!



# BERTSO BERRIAK, ORIOKO ARRAUNLARIAI JARRIAK 1953

1. — Milla bederatzireun  
berrogei ta amairu,  
aurten mundu zar onek  
berriak baditu;  
aurtengo estropada  
nola zan aditu,  
gauza au Ikasi gabe  
ez beintzat gelditu.

2. — Munduban gauza eder  
asko izanikan,  
ez dogo Donostiya  
bezelakoriak;  
ondartza edo playa  
jendez beterikan,  
zerbaitegatik datoz  
estranjeritikan

3.—Fillaren seian zuten  
lendabizukua,  
Oriyo aurrena baietz  
diruba naikua,  
askosk esaten zuten  
Betiko Jainkua,  
ogei ta lau segundoz  
ez al da naikua?

4.—Oriyo, Donostiya  
eta Ondarrabi,  
San Juan, Zarautz, Zumaia  
eta Erreenteri,  
egualdiya ederra,  
itxasua guri,  
itxasertzian ba zan  
jendia ugari.

5.—Lenbizi irten zeran  
San Juan da Ondarrabi,  
berekin zituztela  
Zarautz ta Erreenteri;  
indarrak berdin dira,  
bu dijuaz larri,  
etorri diranian  
San Juan garailari.

6.— Bigarreanean zuten  
oriotarrakin,  
Zumayako mutillak  
donostiarrakin;  
etziyoten nolana  
arraunian ekin,  
Oriyo lendabizi  
bentaja aundiyakin.

7.—Urrengo igandian  
egualdi ederra,  
Oriyo lendabizi,  
onentzat bandera;  
onek ekarri diye  
askori galera,  
eskarmentuba sortzen  
errezak ez gera.

8.—San Juan da Ondarrabi  
ziraden urrena,  
estropada ederra  
oik egin dutena;  
gauza bat da ni orain  
arritzen nauena:  
Zer da Donostiyari  
gertatu zaiona?

9.— Etzuen askok uste  
Erreteritikan  
alako kuadrillorik  
irtengo zanikan;  
Donostiya fa Zarauz  
atzera utzirikan,  
allegatu dirade  
pozez beterikan.

10.—Iru urte oietan  
Oriyo nagusi,  
badaukate bestiak  
ontan zer ikasi;  
urrengo urterako  
preparatzen asi,  
bestela juango zaie  
bandera igesi.

11.—Estropada ederrak  
asko izanikan,  
ez edet goguan aurten  
bezelakorikan;  
itxasua zegoen  
geldi geldirikan,  
zerua urdin-urdin  
etzan aizerikan.

12.—Gaurko jai aundi ori  
ospatu nairikan,  
orra amabi bertso  
antolaturikan;  
eskerrik asko danai  
barren barrendikan,  
aurten egin dezuten  
azañagatikan.

# ONDARRABI TA PEDREÑA

(1965) (Manuel Matxin)

1. —Bertso barri batzuek  
estropadakoak (bis)  
Santoñan da Donostin  
jokatutakoak.  
Nun dira kuadrilla ni  
oien neurrikoak?  
Txapeldun atereak  
Euskalerrikoak...  
edo obeto esan:  
Ondarrabikoak.

2.— Desapio modura  
biak ziran irten (bis)  
txapeldun aterea  
zan Pedreña aurten.  
A zer bi estropada  
jokatu dituzten!  
Ez dira ederreagoak  
sarritan ikusten;  
jo zizkaten txaloak  
merezi zituzten.

3.— Lendabizi Santoñan  
ziran jokatzeko (bis),  
urrengo egunean  
Kontxan etortzeko.  
Ordua iritxi zan  
indarrak neurtzeko  
bietatikan iñor  
etzegon galtzeko;  
etzuten asko falta  
mutillak lertzeko.


4.—Ontziak berdintsuak  
gutxi gora bera (bis)  
beste bat nai zuanak  
bazeukan aukera.  
Gauzak esango ditut  
pasa diran era,  
zer pelea jo zuten  
kontuak atera;  
sarri iritxi ziran  
biak bat batera.

5.—Ori ez da bentaja  
alkarri kentzia (bis)  
segundo batena zan  
an diferentzia.  
Biak azaldu zuten  
zeukaten guazia (guzia)  
ta iritxi zanean  
Lujanbion ontzia,  
Ondarrabin entzun zan  
bere irrintzia.

6.—Urrango egunean  
Donostira etorri (bis)  
arpegi ematera  
berriro alkarri;  
Kontxan ikusi zona  
ikusten da sarri,  
errioa iotita  
itxasoan larri,  
au ez ditekela  
nai dan eran jarri.

7. —Juraduak egin du  
irteteko seña (bis)  
bereziziko txanpan  
asi da Pedreña;  
Bedia zarrak zerbait  
gaur nai luke baña,  
erriorako dauka  
kuadrilla bikaña...  
Itxasoan ez dira  
Ondarrabi año.

8.— Naiz Pedreña gelditu  
pixka bat atzera (bis)  
sartu zera euskaldun  
donen biotzea.  
Jokoan beti dator  
norbaitxo galtzera,  
ta galtzen dakizuna  
gaur azaldu zera;  
orregatikan nator  
zu zorientzera.



9.—Garai batean zíran  
Kiriko ta Karril (bis)  
orain Lujanbio oien  
bidetatik dabil.  
Gure estropada zarrak  
nola demontre il?  
Ondarrabin or daude  
apal eta umil,  
berari laguntzeko  
nai beste mutil.

10.—Asarre ta burrukak  
dira gauza txarrak (bis)  
oiek daude emendik  
uxatu bearrak.  
Lur ontan maite dira  
beti kanpotarrak,  
ori ondo badaki  
gaur Bedia zarrak;  
gora Pedreña eta  
Ondarrabitarrak.

# ONDARRABI TA PASAI SAN JUAN

(Manuel Matxin)

1966

1 —Ogei ta zortzi mutil  
zein baño zein obe (bis)  
arraunerako ondo  
prestatuak daude.  
Bi patroï sonatuak  
ontziaren jabe,  
txapelan billa datoz kupitikan gabe:  
Lujanbio Ondarrabi 'n  
Pasaia'n Etxabe.

2.—Estropada Pasai 'tik  
Donsotiraño zan (bis)  
Don Ramon Peyroncely 'k  
eratu zun gisan.  
Ikusi eztunari  
nai diot nik esan:  
pesto ederragorik  
eztiteke izan,  
ni beintzat txoratuta  
begira egon nitzan.

3.—Agorrrak ogei ta bost  
eguzki berua (bis)  
iparretik aizea,  
garbia zerua.  
Ftxasoak dirudi  
dala erriva,  
beti ezta izaten  
olako girua...  
zerutik entzun dute  
gure erregua.

4.—Mutillak ezin egon  
arraunak artuta (bis),  
lanean ausi dira  
urean sartuta  
Ontziaren atzetik  
zientoka txalupa,  
batetikan irrintzi,  
bestetikan aupa,  
indarrak probatzeko  
ordua io du-ta.

5.—Pasai 'tik irten dira  
arraunketa bizin (bis),  
ikusi eztuanak  
sinistatu ezin.  
Burua makurtuta danak beren ontzin,  
jo ta jo or ditoaz  
gogor bide guzin. .  
Ogei ta bost minutun  
or ziran Donosti 'n.

6.—Ondarrabi sartu da  
gaur ere aurrena (bis)  
aurten dudarik gabe  
bera da onena.  
Baña gauza bat da nik  
esan nai nukena,  
askori ikastea  
komeni zaiena:  
galtzen jakitea da  
gauzik ederrena!

7. —Emengo estropadak  
beste batzun orde (bis)  
beti egiten dira  
garbi eta legez.  
Naiz lurrera erori  
gure milla amets,  
aurretikan egiñak  
egunez eta gabez,  
San Juan'ek galtzen daki  
ta beste batzuk ez.

8.—Emengo arraunlarik  
nun eztira maite (bis)  
irabazten da galtzen  
erakutsik boite?  
Ikasi nai duanik  
ba dago norbaite,  
Gipuzkoa aldera  
inguratu leike;  
erakutsiko zaio  
ando eta merke

9.— Pesta ederrik emen  
iñoiz egin ba da (bis)  
nere uste apalez  
atzoko estropada.  
Millaka bildu giñan  
Pasai 'ko barrara,  
millaka gaztelura  
eta Santa Klara,  
ikusi genduana  
berdingabea da.

10.—Nere lagun on batek  
esan ziran neri (bis)  
"Estropada eder au  
urtero egin bedi".  
Begira egon giñan  
eun milla begi,  
**Peironcely 'n ametsa**  
biurtu da egi;  
asitako bidetik  
luzaroan segi!



# I. – TREIÑERU ESTROPADAK GAIAK

Eskintza

Gure asmoa

Lenengo bandera. 1865

Atzerago begira

1.887.º ko Irallia.º ren 12.º ko estropada.

- 1.888.º n Bilbo.º ko Abran Jokatutakoak.

1.888.— Oasal eta Ondarroako erramularien arteko estropada.

1.889.— Bilboko Ibaian Jokatutako estropadak.

1.890.— Urteko estropada.

Ondarroa.º ko Kofradian.

Ondarroa.º ko mariñelak.

Geldi-geldi txikotak Jotzen.

Iturriza.º ren kronika.

1.890 urtean Ondarroa eta Donostia.º k Jokatutako estropadarako baldintzak.

Jakingarri geiago.

Odol beruak

Karril.º en ondorena eta ondarrutarren gitazasunezko biozkada.

1.897.— Nervion.º go estropada.

1.898.— Donostia.º ko estropadak.

1.902.— Nervian.º go estropadak.

1925.º ko estropadak.

1926.— Donostia.º ko estropadak.

1926.— Portugalete.º ko estropadak.

Estropada irabazleak.

Eta gero?



## II. - AINBAT ESTROPADETA KO BERTSO ZAR ETA BARRIAK

1854. -Ondarrutar oriek..... (R.M. Azkueik batuak)  
ع...?. - Castroko Abantariari. (Eusebio M. Azkue).  
i...?. -Castroko Arrantzariari. Eusebio M. Azkue.
1865. -"Xenpelar" 'ek jarriak.
1887. - "Bilbo - ko estropadeta kuak.
- 1888.-Ondarroa ta Pasai arteko estropada. (Jokatu aurretik) T. Urrosolo.
- 1888.-Ondarroa ta Pasai arteko estropada: (Jokatu ondoren) T. Urrosolo.
- 1890.-Ambrosio ta Karril en estropada. Ambrosio Sagastume.
- 1890.-Ambrosio ta Karril en estropada. Franzisko Etxaburu.
- 1898.-Ondarrutar arrantzale batek jarriyak.
1902. - Biba Manuel Beitia eta beraren kuadrilla.
1902. - Bilboko estropadak. - Jose M. Imaz.
- 1902.-Bilboko estropadeta kuak.- Tiburcio Urrosolo.
1902. -Ondarrutarren kontra.- Juan Bta. Urkia "Gaztelu".
1916. -Asmo onak, gertaera txarrak.-
- 1916 -Txirrita - k jarriyak.
- 1919.-Antonio Eleizalde'k jarriak.
1921. Juan Jose Sarasola - k jarriak.
1922. -Pablo Zabaleta ' k jarriak.
- 1923.-Gora Oriyotarrak.
1923. – Getariarren alde.
1923. - Oriotarren alde.
- 1925 -"Gazteluk" jarriak.
- 1925.-Portugaleteko estropadak.- Burgoa ' k jarriak.
- 1926 -Kalandiko Erregiñe Dienesi.- Jose Brontxe-k.
- 1926 -Jose Brontxe 'k jarrich.
- 1926.-Ondarrutar batek.
- 1926.-MilFa bederatzireun...
- 1926 -Beti ezagun... J. Burgoa ' k.
- 1926.-Milla bederatzireun ta... J. Burgoa'k.
- 1926 -Domingo Gorra jarriak.
- 1926.-Biba Ondarroatarrak.
1926. - Berriatua - ko Ezkerrak jarriak.
1926. -Naste borrhaste.
- 1926.-Arraunkalai estropada. "Mendaro Txirristaka" 'k.
1927. - "Txirrita ' k jarriyak".
1927. -Bertso berriyen errespuesta...
1928. – Gaztelu ' k egiñak.
1928. – Estropadak izandu dira...."Mendaro Txirristaka" 'k.
- 1929.-Abarrategi 'k jarriak.
1930. - "Gaztelu" k jarriak.

1931.— Donostiyako estropadari. Juan Zabaleta.  
1931 . — "Txirrita" k jarriak.  
1932.—Donostiyako estropadari. Juan Zabaleta.  
1932. — "Txirrita" k jarriak.  
1933.—P. Saikola" k egiñak.  
1933.—Onra andiyak merezi ditu...  
1933. — Oriotarrei erantzueru.  
1933.— Lendabizikuak neriak ziran...  
1933. — Pasadizuak bear bezala...  
1933. —Zortzi treñeru...  
1933.— Marzial Urtzegiak jarriak.  
1934.—Asentzio Txanka' k jarriak.  
1935.—Oriyotarren burlaz.  
1935.—J. J Sarasola ' k egiñak.  
1935.—Asentzio Txanka" k egiñak.  
1935.— Mendaro Txirristaka " k egiñak.  
1940.—Asentzio Txankaik egiñak.  
1941.—Pello Saikola" k egiñak.  
1941.—Aurtengo estropadak. "Mendaro Txirristaka" ' k.  
1942.—Asentzio Txanka' k egiñak.  
1944.—Basarri ' k egiñak  
1946.—Biba Orio! "Mendaro Txirristaka" " k.  
1948. —Ondarrabiarrai jarriyak. — Jose Manuel Ugalde.  
1951.—Asentzio Txanka" k.  
1951.—Orioko Arraunlariai.— J. M Ugalde' k.  
1953. — Orioko arraunlariei.  
1965.—Ondarrabi ta Pedreña.— Manuel Matxain.  
1966.—Ondarrabi ta Pasai San Juan. Manuel Matxain.

Ondarroa  
beti izan da  
arrantzalea;  
arrantzaleak,  
bere kirola,  
estropadea.  
Len Kofradiak  
zainduten eban  
orren legea;  
orain Arraun Elkartek  
barriztuko dau  
bere ospea.

